

EUSKADIKO HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANA 2030

Ingurumen-azterketa estrategikoa

2021eko maiatza



AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	5
2.	EUSKADIKO HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANA 2030.....	7
2.1.	PLANGINTZAREN ESPARRUA ETA HELBURUAK.....	7
2.1.1.	Arau-esparrua	7
2.1.2.	HPKP 2030ek lortu nahi dituen helburuak.....	7
2.1.3.	Beste plan eta programa batzuekiko harremana	8
2.1.4.	Ingurumen-babesaren helburuak eta irismen-dokumentuan jasotako iraunkortasun-printzipioak eta -irizpideak.....	26
2.2.	PLANAREN IRISMENA, EDUKIA ETA GARAPENA	30
2.2.1.	Planean garatzen den plangintza mota.....	30
2.2.2.	Planaren aurreikuspenak	31
2.2.3.	Planaren jarduketak	39
2.2.4.	Planen eta proiektuen aurreikuspena: azpiegiturak instalatzeko leku desegokiak edo baztertuak, eta sustatu beharreko espazio degradatuak	53
2.2.5.	Ingurumenean eragin dezaketen planaren jarduerak	59
2.2.6.	Planarentzat aurreikusitako garapena	60
2.2.7.	Garatzeko denbora-aurreikuspena	60
3.	PLANGINTZA-ALTERNATIBEN AZTERKETA.....	62
3.1.	0 (zero) ALTERNATIBA EDO ESKU-HARTZERIK EZA	62
3.2.	ALTERNATIBAK, PLANAREN IRISMENARI DAGOKIONEZ	63
3.3.	ALTERNATIBAK HELBURUEN HAUTAKETAN.....	64
3.4.	FOKURATZEARI BURUZKO ALTERNATIBAK: PROGRAMAK VS JARDUKETA NAGUSIAK	64
3.5.	ALTERNATIBAK GAKO-JARDUKETEN ETA GAINERAKO JARDUKETEN HAUTAKETAN ...	65
3.5.1.	Hierarkiaren printzipioa aintzat hartzea	65
3.5.2.	Lehentasunak erabakitze irizpideak.....	65
3.5.3.	Hondakinak tratatzeko edo kudeatzeko instalazio berriak: diseinurako eta lokalizaziorako irizpideak	66
3.6.	6. FUNTSEZKO JARDUKETAREKIN LOTUTAKO ALTERNATIBAK	66
4.	INGURUMENAREN EGUNGO EGOERA EZAUGARRITZEA.....	68
4.1.	INGURUMENAREN EGOERA EAE-N.....	68
4.2.	HONDAKINEKIN ZERIKUSIA DUEN ARAZOA	74

5.	PLANAREN INGURUMEN-ONDORIOAK	78
5.1.	SARRERA	78
5.2.	HONDAKINEN SORRERATIK ETA KUDEAKETATIK ERATOR DAITEZKEEN INGURUMEN- INPAKTU NAGUSIAK	78
5.2.1.	Hondakinak sortzea.....	79
5.2.2.	Klima-alaketaren gaineko ondorioak	79
5.2.3.	Gainazaleko eta lurpeko uren kutsadura.....	81
5.2.4.	Lurzoruaren kutsadura.....	81
5.2.5.	Okupazioagatiko beste afekzio batzuk lurzoruari	82
5.2.6.	Osasun publikoaren gaineko eraginak	82
5.2.7.	Natura- eta kultura-ondarearen gaineko eraginak, eta paisaiaren degradazioa.	83
5.2.8.	Natura 2000ren gaineko eraginak.....	83
5.2.9.	Lehengaiak eraztea	84
5.2.10.	Arriskuak	84
5.3.	HPKP 2030 PLANAREN HELBURUEN INGURUMEN-ONDORIOAK	86
5.4.	HPKP 2030eko JARDUKETEN INGURUMEN-EFEKTUAK.....	89
5.4.1.	HPKP planaren lurralde-eragina: jarduketak baloratzeko gogoetak.....	89
5.4.2.	HPKP 2030eko jarduketak. Balorazioa	92
6.	PREBENTZIO-, ZUZENKETA- ETA/EDO KONPENTSAZIO-NEURRIAK	103
6.1.	INSTALAZIO BERRIAK EZARTZEKO IRIZPIDEAK	103
6.1.1.	Instalazioak diseinatzeko irizpideak, dimentsionamendua barne	103
6.1.2.	Instalazioak kokatzeko irizpideak.....	104
6.2.	NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA/EDO KONPENTSATZAILEAK HARTZEA	110
7.	INGURUMEN-ZAINTZARI BURUZKO PROGRAMA.....	111
7.1.	PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	111
7.1.1.	Planaren berrikuspina	111
7.1.2.	Jarraipen-sistema eta lotutako dokumentazioa	111
7.1.3.	Adierazleak.....	111
7.1.4.	Kudeaketaren jarraipena	129
7.1.5.	Plana berrikusteko organoak eta erantzukizunak.....	129
7.2.	PLANAREN INGURUMEN-ONDORIOEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	129

I. ERANSKINA. KARTOGRAFIA

1. mapa. Hondakinak kudeatzeko azpiegiturak instalatzeko eremu desegokiak edo baztertuak
2. mapa. Lur eta arroka naturalak har ditzaketen espazio degradatuak

II. ERANSKINA. LABURPEN EZ-TEKNIKOA

1. SARRERA

Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio ingurumen-arloko arauak egitea eta onartzea, ezarritako eskumenen esparruan, bai eta Estatuko oinarritzko legedia garatzea eta betearaztea ere, ingurumenaren eta ekologiaren arloan. Eusko Jaurlaritzaren eskumena da, halaber, beharrezko neurriak hartzea Europar Batasuneko erregelamenduak zuzenean aplikatzeko eta zuzentarauetan eta Erkidegoko gainerako araudian ezarritako betebeharrak betearazteko.

Testuinguru horretan, EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020-2030 (HPKP 2030) **indarrean dagoen plangintzaren berrikuspen gisa ari** da lantzen, hau da, HPKP 2014-2020ren berrikuspen gisa. Horrek aukera eman du EAEko hondakin arriskutsuen, ez-arriskutsuen, eraikuntza- eta eraipen-hondakinen eta hiri-hondakinen prebentzioaren, kudeaketaren eta tratamenduaren arloan aurrera egiteko, baina, hala ere, indarraldia amaitu da, baita hondakinen arloko esparru berria ere, Hondakinen Esparru Zuzentarauaren aldaketari lotutakoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren maiatzaren 30eko 2018/851 Zuzentarauaren bidez eta beste zuzentarau batzuen onespeneraren bidez, eta beharrezkoa da autonomia-esparruko plangintza-tresna berri bat idaztea.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoa (IEE) egiteko kontuan hartzen da:

- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea.

21/2013 Legearen 18. artikulua esparruan, 2021eko otsailean Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera bidali zitzaion, HPKP 2030en zirriborroarekin eta hasierako dokumentu estrategikoarekin batera.

Irismen-dokumentua Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpenaren bidez eman zen, 2021eko martxoaren 30ean. Txosten hori egiteko kontuan hartu dira Administrazio eta erakunde hauek¹:

- URA, Uraren Euskal Agentzia
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

¹ Horrez gain, eta epez kanpo, Arabako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzaren txostena jaso zen, irismen-dokumentua egiteko kontuan hartu ezin izan den arren IAE hau eta HPKPren egungo bertsioa egiteko baloratua izan dena.

- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia, Bizkaiko Foru Aldundia.
- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia, Bizkaiko Foru Aldundia:
 - Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua
 - Ingurumena Kudeatzeko Zerbitzua
 - Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzua
- Eguzkizaleak elkarte ekologista
- Ekologistak Martxan
- Equo Berdeak

Ingurumen-azterketa estrategiko honen eskema eta edukiak aipatutako irismen-dokumentuan zehaztutakora egokitzen dira.

2. EUSKADIKO HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANA 2030

2.1. PLANGINTZAREN ESPARRUA ETA HELBURUAK

2.1.1. Arau-esparrua

HPKP 2030 Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak sustatzen du, eta Gobernu Kontseiluak onesten du.

HPKP 2030 garatzen den arau-esparrua oso zabala da, baina erreferentzia hauek nabarmen daitezke:

- Europa mailan, 2018ko maiatzaren 30eko 2018/851 Zuzentaraua, Hondakinei buruzko Esparru Zuzentaraua (hondakinei buruzko 2008/98/EE Zuzentaraua, DMR izenez ezagutzen dena) aldatzen duena, bai eta Europako Itun Berdea (Green Deal) eta Ekonomia Zirkularrerako EBren Ekintza Plan Berria ere.
- Estatu mailan:
 - Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea (HLKL) eta izapidetzen ari den Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko Legearen aurreproiektuaren zirriborroa.
 - 2016-2022 Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana (HKEEP).
 - Hondakinak Prebenitzeko Estatuko Programa.
 - Ekonomia Zirkularraren Espainiako Estrategia, Espainia Zirkularra 2030.
 - "Elikagai gehiago, hondakin gutxiago" estrategia.
- Autonomia-erkidegoan:
 - 3/98 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra.
 - 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.
 - Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia 2030.

Nolanahi ere, badira plana prestatzeko orduan ere funtsezko garrantzia izan duten beste arau, estrategia eta plan batzuk. HPKP 2030en zirriborroan bertan jasotzen dira.

2.1.2. HPKP 2030ek lortu nahi dituen helburuak

IAE honen 2.2 atalean zehatz-mehatz garatzen dira HPKP 2030en edukiak, haren oinarria osatzen duen ikuspegi estrategikoa eta haren helburu estrategikoak barne, bai eta hura hedatzeko diseinatutako Ekintza Plana eta haren helburu espezifikoak ere.

Nolanahi ere, eta aurrerapen gisa, esan daiteke HPKP 2030ek helburu orokor hauek dituela:

- Hondakinen sorrerari eta kudeaketari buruzko Europako araudi-eskakizunei erantzuna ematea epe labur, ertain eta luzean.
- Moldatze-kudeaketa ahalbidetuko duten ezarpen progresiboko neurrien bidez, hondakinek gaur egun EAEn sortzen duten ingurumen-arazo larria konpontzea. Horretarako, kudeaketaren hierarkiari jarraituz jardungo da, ordena honetan: prebentzioa, minimizazioa, berrerabiltzea, birziklatzea, balorizazioa, ezabatzea optimizatzea.

HPKP 2030i dagokionez, eskakizun-mailak areagotu dira, eta, Plan horren ikuskapenaren emaitzak ikusita, jarduketak egokitzen dira ingurumen-onura handiagoak sortzeko eta hurrengo programazio-aldi horretako inpaktuak murrizteko.

2.1.3. Beste plan eta programa batzuekiko harremana

2.1.3.1. Hierarkikoki HPKP 2030 baino goragoko planak

HPKP 2030 plangintza- eta arau-esparru oso zabal baten gainean planteatzen da, erkidego-, estatu- eta erkidego-mailako erreferentzia-tresnekin, haren diseinua eta garapena gidatu behar dituzten jarraibideak, irizpideak eta helburuak markatzen dituztenak.

Nolanahi ere, hierarkikoki goragoko plangintza gisa aipatu **ahal izango da Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana (HKEEP) 2016-2030**, Ministro Kontseiluaren 2015eko azaroaren 6ko Erabakiaren bidez onartua. Espainiako hondakin-politika bideratzen duen tresna da HKEEP, antzemandako gabeziak hobetzeko beharrezko neurriak bultzatzen dituena eta ingurumen-emitza hobe ematen duten jarduerak sustatzen dituena, aldi berean legezko helburuak betetzea ahalbidetuz.

HKEEPren azken helburua da baliabideen erabilera eta ekonomia zirkularrerantz aurrera egiten duen gizarte eraginkorra sortzea, eta hori Erkidegoko araudian ezarritako hierarkia-printzipioa barne hartutako hondakin-fluxu guztietan aplikatuz lortzen da. Gainera, hondakin-fluxu guztietarako komunak dira honako orientazio hauek ere:

- Zerikusia duten administrazio guztien arteko koordinazioa, bereziki Koordinazio Batzordearen eta bere lantalde espezifikoen bitartez, oztopoak saihesteko.
- Informazioa hobetzea eta hondakinen esparruan gardentasuna areagotzea. Ildo horretatik, funtsezko zeregina du Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketako Erregistroa abian jartzea, erregistro bakarra eta partekatua Estatuko lurralde osorako.
- Ikuskapen-, kontrol- eta zaintza-jarduerak indartzea, gehitzea eta koordinatzea, batez ere hondakinen legez kanpoko kudeaketari lotutako merkatuaren distortsioak saihesteko.
- Giza baliabide eta baliabide ekonomiko gehiago jartzea hondakinen sektorean, besteak beste, tratamenduei buruzko ezagutza hobetzeko eta erabakiak irizpide teknikoetan oinarritzeko.

- Komunikazio eta sentsibilizazio handiagoa eta hobe.
- Hondakinetatik datozen materialak merkatura itzultzea erraztea, giza osasunaren eta ingurumenaren babesa bermatuz.

HKEEPri ingurumen-ebaluazio estrategiko bat egin zitzaion, Ingurumeneko Estatu Idazkaritzaren 2015eko urriaren 8ko Ebazpenaren bidez amaitu zena. Ebazpen horren bidez Hondakinen Estatuko Planaren ingurumen-adierazpen estrategikoa egin zen (2015eko urriaren 22ko BOE, 253. zk.)². Ebazpen horretatik, eta EAEko HPKP 2030ekin lotuta, ingurumen-organoaren alderdi hauek nabarmentzen dira:

- HKEEP autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek definituko dituzten planak koordinatzeko tresna gisa eratzen da; ez du jarduera zehatzik aurreikusten esplizituki, eta, beraz, haren aplikazioak ez du eragin zuzenik ingurumenean.
- Autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek garatu beharreko jarduerak hautatzeko garaian, irizpide jakin batzuk betetzen dituztenak lehenetsi behar dira.

Bidezkoa da aztertzea nola jarraitu dituen HPKP 2030ek, HKEEptik eratorritako tresna den aldetik, bere jardueren definizioan Estatuko Administrazio Orokorraren ingurumen-organoak azken horren Ingurumen Adierazpen Estrategikoan jasotako ingurumen-zehaztapenak:

Jarduerak hautatzeari buruz:

Jarduerak hautatzean, HKEEPren esparruan, 2008/98/EE Zuzentarauaren xedapenak errespetatu behar dira. Zuzentarau hori Hondakinen Esparru Zuzentarau gisa ezagutzen da, eta zuzentarau horrek ezartzen duenez, estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte hondakinen kudeaketa gizakien osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumenari kalterik eragin gabe egingo dela ziurtatzeko. bereziki: a) ez urarentzat, ez airearentzat edo lurzorurentzat, eta ez faunarentzat eta florarentzat arriskurik sortu gabe; b) zaratagatik edo usainengatik deserosotasunik eragin gabe; eta c) interes bereziko paisaien eta lekuen aurka erasorik egin gabe.

Gainera, Zuzentarau honetako 4. artikuluan ezarritako hondakinen hierarkia-printzipioa bete beharko da, hondakinen prebentzioari eta kudeaketari buruzko legerian eta politikan adierazitako lehentasunen hurrenkerari dagokionez: prebentzioa, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea, bestelako balorizazioa –esate baterako, balorizazio energetikoa– eta ezabatzea.

IAE honetan zehar justifikatzen den bezala, eta HPKP 2030en bertan ikus daitekeen bezala, Plana premisa horietan oinarritzen da hain zuzen ere. Kudeaketako hierarkia ezartzeaz gain, Europako araudiak ezartzen duen bezala, instalazio berriak ezartzeko irizpideen definizioaren helburu nagusia da instalazio horiek ingurumenean eragin nabarmenik ez eragitea.

² https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-11385

(...) ingurumen-organoak hainbat iraunkortasun-printzipio zehaztu ditu, HKEEPren aplikazioa gidatu behar dutenak. Honako hauek dira laburbilduta:

a) Hondakinen hierarkiaren aplikazioa.

Hondakinen hierarkia HPKP 2030en idazketa gidatu duten printzipioetako bat da.

b) Ingurumenean eragin negatiboak minimizatzen dituzten zuhurtasun-printzipioaren eta prebentzio- eta kautela-ekintzaren printzipioak kontuan hartzea.

Hondakinen hierarkiaren aplikazioak eta HPKP 2030en Prebentzio Programaren definizioak bermatzen dute alderdi hori.

c) «Lehenago» ezabatu ezin diren ingurumen-inpaktuak zuzentzea eta konpentsatzea.

HPKP 2030ek "Instalazio berriak ezartzeko irizpideak" izeneko atal espezifiko bat barne hartzen du, ildo horretan aurrera egiten duena. Edonola ere, horiek garatzean sortzen diren plan eta proiektuek neurri zuzentzaileak eta, hala badagokio, konpentsazio-neurri espezifikoak jaso beharko dituzte, abian jartzeak eragindako inpaktuen irismenaren eta magnitudearen arabera, ingurumen-ebaluaziorako prozeduretan egiaztatu beharko direnak, hain zuzen.

d) Natura-baliabideen kontsumoa minimizatzea (energia, ura, etab.).

HPKP 2030 osoan sustatzen diren teknologia berrien eta teknika eraginkorrenen erabilerak, "Instalazio berriak ezartzeko irizpideak" direlakoek diseinu-irizpideen artean zehazki jasotzen dituztenak, zentzu horretan aurrera egiteko aukera emango du.

e) «Bizi-zikloaren» analisia, hau da, produktu edo zerbitzu baten ingurumen-inpaktuak kontuan hartzea haren existentziaren etapa guztietan (erauzketa, ekoizpena, banaketa, erabilera eta hondakina).

Ekonomia zirkularra da HPKP 2030en oinarri nagusietako bat, bizi-zikloi buruzko ezagutza handitzea sustatzen baitu materialen sorkuntzaren eta erabileraren eraginkortasuna handitzeko, azken batean hondakina eta horren ondoriozko inpaktuak murriztuz. Gainerakoan, jarduketan inpaktuen balorazioari dagokionez, analisi horri HPKP 2030en garapenean idazten diren proiektuen II Eren esparruan bakarrik ekin ahal izango zaio.

f) Ahalik eta ezagutza zientifiko onenaren eta ingurumen-praktika onenen arabera jardutea.

HPKP 2030en etengabe islatzen den kontu bat da, eta "Instalazio berriak ezartzeko irizpideak" atalean jasotako diseinu-irizpideetan ere jasotzen da.

g) «Kutsatzen duenak ordaindu egiten du» printzipioa aplikatzea, tresna ekonomikoak erabiliz.

Tresna arauemaileak eta ekonomikoak dira HPKP 2030 berri honen berrikuntzetako bat. Helburuak betetzen direla bermatzeko jardueren kontrol zorrotza ezarri nahi du, eta hori hondakinen arloko esparru-araudi berriari esker lortzen da; Kanona, haren esparruan

berrikusiko dena, eta ikuskatze- eta kontrol-sistemak indartzea. Bestalde, kutsatzen duenak ordaintzeko printzipioa eta ekoizlearen erantzukizunaren printzipioa HPKP 2030en ikuspegi estrategikoaren funtsezko oinarri gisa hartzen dira.

h) Klima-aldaketa arintzeko eta egokitzeko ekarpena.

HPKP 2030en helburuetako bat hondakinen sektoreak BEG sorrerari egindako ekarpena murriztea da, klima-aldaketaren aurkako borrokan aurrera eginez. Produkzio- eta kudeaketa-prozesuetan teknika onenak erabiltzea (instalazioak diseinatzeko irizpideak), eta garraioa murriztea (hurbiltasun-printzipioa) funtsezkoak izango dira horretarako. Bestetik, nekazaritza-lurretan konpostatzea eta biohondakinak aplikatzeari buruzko jarduerak egitea proposatzen da, CO₂ hustubideak sortzeko bidean aurrera egiteko.

Bestalde, ingurumen-organoak ezartzen zuen HKEEP esparruko jarduketak hautatzean honako hauek lehenetsi beharko direla:

- 1. Hondakinen sorrerak eta kudeaketak giza osasunerako eta ingurumenerako dituzten eragin kaltegarriak ahalik eta gehien murrizten laguntzea.*
- 2. Hazkunde ekonomikoa eta hondakinen sorreraren gorakada desakoplatzen laguntzea.*
- 3. Hurbileko printzipioa aplikatzea, nahasitako hondakinak ezabatu eta balorizatzen joan behar denean, hondakina sortzen den lekutik gertuen dagoen instalazio egokietan egin dadin.*
- 4. Biohondakinen bilketa bereizita ezartzea, ingurumen eragin negatiboak minimizatzeko – hondakin horiek kudeatzeko beste aukera batzuei lotutakoak, hain zuzen—.*
- 5. Hainbat material bereizita biltzea bultzatzea kalitatezko birziklatzea bermatzeko, lehengaien kontsumoa aurrezteko eta baliabideak babesteko.*
- 6. Lurraldeetako baldintza sozioekonomiko espezifikoetara egokitzea: biztanleriaren dentsitatea, aberastasun-ekoizpenaren egitura, garraio-sarearen garapena, etab.*
- 7. «Itsas zaborra» murrizten laguntzea, Itsas Ingurunea Babesteko abenduaren 29ko 41/2010 Legearen esparruan definitutako itsas estrategien arabera.*

IAEn zehar justifikatzen den bezala, irizpide horiek guztiek gidatu dute Plana idazterakoan erabakiak hartzea.

Azpiegiturak eraikitze edo instalazioak muntatzeko berariazko kasuan, aurreko irizpideez gain, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- 8. Lehentasuna emango zaie hurbileko kudeaketa-sare banatua duten tratamendu-instalazio txikiei, inpaktuak minimizatzen baitituzte eta eraginkorragoak baitira ingurumenean eta ekonomian, baliabideen eta erregaien kontsumoa txikiagoa delako, hondakinen garraioa murrizten baita eta gertu lortutako materialen erabilera errazten baitu.*

9. Inbertsio-lehentasun beraren barruan, honako eragiketa hauek bultzatuko dira: inpaktu txikiak direla-eta, ingurumen-izapideak egin behar ez dituzten eragiketak edo izapidetze hori aldeko Ingurumen Eraginaren Deklarazio batekin amaitu denean, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoaren arabera.

10. Kokapen horretan, Natura 2000 sareko guneetan eraginik ez izateko ahalegina egingo da. Gainera, paisaia integratzea eta abelbideak babestu eta berrezartzea kontuan hartuko dira.

11. Lur gaineko edo lurpeko ur masetara isurketak egin badaitezke, horien kokalekuko Demarkazio Hidrografikoaren agintaritza eskudunak egiaztatuko du plan hidrologikoarekin bateragarriak diren ala ez. Gainera, isurketa-baimenak nahitaezkoak izango dira.

HKEEP esparruko proiektuak hautatzeko eta, bereziki, Natura 2000 Sarean daudenentzat, aipatutako lehentasun-irizpideez gain honako hauek hartuko dira kontuan:

12. Aurreikusitako jardueren eta babestutako gunearen Kudeaketa Planaren arteko bateragarritasuna.

13. Ekosistema naturalen eta, zehazki, kontserbatu nahi diren habitat eta espezieen kontserbazio-egoera ona mantentzen laguntzea.

14. Biodibertsitatea zaintzen eta ekosistema-zerbitzuak mantentzen laguntzea.

HPKP 2030ek hainbat irizpide ezartzen ditu hura garatzean susta daitezkeen instalazioak diseinatzeko eta kokatzeko, lehen zerrendatutako irizpideekin bat etorri (8-14). Izan ere, HPKP 2030en proposamenak alde horretatik aurrerapen bat dakar aurreko programazio-aldiarekiko, instalazioak ezarri behar ez diren zona desegokiak edo baztertuak definitzen eta kartografiatzen baititu espresuki.

2.1.3.2. [EAEn indarrean dagoen lurralde- eta sektore-plangintza, Plana diseinatzeko aplikaziotik etor daitekeena](#)

EAEko Hondakinak Planifikatzeko eta Kudeatzeko Plana 2015-2020

HPKP 2030 HPKP 2015-2020ren berrikuspina da; azken hori 2015ean onetsi zen, eta ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin zitzaion³. Jarraipenezko plangintza planteatzen den heinean, nahiz eta onartutako araudi eta plangintza berrira egokitu, ulertzen da IEK 2015-2020 aldirako ebaluatutako gaietako askok gaur egungo guztiz baliagarriak izaten jarraitzen dutela.

Aldaketa nagusia Europako eta estatuko eskakizunak handitzearekin lotzen da, hondakinen kudeaketari dagokionez; izan ere, erabilera- eta tratamendu-teknologietan aurrerapen

³ Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren 2014ko azaroaren 20ko Ebazpenarekin amaitu zen. Ebazpen horrek EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020ko Planaren Ingurumen Memoria formulatzen du.

nabarmena egin denez, gero eta asmo handiagoko helburuak ezar daitezke. Ondorioz, 2020-2030 aldirako plangintzak aurreko aldietan baino ingurumen-onura handiagoak izango dituela espero da.

IAEn aurrera egiten da, ez bakarrik HPKP 2030en helburuen analisisan, baizik eta lurraldera hurbildu nahi da eta konponbide desberdinen diseinua gidatuko duten oinarritzko elementuak emateko duen harrera-ahalmena baloratu nahi da, eta instalazio berrien kasuan edo lehendik daudenak handitzeko edo egokitzeko kasuan, haien diseinua eta kokapenaren definizioa zuzentzeko irizpideak eman nahi dira.

EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) 2019

Uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez behin betiko onartutakoak -EAE mailako lurralde-estrategia jasotzen dutenak- helburu estrategiko gisa “Energiaren, uraren, hondakinen eta lurzoruen erabilera arduratsua sustatzea” barne hartzen dute, eta horren ezarpena, besteak beste, *“Energiaren, uraren, hondakinen eta lurzoruen erabilera arduratsua sustatzea” barne hartzen dute, eta horren ezarpena, besteak beste, “EAEko Hondakin-azpiegituren Lurralde-plan Sektoriala” idaztea da.* HPKP honek ikuspegi anitzeko planteamendua du LPS horrek izango lukeena baino, hondakinen arazoari modu integralean heltzen baitio: ez da soilik beharrezko kudeaketa-instalazioetan zentratzen, baizik eta jarduketa guztiak identifikatu eta martxan jarri nahi ditu -politiken eta arauen garapena barne-, Europako eskakizunei erantzun egokia eman ahal izateko.

LPS horrek lurralde-plangintza bat islatuko du instalazioen arloan HPKP 2030ek identifikatutako beharrei erantzuteko; hasiera batean, programazio-aldi horretan helduko zaiola aurreikusten da.

LAGek espazioa antolatzeko eta erabiltzeko gidalerro lotesle batzuk jasotzen dituzte, eta horien artean daude *ekonomia zirkularraren arloko gidalerro hauek: hondakinen kudeaketa* (17. artikulua), eta ondoren jasotzen da HPKP 2030en duten isla:

1.- Hondakinak gertuen dauden instalazio egokietan tratatzea, eta, horretarako, azpiegitura-sare nahikoa ezartzea, dauden azpiegitura, ekipamendu eta zerbitzuen erabilera optimizatuz.

HPKP 2030ek, bere oinarriak hurbiltasuneko printzipio desberdinetan ezartzeaz gain, hondakinak kudeatzeko dauden azpiegituren eta, ondorioz, instalazio berrien behararen balorazioa egiten du. Nolanahi ere, lehendik dauden instalazioen optimizazio irtenbideak lehenetsiko dira beti (egokitzapen edota handitze bidez). Edonola ere, arazo horien lurralde mailako isla, aipatutako LPSan idatziko den unean gauzatuko da.

2.- Lurralde-plangintzan, hondakinak birziklatzeko eta gaika biltzeko helburuak zehaztea, eta horiek kudeatzeko beharrezko erreserbak zehaztea, horien banaketak zerbitzu optimoa eta orekatua izan dezan bere eremu funtzional osorako.

HPKP 2030ek helburu horien definizioa eta helburu horiek lortzera bideratutako jarduerak jorratzen ditu. Edonola ere, esparru plan estrategikoa da, eta lurralde mailako gaiak kasuan kasuko LPSan garatuko dira.

3.- Industria-sektoreak, eraikuntzak eta, bereziki, eraispen-lanek sortutako hondakin-bolumenak sortutako arazoak aintzat hartzea, eta lurralde-plangintzan kontuan hartzea zein diren erabilitako materialak identifikatu, bildu, berreskuratu eta berrerabiltzeko beharrezkoak diren zuzkidurak, lehendik dauden azpiegiturak berrerabiltzeari lehentasuna emanez.

HPKP 2030ek industria-hondakinak eta EEHak sortzearen eta kudeatzearen arazoari heltzen dio, eta horiek kontrolatzeko neurriak ezartzen ditu kudeaketa-hierarkiaren printzipioaren arabera (lehendabizi minimizazioa sustatuz), eta beharrezko zuzkidurak zehazten ditu. Hain zuzen ere, EEHen barruan lur hondeatuak, zeramikoak eta nahaste bituminosoak lehentasunezko azpikorrontetzat hartzen dira, eta denentzat irtenbide alternatiboak eskaintzen dira.

4.- Eraikuntza eta urbanizazioko udal-ordenantzen bidez, material gogor eta birziklagarrien erabilera sustatzea, baita jatorri biologikokoak ere, eta horien diseinuan, ekoizpenean eta ondorengo birziklatzean sortutako inpaktuak minimizatzea.

HPKP 2030ek, Euskadiko Ekonomia Zirkularren Estrategia 2030ekin batera, ordenantza horietarako oinarri gisa balio izan nahi du, bigarren mailako materialen zirkulartasuna eta merkatua sustatuz. Bestalde, lege-oinarri bat ezartzeak - 3. funtsezko jarduketa⁴- aukera emango die toki-erakundeei lerro honetan eskakizunak ezartzen dituzten ordenantzak sustatu eta onartzeko.

5.- Proiektuen eta obren kontratazioan ingurumen-alderdiak, material ekologikoen diseinua eta erabilera sustatzea eta balioestea, bai eta haien iraunkortasuna, inpaktua eta ingurumen-portaera eta birziklatzeko eta berrerabiltzeko erraztasuna ere.

Klima-aldaketaren bizi-zikloaren ikuspegiaren eta klima-aldaketa arintzearen printzipioak bermatzen du, hain zuzen ere, gai horri erantzungo zaiola. Maila zehatzagoan, gaur egun prestatzen ari den Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa berria funtsezko tresna gisa ikusten da ildo horretan, baina euskal administrazioek eta enpresek konpromisoa hartu beharko dute eraginkorra izan dadin.

6.- EAEko Hondakin Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialean bermatuko da lurralde historiko, mankomunitate eta toki-erakunde bakoitzeko hondakinen kudeaketa-politiken koordinazioa eta integrazioa.

⁴ Ikus IAE honetako 2.2.3.1 atalean edo HPKP 2030en bertan.

HPKP 2030ek adierazten duen bezala, hiru lurralde historikoen plangintza aurreko HPKPri egokituta dago, eta beharrezkoa da horiek berrikustea, EAEko hondakinen kudeaketarako oinarriak ezarri nahi dituen autonomia-esparruko tresna horrekin bat etorritz.

Hondakinen arloko jarraibide espezifiko horiei emandako erantzunaz gain, HPKP 2030ek egokitu nahi du LAGek aurkeztutako ingurune fisikoaren antolamendura, ingurumen-balio handieneko espazioak babesteari dagokionez. "Instalazio berriak ezartzeko irizpideak" dira gai horren isla. Helburua hondakinak kudeatzeko politikak garatzea da, nahikotasun eta hurbiltasunari dagokionez, eta, aldi berean, gune horien babes bermatuko da.

Lurralde-plan partzialak (LPP)

2020an Tolosaldeko LPP onartu ondoren, EAEko 15 area funtzionalek jada onartutako lurralde-plan partzial bat dute. Izan ere, zaharrenetako batzuk (kontuan hartu behar da hasierako onarpenak 2004an egin zirela) berrikuspenarekin hasi dira jada, egungo araudira eta idiosinkrasiara egokitzeko, egin zirenean zeudenen oso desberdinak baitira.

Hondakinei dagokienez, izapidetzean indarrean zeuden hondakin-planekin integratuko direla bermatuz idatzi dira LPPak, oro har, bi eratan:

- Birziklatzea eta berrerabiltzea sustatzeko irizpide orokorrak ezarritik, horiek bultzatzeko beharrezko instalazioak bermatzeko premia adieraziz.
- Probintziako hondakinen kudeaketa-planetan identifikatutako hondakinak kudeatzeko instalazioak berariaz bilduz.

Aurrekoa gorabehera, eta lehen esan bezala, hiru lurralde historikoetako hondakin-planak eguneratu egin behar dira, HPKP 2030 honen arabera, Europa mailan ezarritako helburuak lortzea bermatzeko. Ildo horretan ere egokitu beharko dira LPPak, ez nahitaez planak aldatuz, baina bai beren gain hartuz HPKP 2030 garatzeko sustatzen diren lurralde-ekimenak (adibidez, lehendik dauden instalazioak handitzeko aukera, edo beren lurraldean helburuak lortzeko beharrezkoak diren instalazio berriak instalatzea). Ildo horretan, kontuan hartu behar da hondakinak kudeatzeko instalazioek, oro har, udal-eremua gainditzen duten eremu funtzional, probintzia edo erkidego mailako interesa eta ekintza-eremua dutela. Era berean, kontuan hartu behar da HPKP 2030en eta bere garapen-tresnen erantzukizuna dela autosufizientziaren, hurbiltasunaren eta unibertsaltasunaren printzipioei jarraitzea.

Azkenik, adierazi behar da HPKP 2030en "Instalazio berriak ezartzeko irizpideak" izenekoetan, ezarpen horretarako egokiak ez diren zona edo kanpoan utzitako zona gisa sartzen direla LPPek Babes Bereziko gisa sailkatutako eremuak, beren interes natural handian oinarrituta. Horrela bermatzen da HPKP 2030 garatzean ez zaiela eragingo area funtzionalaren mailan babestutako elementu naturalei.

EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala

Irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoan balio handieneko nekazaritza-lurrak babestea du helburu nagusi. Horretarako,

lurzoru urbanizaezin guztiaren kategorizazio bat ezartzen du, balio handieneko lurzoruak barne hartuta, eta horiexei zuzentzen zaie LPSaren zati lotesleko erabileren erregulazioa. Gainerakoa, udal plangintza garatzeko gomendio gisa ematen da, Nekazaritza nahiz abeltzaintzakoa eta landazabalekoa kategoriako Balio estrategiko handiko (aurrerantzean, BEH) azpikategorian.

Nekazaritza eta Basogintzako LPSk ez du inolako azpiegiturarik sustatzen, eta, beraz, ez du hondakinik sortzen. Nekazaritza-jarduerak sortutako hondakinei dagokienez, LPSak irizpide batzuk ezartzen ditu (araudiaren 14. artikulua), horiek ingurumen-kalterik eragiten ez dutela bermatzeko, nahiz eta, nolanahi ere, gai horiek indarrean dagoen araudi ugariak arautzen dituen, eta LPSaren jarduketa-eremua ez izan.

Nekazaritza eta Basogintzako LPSak ezarritako erabileren erregulazioari dagokionez, HPKP 2030en garapen gisa sor daitezkeen lurralde-eragina duten jarduketei dagokienez:

- Hondakinak tratatzeko plantak ("A motako izaera ez-linealeko zerbitzu-instalazio teknikoak") erabilera onargarriak dira BEH azpikategorian, nekazaritzako sektore-eraginaren ebaluazioa egin ondoren, Guardiako eta Araba Zentraleko Area funtzionaltan izan ezik, horietan erabilera ez dela komeni ikusten baita, baina salbuespen gisa onargarria izango litzateke nekazaritza-arloko organo eskudunak aldeztetik ebaluazioa egin ondoren aldeko txostena egiten badu.
- Hondakin solidoen hondakindegietarako eta zabortegetietarako erabilera ez-desiragarria da BEH azpikategorian, eta salbuespen gisa onargarria izan daiteke nekazaritza arloan eskumena duen organoak aldeko txostena egiten badu, aldeztetik ebaluazioa eginda.

Nekazaritza eta basozaintzako LPSak salbuespen horiek onartzeak ingurumen- eta teknika-arrazoietan du jatorria: LPSak bere gain hartzen du zenbait egoeratan, adibidez, lurzoru eraikigarrien erabilgarritasuna oso txikia den lekuetan, malda handiak daudelako, nekazaritzako lurren okupazioa beharbada ez dela hain zaila izango ingurumen aldetik balio natural handia duten baso-eremuen okupazioaren aldean.

Ondorioz, eta hondakinak kudeatzeko instalazioei dagokienez, BEH azpikategorian egon litezke, baldin eta nekazaritzaren eragin sektorialaren ebaluazioak haien bateragarritasuna adierazten badu, eta, hala badagokio, balorazio hori nekazaritza gaietan eskumena duen organoak bermatzen badu. Horregatik, HPKP 2030ek ez ditu sartzen egokiak ez diren edo baztertutako eremuen artean ("Instalazio berriak ezartzeko irizpideak") balio estrategiko handiko lurrak, baina saihestu beharreko eremu gisa identifikatzen dira eta eremu horietako ekimenen kasuan nekazaritza-eraginari buruzko ebaluazio espezifikoaren beharra jasotzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala

Kantauriko isurialdeari buruzko LPSa abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bidez onartu zen, eta Isurialde mediterraneoari buruzkoa, berriz, abenduaren 28ko 455/1999 Dekretuaren

bidez. Geroago, azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuaren bidez, LPSan aldaketa behin betiko onartu zen bi alderdi horietarako.

LPSak EAEko ibaien eta erreken ertzak kategorizatzen ditu, hiru aldagairen arabera: ingurumena, hidraulikoa eta hirigintza. Ibai-ibilgu bakoitzari esleitzen zaion zonakatzearen eta/edo zatiketaren arabera, urbanizazioari eta eraikuntzari baldintza eta erregulazio sorta bat aplikatuko zaie, eta horiek errespetatu beharko dituzte HPKP 2030 garatzeko sustatzen diren hondakinak kudeatzeko instalazioak. Era berean, instalazio horiek bermatu beharko dute LPSan eta arroko plan hidrologikoetan jasotzen diren uholdeen kontrako babesari buruzko araudi espezifikoak betetzen dela (aurrerago aztertzen dira).

Gai horiek kontuan hartu beharko dira idazten diren plan eta proiektuetan, eta ez da posible izango HPKP 2030en esparruan LPS honetan ezarritakoa errespetatzeko beharra baino jarraibide zehatzagoak ezartzea, Planak *“Instalazio berriak ezartzeko irizpideak”* atalean jasotzen duen bezala (*“Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-plan sektorialetan eta lurralde-plan partzialetan barne hartutako beste mota bateko irizpideak ere kontuan hartu beharko dira (...)”*).

Ibaien eta erreken LPSari berari dagokionez, ez da inolako instalazio mota sustatzen duen tresna bat, eta, beraz, ez da espero ezarpenak inolako hondakinik sortuko duenik.

Alde horretatik, ez dago bateraezintasunik bi tresnen (HPKP 2030 eta ibaien eta erreken LPSen artean); nolanahi ere, garapen-planei eta -proiektuei dagokie plangintza hidrologikoak ezarritako sektore- eta ingurumen-baldintzak betetzen direla bermatzea.

EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala

Uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bidez onartu zen (urriaren 30eko 231/2012 Dekretuaren bidez aldatua), LPS honen helburu nagusia da hezegune bakoitzerako bere natura-, ekoizpen- eta zientzia- eta kultura-balioak kontserbatzen direla bermatzea, eta hezegune degradatuen natura-ingurunea hobetu, berreskuratu zein birgaitzeko aukera ematea, eta baliabide naturalen balioa handitzea ahalbidetuko duten ekintza-lerroak ezartzea. Horretarako, talde hauetan banatzen ditu EAEko hezeguneak:

- I. taldea, naturagune babestuen barruan edo Urdaibai Biosfera Erreserban dauden hezeguneak, eta haien araubide arautzailea aplikatuko da.
- II. taldea, hirigintzako plangintza bereziak (Txingudi) babestutako hezeguneak edo LPSak xehetasunez antolatutakoak.
- III. taldea, aurreko taldeetan sartu gabeko hezeguneen inbentarioa, antolamendu- eta erregulazio-tresnarik ez dutenak. Horientzat, LPSak hainbat gomendio ezartzen ditu udal plangintzan aintzat hartzeko.

Aipatutakoen II. taldea da LPSaren aplikazio-eremua. Katalogatutako hezeguneetarako ezarritako erabilerak antolatzea eta arautzea nahitaezkoa da hirigintzako plangintzarako, eta LPSaren xedapenak arloko beste plan batzuekin koordinatu behar dira.

HPKP 2030i dagokionez, "Instalazio berriak ezartzeko irizpideen" artean sartzen dira eremu desegoki edo baztertu gisa, Ramsar hezeguneak eta Hezeguneen LPSko II. taldeko hezeguneak. Alde horretatik, HPKP 2030en eta LPSaren xedapenen eta katalogatutako hezeguneen babesaren arteko bateragarritasuna bermatzen da.

Halaber, bermatuko litzateke III. taldean inbentarioan jasotako hezeguneak eta LPSaren aplikazioz udal plangintzak babestutako hezeguneak zainduko direla; izan ere, eremu desegokiak edo baztertuen artean daude *"hirigintza-araudiak babestutako eremuak ere, natura-interes handiaren arabera"*.

Bestalde, hezeguneen LPSari berari dagokionez, ez da inolako instalazio mota sustatzen duen tresna bat, eta, beraz, ezartzeko zain ez dago inolako hondakinik sortuko duenik.

EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala

Martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zen⁵. Itsasertzaren LPSaren helburua Kostaldeei buruzko Legeak definitutako eragin-eremua babestea da: *"Gutxieneko 500 metroko zerrenda, itsasertzaren barruko mugatik abiatuta neurtuta"*. Eremu hori ibai-bazterretan itsasaldien eragina nabaritzen den lekuraino zabalduko da (5 m itsas mailaren gainean, EAEn).

Eragin-eremu horretan, lurraldearen kategorizazioa egiten du LPSak, eta, horretarako, erabileren erregulazioa berariaz identifikatu eta lotzen du "babes berezi zorrotz" eta "babes berezi bateragarria" kategoriei esleitutako eremuetarako, hau da, balio berezi bat edota presio handiagoa jasan behar duten esparruetarako.

HPKP 2030ek LPSko bi kategoriak sartzen ditu egokiak ez diren edo baztertutako eremuen artean, "Instalazio berriak ezartzeko irizpideak" izenekoekin bat etorritik. Horrela, eremu horien babesa bermatzen da, eta, beraz, LPSaren eta HPKP 2030en arteko bateragarritasuna bermatzen da.

Bestalde, Itsasertzaren LPSari berari dagokionez, ez da inolako instalaziorik sustatzen, eta, beraz, ez da haren inplementazioaren zain inolako hondakinik sortuko.

Errepide-planak: EAEko errepideen LPSa, lurralde historikoetako errepide-planak

Dagozkien izapideen une desberdinetan egiten diren planak dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen III. Plan Orokorra, 2017-2028 aldia (63/2020 Dekretua, maiatzaren 19koa).
- Bizkaiko Errepideen LPSa (apirilaren 15eko 8/1999 Foru Araua) eta Bizkaiko Errepideen II. LPSa, gaur egun izapidetzen ari dena.

⁵ LPSak prozesuari hasiera eman dio duela gutxi, hura berrikusteko eta klima-aldaketaren erronkari egokitzeko, baina oraindik ez dira prestatu HPKP 2030ekin lotutako analisia egiteko aukera emango luketen lehen dokumentuak.

- Arabako Errepideen Plan Integrala 2016-2027 aldirako (maiatzaren 19ko 6/2019 Foru Araua).
- Gipuzkoako Errepideen Lurralde Plan Sektoriala (2007-2017), idatzia, baina ez zen onartu.

HPKP 2030etikiko harremana oso estua da, hondakin asko sortzen dituzten planak diren neurrian, batez ere EEHari dagokionez (eta batez ere, lur eta indusketa-arroka aldatuak zein aldatu gabeak); horiek lehentasunezko azpi-zuzentzailea dira, HPKP 2030en barruan).

Lehendik dauden errepideak egokitzeko, bide berriak eraikitze eta abarretarako jarduketa zehatzak proposatu badira ere, obra horiek oso soberakinak izan daitezke (erauzketa handiak, tunelak eta antzekoak egin behar izanez gero) edo defizitarioak ere bai kanpo ekarpen handia eskatzen duten materialetan, baina plan horietako bakar batek ere ez du jasotzen lurren balantzearen inguruko aurreikuspenik, plana abian jartzearen ondorioz.

Horrek esan nahi du HPKP 2030etik ezin dela egin errepide-planen garapenarekin sortuko diren EEHen estimaziorik, 2030erako espero den prognosiaren ikuspegi zehatzagoa emango bailioke horrek, eta aukera emango luke lehendik dauden instalazioak eta hondakin horiek kudeatzeko beharrezkoak diren instalazioak baloratzeko. Balantze horrekin, halaber, hobekuntzak egin litezke plangintzan, eta, horretarako, antzeko uneetan proiektu soberakinak eta defizitarioak programatzen saiatu beharko litzateke, materialak berrerabil daitezen eta isurtzea saihesteko.

Errepide-planetan eta ondorengo proiektuetan sartu beharreko hobekuntza garrantzitsutzat jotzen da, beraz, proposatzen da halako planak -lur-mugimendu handiak eragiten dituztenak- HPKP 2030en lege-garapenen bidez behartuta egotea jarduketa bakoitzeko sortzen/eskatzen den EEH kopuruaren gutxi gorabeherako balantzea lotuta izatera, eta, halaber, EEH horiek izango duten kudeaketaren aurreikuspena izatea eta balantzea zerotik (0) ahalik eta hurbilen izateko neurri espezifikoak ere bai.

EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala

Otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez behin betiko onartua, otsailaren 22ko 34/2005 Dekretuak aldatutakoa (Bilbo Metropolitanoko eta beste udalerri batzuetako trenbide-antolamenduari buruzkoa).

Trenbidearen LPSak, errepide-planek eta beste batzuek bezala, ez du jasotzen hondakinen aurreikuspenik (EEH bereziki), planean proposatutako jarduketak gauzatzetik sor daitezkeenak, hondakinak sortzeko plan handia izan arren. Trenbidearen LPSak horri buruz egiten dituen erreferentziak, 34. artikuluan jasotzen direnak, plan hori garatzeko idazten diren proiektu teknikoetara igortzen dira. Horregatik, HPKP 2030ek ezin ditu datu horiek integratu eta prognosi doituago baterako kontuan hartu.

Bestalde, ikusi da aurretiazko definizioaren eta benetako exekuzioaren artean epe luzea dakarten trenbide-proiektu handiak garatzeari dagokionez -abiadura handiko trena, adibidez

(AHT, ingurumen-inpaktuaren adierazpena 2001ekoa duena, baina oraindik tarteka gauzatzen jarraitzen dena), hainbat arau-eskakizunen ondoriozko aldaketak sortzen ari direla, oro har, segurtasunari dagokionez, eta aldaketa handiak eragin ditzakete hasierako aurreikuspenen aldean. Izan ere, larrialdiko galeria batzuk sartu behar izan dira zenbait trenbide-zatitan, eta zati horiek gehitu egin dira, neurri handi batean, errepide-zatien arabera soberakinak sortzeko.

HPKP 2030ek lehentasunezko azpi-zuzentzaile gisa sartu ditu EEHak, eta, zehazki, lurrak eta arroak, EAEn azken urteotan egiaztatu den mota horretako hondakinen sorrera handian eta horiek kudeatzeko zailtasunetan oinarrituta. Nolanahi ere, egokitze jotzen da -errepide-planetarako aipatu den bezala- HPKP 2030en garapenean idazten diren lege-tresnen bidez, beharrezkoa izatea hondakinak (espezifiko EEH) sortzeko plan handiek, hala nola trenbidearen LPSak, bere edukien artean jasotzea espero den lur-balantzearen gutxi gorabeherako aurreikuspena, proposatutako jarduketa/eragiketa/ekintza-lerro bakoitzarekin, eta balantze hori zero izan dadin laguntzeko neurrien proposamena (0). Horrela jokatu da materialak minimizatzean eta, hurrenez hurren, berrerabiltzean eta birziklatzean, HPKP 2030en helburuei erantzuna emanez, hondakinen kudeaketaren hierarkiaren arabera.

Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Sorkuntza Publikorako Lurralde Plan Sektoriala

Abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zen LPSa izaera estrategikoko eta interes orokorreko jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren sustapen publikoko eragiketetan sektoreko eta hirigintzako esku-hartzeetarako erreferentziako tresna da, eta merkataritza-gune handiak ezartzeko jarraibideak zehazten ditu.

Hala ere, haren analisia merkataritza-gune handien lurralde-antolamenduari buruzko ekainaren 27ko 10/2019 Legearen arabera egin behar da. Lege hori Auzitegi Gorenaren epaiaren ondorioz onetsi zen (2015. urtea), LPSko zehaztapenak baliogabetzen zituzten eta merkataritza-ekipamenduetarako gehieneko azalerari mugak ezartzen baitzizkioten.

LPSa hondakin-kopuru handiko plan bat izanik, gerora sortutako legezko ñabardurek lurralde-eta hiri-garapen iraunkorraren printzipioa betetzen dela bermatzeko proposamenetan eustera behartu dute, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bateginean (urriaren 30eko 7/2015 Errege Dekretuan) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean aurreikusia. Alde horretatik, zeharka mesede egin zaie HPKP 2030en helburuei.

Edonola ere, LPSak ez zuen aurkezten eremu-helburu desberdinak garatzeko beharrezkoak izan litezkeen lur-mugimenduen aurreikuspenik, eta, beraz, HPKP 2030ek ezin ditu datu horiek sartu haien prognosian (prognosia azken urteetako sorrera-estimazioetan oinarritzen da, eta ez indarrean dagoen plangintzan edo martxan dauden edo aurreikusitako proiektuetan jasotako aurreikuspen zehatzetan).

Errepide- eta trenbide-planen kasuan ere aipatu den bezala, oso egokitze jotzen da HPKP 2030en garapenean idazten diren lege-tresnen esparruan ezartzea JLEE eta merkataritza-

ekipamenduetarako lurzorua sortzeko LPSaren moduko planak, hondakin kopuru handiak sor ditzaketenak (eta, zehazki, EEH), beren edukien artean, espero den lur balantzearen gutxi gorabeherako aurreikuspena izango dute, proposatutako jarduketa/eragiketa/ekintza lerro bakoitzarekin, eta balantze hori zero (0) izatea errazteko neurrien proposamena. Horrela jokatu da materialak minimizatzean eta, hurrenez hurren, berrerabiltzean eta birziklatzean, HPKP 2030en helburuei erantzuna emanez, hondakinen kudeaketaren hierarkiaren arabera.

Azken batean, agenteek erantzukizuna partekatzea da kontua, plangintzaren hasierako uneetatik hondakinak sortzeari eta kudeatzeari buruzko gaiak aurreikusten saiatuz.

Plan hidrologikoak

EAEn Kantauri mendebaldeko, Kantauri Ekialdeko eta Ebroko demarkazio hidrografikoak elkartzen dira. Demarkazio horietan indarrean dauden plan hidrologikoak, 2015-2021 zikloari dagozkionak, urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onetsi ziren.

Gaur egun, plangintza hidrologiko hori berrikusten ari da 2021-2027 ziklorako, eta ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiten ari da; ebaluazio hori plan hidrologikoetarako, uholde-arriskuaren kudeaketa-planetarako eta lehorte-planetarako batera lantzen ari da, tresna horiek ahalik eta gehien koordinatzen direla bermatzeko.

HPKP 2030ek eremu desegoki edo baztertu gisa ezartzen ditu (“Instalazio berriak ezartzeko irizpideak”) bai hezegune babestuak, bai Kantauri mendebaldeko, Kantauri Ekialdeko eta Ebroko demarkazio hidrografikoen Plan Hidrologikoetako Eremu Babestuen Erregistroko hiri-hornidurarako ura biltzeko guneak babesteko perimetroetan sartutako eremuak. Halaber, instalazioak kokatzeko “ekidin beharreko eremu” gisa jasotzen dira uholde arriskua duten eremuak, eta adierazten da LPSan eta PPHHetan jasotako distantziak eta araudiak errespetatu behar direla beti eta, nolanahi ere, agintaritzaren hidraulikoaren baimena eskuratu behar dela.

Horren helburua da hondakinak kudeatzeko instalazioen garapena eta EAEko lurraldeko gainazaleko eta lurpeko uren kalitatearen bermea bateragarri egitea.

Plan Hidrologikoen Neurrien Programaren garapen gisa idazten diren proiektuei dagokienez (hornidura-hobekuntzak, hondakin-uren araztegiko egokitzapenak, etab.), nahiz eta, oro har, hondakin-sortzaile handiak ez diren, komeniko litzateke horiek minimizatzeke eta behar bezala kudeatzeko irizpideetara egokitzea, HPKP 2030en garatzen direnetara, hain zuzen. Horretarako, eta bereziki EEHei dagokienez, interesgarria izango litzateke une oro zero balantze bat lortzea lur mugimenduei dagokienez, eta, nolanahi ere, balantze hori proiektuek azaltzea eta justifikatzea, alternatiba orekatuagoak erabiliz.

2.1.3.3. HPKP 2030i aplikatu beharreko beste ingurumen-plangintza bat

Aurreko programazio-aldian, 2015-2020, jarduketak Programatan bildu ziren (Aurreikuspena, Gaikako bilketa eta bereizketa, Berrerabiltzeko, Birziklatzeko eta Balorizatzeko Prestaketa, Ezabatzearen Optimizazioa eta Administrazioaren eta Gobernu Onaren Eredugarritasunaren Optimizazioa). Ikasbideek erakusten dute sailkapen programatiko horrek ez ziola benetako baliagarritasunik ematen Plana garatzeko, eta nahasmen bat ere sor zezakeela, jarduera batzuk Programa batean baino gehiagotan txertatuta gera zitezkeela, helburu estrategiko bati baino gehiagori erantzuten zieten neurrian.

Horregatik, HPKP 2030en planteamenduak sailkapen programatikoa saihesten du eta zeharkako jarduketetan eta hondakinen lehentasunezko korranteetan zentratzen da. Nolanahi ere, espresuki identifikatzen dira Prebentzio-jarduketak, araudi-eskakizunei erantzuteko eta kudeaketa-hierarkia betetzen dela bermatzeko modu gisa, ahalegin gehiena haren lehen mailara bideratuz¹⁷.

2.2.3.1. [FUNTSEZKO JARDUKETAK](#)

10 jarduketa dira, eta horien inplementazioa funtsezkoa da HPKP 2030en emaitzak lortzeko. Planaren emaitzetan dituzten ondorioei dagokienez lehentasun-ordenaren arabera deskribatzen dira labur-labur (HPKP 2030en zirriborroan jarduketa bakoitzaren azalpen-fitxa espezifikoak sartzen dira):

1. funtsezko jarduketa. Inbertsio-plana eta ibilbide-orria, isurketa minimizatzen duten eta zirkulartasuna sustatzen duten lehentasunezko inbertsioak babesteko

Sailaren laguntzen bidez, hondakin industrial ez-arriskutsuen isurketaren % 60 murrizteko beharrezkoak diren 10 inbertsio garrantzitsuenak bultzatzea planteatzen da. Horretarako, lehentasunezko hartuko lirateke enpresentzako ingurumenaren arloko dirulaguntzen urteko Aginduak, eta, aldi berean, aurrera egingo litzateke enpresak lehenesteko eta laguntza horien zuzkidura ekonomikoa handitzeko.

2. funtsezko jarduketa. EAEren isurketa-autosufizientzia bermatzea 2030era arte, isurketa minimizatzearekin eta dauden zabortegeak behar bezala ixtearekin batera

HeAen isurketa-azpiegituren egoeraren analisitik abiatuta (3-4 MM m³ -ko ahalmen-defizita 2030erako), bai eta egindako hondakinen sorreraren eta kudeaketaren prognositik ere,

¹⁷ HPKP 2020en, 3,5 milioi eurotik gorako gastu-aurreikuspena zuenean, bermatu zen baliabide gehienak (% 42 inguru) prebentziora bideratuko zirela. HPKP 2030en gutxienez banaketa bat aurreikusten da ildo horretan, ahalegin gehienak arlo hauetan eginez: prebentzioan eta hondakinak kudeatzeko detektatutako epe labur eta ertaineko arazoak konpontzean.

ezarritako helburuak beteko direla onartuz, isurketa-instalazioak nahikoak izateko beharrezkoak diren jarduketak sustatzea, ingurumen-organoak instalazio horien sarreren eta funtzionamenduaren kontrola bermatuz.

Aukera gisa planteatzen da: ekintzak zabortegi publikoekin (hondar-ahalmena 7,5 MM m³ arte handitzea), hondakin geldoen zabortegiak HeAen zabortegi gisa egokitzea eta eraldatzea sustatzea, zabortegi pribatuen proiektuen zabalkuntza sustatzea, 7,5 MM m³-ko mugara arte, parte-hartze eta kontrol publikoarekin, eta zabortegiak bizitza baliagarriaren amaieran ixtea eta leheneratzea, eta lehendik dauden zabortegiak partzialki ixtea.

3. funtsezko jarduketa. Hondakinen arloko legegintza-garapenak (esparru-legedia, erabilera berriak egokitzeko eta isurketak debekatzeko dekretuak, etab.).

Ezinbestekotzat jotzen da esparru-legeria bat garatzea, hondakinak biltzeko eta kudeatzeko eskumena duten toki-entitateei helburuak onartzeko betebeharra ezartzea barne, eta hondakinen arloan EAEn esparru-neurriak ezartzea, hala nola HHKOren ofizialtasuna organo betearazle eta erabakitzaile gisa, edo gure Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko isurketa- eta errausketa-kanona. Lege-garapen horrek ingurumen-fiskalitateari buruzko neurriak ere susta ditzake, hala nola belaunaldi bidezko ordainketa edo beste batzuk (agregakinen erauzketari buruzko zerga). Horrez gain, berriazko dekretuak garatu behar dira erabilera berriak ireki eta balorizatzeko aukera teknikoak dituzten industria-hondakinen isurketa debekatzeko.

4. funtsezko jarduketa. Hondakinak isurtzeko eta errausteko eta agregakinek erauzteko zergak

Hondakinen kudeaketarako nahitaezko Kanon egokitu bat ezartzea baloratu da, 2015-2020 aldiko emaitzak berrikusi ondoren, funtsezkoa helburu estrategikoak lortzeko eta zabortegira sortutako materialen murrizketari buruzko Europako eskakizunei erantzuna emateko. Horrekin lortu nahi da isurketaren eta birziklatzearen arteko lehia ekonomikoa desorekatzea, birziklatzearen alde eginez.

Horrez gain,

5. funtsezko jarduketa. Administrazioaren baliabideak handitzea, HPKP 2030 hau ezartzeko.

Ezinbestekotzat jo da ikuskapen-mekanismoak indartzea eta ez-betetzeak zehatzeko mekanismoak indartzea, horretara bideratutako baliabideak handituz. Horixe da ingurumen-organoan baliabide gehiago falta direla eta helburuak betetzeko funtsezkoa dela egiaztatu den jardueretako bat. Planteatzen da 8 pertsonarekin indartzea ikuskapenari lotutako langile teknikoak eta 2 abokaturekin zerbitzu juridikoei esleitutako langileak.

Horrez gain, garrantzizkotzat jotzen da profil teknikoko 4 pertsona gehiago izatea Plan honetara bideratutako baliabideetan.

6. funtsezko jarduketa. Konponbide integral publiko-pribatua, agregakinen, lurren eta bigarren mailako beste lehengai batzuen tarteko biltegiatze, egokitzapen eta kalitate-kontrolerako.

Hondakin ez-arriskutsuak isurtzeari dagokionez, irtenbidea eman nahi zaio: (1) azken plangintza-aldian begi-bistakoa izan den biltegiatze-gaitasunik ezari, material horien eskaintza eta eskaria denboran bat ez etortzearekin batera, eta (2) bigarren mailako materialen kalitateari, eskasa izaten baita maiz. Horrela, ekimen publiko-pribatutik bultzatu beharreko soluzio integral horrek zainduko du balorizazio-plantetara eta irteerako bigarren mailako materialetara sartzen diren hondakinak behar bezala gordetzen eta egiaztatzen direla. Kontrol publiko handiagoa ahalbidetuko da, bai eta material horiek merkatuan sartzea erraztuko duen kalitate-hobekuntza ere.

7. funtsezko jarduketa. Hondakin plastikoetarako eta horiek zabortegitik desbideratzeko behin betiko soluzioei laguntzea.

Hainbat iturritatik datozen plastikoen korrontea zabortegira eramaten den nagusietako bat da (350.000 tona urtean), eta arazo handiagoa du helmuga horretan, berotze-ahalmen eta su-karga handia dituelako. Horregatik, beharrezkoa da korronte horretarako zabortegiaz bestelako irteerak bilatzea, EAEn sortutako hondar-plastiko guztiaren azken aprobetxamendua bermatuz, irteera hauen bidez lehentasun-ordenaren arabera: birziklatze mekanikoa plastikoen birziklagailuetan, plastiko berriak fabrikatzeko materialen sintesirako birziklatze kimikoa, energetikoki HEE gisa balorizatzea EAEko plantetan HEE inportatua ordeztuz, eta energia-balorazioa EAEko hiri-hondakinak errausteko plantetan.

Funtsezko jarduera da bermatzea plastiko horien azken irteera balorizazioko enpresa birziklagailuetan eta, bereziki, hondakinak errausteko instalazioetan.

8. funtsezko jarduketa. Lehentasunezko hondakinetatik datozen bigarren mailako materialen erosketa publikoa eta berdea sustatzea.

Eusko Jaurlaritza prestatzen ari den Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa berria funtsezko tresna izango da euskal administrazioek eta enpresek EAEko lehentasunezko hondakinetatik eratorritako bigarren mailako material gehienak sustatzeko. Honako jarduketa-lerro hauei emango zaie lehentasuna: bigarren mailako materialekin (bereziki agregakinekin) fabrikatutako CE marka duten materialen edo produktuen eskaintza eta eskaera sustatzea, eta EAEko biohondakinen gaikako bilketatik datorren konpostaren eskaintza eta eskaera sustatzea, etiketa ekologiko europarra duen konposta, hain zuzen.

9. funtsezko jarduketa. Hondakinak prebenitzeko eta bilgarrien kalitate handiko berrerabiltzea eta birziklatzea sustatzeko jarduerak, SDDR sistemak analizatzea eta zabaltzea barne, hala badagokio

Gaur egungo egoeraren eta zuzentarauen helburuen arteko aldea dela-eta, bai bilgarri arinak birziklatzeari dagokionez, bai edarien plastikozko botilak gaika biltzeari dagokionez,

bai bigarren mailako PET eskuragarritasunagatik, bilgarri arinak biltzeko alternatibak aztertu behar dira (eta zabaldu), birziklatzeko SDDR, adibidez.

Horrez gain, prebentziorako eta ingurumen-aztarna murrizteko dagoen potentzialaren arabera, proposatzen da kontsumitzailearen mailako beirazko bilgarriak berrerabiltzeko SDDR bat ebaluatzea (eta, hala badagokio, zabaltzea) eta HORECA mailan lehendik dagoen beirazko botilak berrerabiltzeko SDDR indartzea.

Halaber, tamaina handikoak, ehunkiak eta TEEHak berrerabiltzeko konpontzeari edota prestatzeari begira beste era bateko prebentzio-jarduerak sustatuko dira.

10. funtsezko jarduketa. Herritarren esku dagoen **desamiantatze-plana (egituretako zuntz-zementuaren bilketa eta kudeaketa)**, foru-aldundiekin eta Osalanekin lankidetzan.

Bi bilketa kanpaina egitea proposatzen da, baina alde zureko azterketa bat egingo da lurralde historiko bakoitzean estrategia egokiena diseinatzeko.

2.2.3.2. HONDAKINEN LEHENTASUNEZKO KORRONTEEN GAINEKO JARDUKETAK

Hauek dira EAEko hondakinen lehentasunezko korronteak:

- Urteroko sorrera 100.000 tona ingurukoa edo altuagoa dutenak; hondakin horien kudeaketa nagusiki ezabaketa da, hau da, korrontearen % 50 baino gehiago zabortegira bideratzen ari da, eta/edo
- Europako zuzentarauen ondorioz lotutako lege-helburuak dituztenak.

Funtsezko jarduketez gain, nagusiki lehentasunezko korronte guztiei eragingo dietenak, garrantzitsua da korronte bakoitzerako zer egin behar den ikustea eta ezarritako helburu espezifikoak betetzea errazten duten tresnen konbinazioa izatea; izan ere, korronte bakoitzak espezifiktasunak ditu diagnostikoan, problematikan, tratamendu-ahalmen erabilgarrian eta baita bere balio-katean sartuta dauden eragileetan ere. Horregatik, hona hemen lehentasunezko korronte bakoitzean helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren¹⁸ jarduketak edo tresnak.

¹⁸ Aurreko atalean zehaztutako gako-jarduketak sartzen dira, hondakinen zein korronterik dagozkion kontuan hartuta.

2. taula. Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2030en jarduketak, lehentasunezko korrontekin zerikusia dutenak

Lan-ildoak	Lehentasunezko korrontekin lotutako jarduketak	KORRONTE GUZTIAK	Biohondakinak eta elikagaien hondakinak	Itsasontziak	Sortzen ari diren HIIA	Bigarriak, plastikoak eta zabor sakabanatua	Altzairutegiko zepak	Errausketa-zepak	Ferrosita	Burdin galdaketako	Ijzketako lohiak	Erabiltzen ez diren	Pasta/Paper-hondakinak	TEEH eta plastiko eratorriak	EEH	Erregogorrak	TMB plast hondakinak eta sailkapen-plantak	Industriako olioak eta	Ehunkiak, tamaina	Lurrak	EGI eta bateria eta plastiko eratorriak
EAEn merkatua sortzea	EAEko lehentasunezko hondakinetatik eratorritako bigarren mailako materialen EKPBa sustatzea EAEko Erosketa eta Kontratazio Berdea 2030 Programa berriaren bidez. (8. FUNTSEZKO EKINTZA) . TGEZn bigarren mailako materialak sartzea.		X			X	X	X		X			X		X	X					
	Bigarren mailako materialen CE marka sustatzea		X				X	X		X			X		X	X					
	“Green Claims” egin nahi dituzten enpresei laguntzea, Basque Ecodesign Hub-en bidez bizi-zikloaren irizpideak aplikatzeko.					X								X							
	Borondatezko akordioak produktu jakin batzuk erosten edo banatzen dituzten enpresekin, bigarren mailako material eta produktuen erosketa sustatzeko (zementuak, retailerrak, eraikuntza-enpresak, portuak...).					X		X							X		X				X
	Kanpoko bigarren mailako hondakinen edo materialen lekualdaketa ukatzea, betiere EAEn , eskaintzarik badago eta Plan honen helburuak betetzeko asmoz.											X		X				X			X

Ikerketa eta proiektu pilotuak	Gaikako bilketa hobetzeko eta birziklatze-tasak handitzeko azterketak.			X	X									X				X		
	Gaikako bilketa eta balorizazioa hobetzen duten tratamendurako teknologia berriak edo erabilera berriak identifikatzeko azterketa eta proiektu pilotuak.			X	X	X	X			X						X	X			X
	Toki-erakundeekin sustatzea, US2030en bidez, konpontzeko eta berrerrabiltzeko mekanismoen sustapena			X	X									X						X
Ikerketa eta proiektu pilotuak	BZAren azterketak eta negozio-eredu berriak ekonomia zirkularreko irizpideetan oinarrituta (Basque HUB)	X																		
	Azterketak erosketan eta kontratazio berdean iraunkortasun-, konpongarritasun-, birziklagarritasun-irizpideak edo enpresentzako eskakizunak sartzeko eta MITERDein lankidetzaren arlo horietan.			X		X								X		X				X
Gobernantza (legedia, arau-garapenak...) (FUNTSEZKO JARDUKETA, BERE OSOTASUNEAN)	Ingurumen Administrazioaren Legeari, EJK erabakitzeko aukera izatea interes komunez azpiegiturak ezartzearen buruz (adibidez, une honetan hondakinen azken kudeaketako zabortegiak edo instalazioak).	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	Hondakinen arloko legegintza-garapenak (esparru-legedia, erabilera berriak gaitzeko eta isurketak debekatzeko dekretuak, etab.) (3. FUNTSEZKO EKINTZA)	X	X		X			X	X	X	X			X	X	X	X	X		X

	Hondakin-plan honetan isurketa-instalazioen baimena mugatzea ez gainditzera 2030ean 7,5MM m ³ -ko edukiera HeAentzat eta 0,6 m ³ -koa HGentzat.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Kontabilitatea	Hondakin agronomikoen inbentarioa egitea (2022).	X																				
	Kontabilitatea hobetzea jatorritik : bilketak digitalizatuz kontabilitatea hobetzeko, kudeatzaileen berri emateko betebeharra ezarriz hondakinen azken eragiketa arte (2021), eta hondakinen kodeketa hobetuz gida baten eta eskakizun espezifiko bidez	X																				
	Hondakinen arloko kontabilitatea hobetzea, falta diren korranteak barne (lurrak, littering-a, itsasoko zaborra...), inbentarioak argitaratzea arinduz ekitaldia ixten denetik urtebetera beranduenez, EAEko hondakin-mugimendu guztien trazabilitate digitalizatuko tresna batetik abiatuta.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Komunikazioa, sentsibilizazioa, informazioa eta gardentasuna	US2030arekin eta HHKOarekin koordinatzea, hiri-hondakinen arloko ezagutza zabaltzeko eta toki-erakundeetan helburuak betetzea sustatzeko.		X				X															
	Informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina koordinatuak, foru-aldundiekin, SCRAPekin eta hondakinen kudeaketan parte hartzen duten beste agente batzuekin lankidetzan, prebentzioari garrantzia emanez. (jardunaldiak, liburuxkak, argitalpenak, iragarkiak mass-medietan...)	X	X				X															

	Bi urtean behin argitaratzea Planaren eta Ekobarometro sozialaren eta industrialaren jarraipenaren emaitzak	X																				
	Gida teknikoak, liburuxkak, jardunbide egokiak.	X																				
	Dibulgazio-plataforma, datu-basea eta bigarren mailako materialen produktuen bilatzailea	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Agentek erantzukizuna partekatzea	Banaketa-sektorearekin eta zenbait klusterekin borondatezko akordioak, solteko gaiak sustatzeko, bilgarriak murrizteko eta konpongarritasunaren eta birziklagarritasunaren gutxieneko irizpideak betetzen ez dituzten produktuak merkaturatzea saihesteko					X								X								
	Herritarren esku dagoen desamiantatze-plana (egituretako zuntz-zementuaren bilketa eta kudeaketa), foru-aldundiekin eta Osalanekin lankidetzan (10. FUNTSEZKO EKINTZA).																		X			
	Beste eragile batzuekin koordinatuta biltze-jarduerak ezartzea (itsasoko zaborrena, zabor sakabanatuarena, etab.).					X																
	SCRAPEkin hitzarmenak kudeatzea legezko helburuak gardentasun handiagoz betetzea lortzeko eta EAEko merkatuan jarritako produktuen helmugen berri emateko, ekomodularitate-eta ekodiseinu-irizpideak barne hartuta.					X																

Azpiegiturak, gaitasun teknikoaren nahikotasuna eta kalitate handiko prebentzio- eta kudeaketa- prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoaren isurketa-autosufizientzia bermatzea 2030era arte, isurketa minimizatzearekin eta dauden zaborteak behar bezala ixtearekin batera (2. FUNTSEZKO EKINTZA).	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	Konponbide integral publiko-pribatua, agregakinen, lurren eta bigarren mailako beste lehengai batzuen tarteko biltegiak, egokitzapen eta kalitate-kontrolerako. (6. FUNTSEZKO EKINTZA).							X								X	X				X	
	Hondakin-izaeraren amaiera-baldintzen irizpide teknikoak ezartzea azpiegiturari baimenak emateko edo ukatzeko.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	Kudeatzaileei kaudimen teknika eskatzea hobetzea	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	Hondakin plastikoetarako eta horiek zaborteak desbideratzeko behin betiko soluzioei laguntzea (7. FUNTSEZKO EKINTZA).																					
Azpiegiturak, gaitasun teknikoaren nahikotasuna eta kalitate handiko prebentzio- eta kudeaketa- prozesuak	Hondakinak prebenitzeko eta bilgarrien kalitate handiko berrerrabiltzea eta birziklatzea sustatzeko jarduerak, SDDR sistemak analizatzea eta zabaltzea barne, hala badagokio (9. FUNTSEZKO EKINTZA).						X								X							
	Hondakinen kudeaketaren arloko azpiegituren LPS bat garatzea, LAGen arabera.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Kontrola eta fiskalizazioa indartzea	Administrazioaren baliabideak handitzea, HPKP 2030 hau ezartzeko (5 FUNTSEZKO EKINTZA).	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	Lehenestea kudeatzaileetara iristen diren hondakinen helmugen ikuskapena eta ezaugarritzea (jatorrian egoki bereiztea) eta hondakin-izaeraren amaiera-baldintzak eta kudeatzailea baimentzeko zehaztapenak betetzea (bigarren mailako materialen eta produktuen zehaztapenak kudeatzailetik irtetea).	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Finantzaketa, dirulaguntza, zerga-sistema berdea	Inbertsio-plana eta ibilbide-orria, isurketa minimizatzen duten eta zirkulartasuna sustatzen duten lehentasunezko inbertsioak babesteko (1 . FUNTSEZKO EKINTZA)						X			X			X	X		X	X					X
	Hondakinak isurtzeko eta errausteko eta agregakinak erauzteko zergak (4. FUNTSEZKO EKINTZA).	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	Sortzeagatik ordain dadila sustatzea (esparru-legeria)		X				X															
Administrazioa sinplifikatzea eta arintzea	Tramitazio telematikoko tresnak ezartzea eta sinplifikatzea (Ingurunet, Tramitagune, etab.).	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	Ekoizle txikiak edo app-ak lekualdatzeko sistemak pilotatzea eta baliozkotzea, Ingurunet-era eta hondakinak kudeatzeko plataforma publikoetara konektatzea errazteko.		X				X															
	Hondakinak lekualdatzeko baimena arautzea, Planaren printzipioei jarraituz.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

	Konponketa-erakundeen erregistro bat ezartzea, datuen berri emateko betebeharrarekin.													X							X				
--	---	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	---	--	--	--	--	--	--	---	--	--	--	--

2.2.3.3. PREBENTZIO-JARDUKETAK

Adierazi den bezala, Prebentzioko jarduerak berariaz adierazten dira, araudia betetzeko eta hondakinen kudeaketaren hierarkia bermatzeko. 2030eko HPKPn planteatutako jarduketetatik, hauek dira prebentzioari buruzkoak:

- Tasen ekomodularitateari buruzko azterketak egitea EEZ duten hondakin-kategoria guztietarako, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka demografikorako Ministerioari errazteko dagokion sektoreko araudian sartzea.
- BZA bultzatzea ekodiseinu-tresna gisa, enpresetara iristeko moduko tresnen bidez, Basque Circular Hub-en bidez.
- Hondakinen prebentzioari, konpongarritasunari eta abarri buruzko betebeharra toki-erakundeetara hedatzea (Hondakinei buruzko Legea).
- Lagundutako autokonponketa-zentroak nahitaezkoak izatea udalerrietan (>50.000 bizt.).
- Konponketa-erakundeen erregistro bat ezartzea, datuen berri emateko betebeharrarekin.
- Iraunkortasunaren kontzeptua erosketa publikoaren parametro gisa txertatzea.
- Toki-erakundeetan Berringurumena berrikuntza-proiektuak, lehentasunezkoak konpontzeko, berrerabiltzeko eta prebenitzeko gaitan, oro har.
- Ekonomia zirkularrari eta negozio-eredu berriei buruzko azterketak Basque Zirkular HUBaren bidez: serbituzazioa, konpongarritasuna, berrerabilgarritasuna, birziklagarritasuna, material birziklatuko edukia, birmanufaktura, iraunkortasuna, BZA eta ingurumen-aztarna. Batez ere bilgarriak, ibilgailuak, TEE, eraikinak.
- Euskal industria-ehunean 543. aginduan jasotako arauen erabilera zabaltzea, konpongarritasuna, iraunkortasuna, atzeragarritasuna eta abar kalkulatzeko.
- Toki-erakundeei Ekonomia zirkularraren arloan laguntza ematera bideratutako aurrekontu-partidak handitzea: toki-erakundeei lehentasunezko dirulaguntzak ematea konponketetarako, berrerabiltzeko eta, oro har, prebenitzeko.
- Udalerriek lagundutako autokonponketa-zentroak sustatzea Berringurumena bezalako tresnen bidez.
- Ekodiseinurako laguntza-programa espezifiko bat sartzea (HUBetik laguntzea / EZko laguntza ekonomikoak) hondakinen gako-korronteentzat, hala nola bilgarriak, TEE, erabiltzen ez diren pneumatikoak, tasen ekomodulazio posiblearen aurrean egokitzea.
- Ekodiseinuako eta ekonomia zirkularreko ezagutza zabaltzeko eta partekatzeko plataforma bat sortzea.
- IFIXIT gisako plataformaren batekin hitzarmena eta EAEko enpresekin borondatezko akordioa, IFIXITen EAEn ekoiztutako produktuak konpontzeko eskuliburuak txertatu ahal izateko.
- Administrazioetik SCRAPei laguntzeko programa, prebentzio kolektiboko planak diseinatzeko.

- Eusko Jaurlaritzaren eta SCRAPen arteko hitzarmena gako-agenteeekin kontrastatzea sinatu aurretik, egon daitezkeen hobekuntzak identifikatzeko. Eusko Jaurlaritzarekin itundutako SCRAPetan ekomodularitate aurreratuko irizpideak sartzeko betebeharra.
- Herritarrentzako informazio-kanpainak garatzea, kontsumo iraunkorreko ohiturak sustatzeko.
- Banakako erosketan iraunkortasun- zein birziklagarritasun-irizpideak eta abar sartzeko gida.
- Lehen sektoreko elikagai-hondakinen aprobetxamendua ekonomia zirkularreko laguntzetan lehentasunezko gai gisa sartzea.
- Lankidetzak-akordio egonkorak ezartzen laguntzea, kontsumitzaileak elikadura-soberakinak aprobetxatzeko eta/edo sortzaile handiei dohaintza egiteko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagaien Hondakinen Plataforman parte hartzea.
- Herritarrek elikadura-kontsumo arduratsugoko eredu batean kontzientziazatzea, elikagaiak alferrik galtzearen arazoak azpimarratuz.
- Beira eta bestelako bilgarri berrerabilgarriak berrerabiltzeko SDDR sistema, HORECA sistemaren bidez (garagardo-upelak, PET upelak...), bai eta azken kontsumitzailearen bidez ere.
- Botilak garbitzeko planta publikoaren interesa eta bideragarritasuna aztertzea.
- Solteko produktuak saltzen dituzten establezimenduak behartzea kontsumitzaileak bilgarri propioa eramateko aukera ematera (eta publizitatea egitera).
- HoReCa lokal publikoetan (beste aukerarik ez dagoenean izan ezik) edari-bilgarri itzulgarriak erabil daitezela eskatzea // Bilgarri berrerabilgarrien erabilera ingurumen-baldintza berezi gisa sartzea jabetza publikoko ostalaritza-lekuak ustiatzeko baldintza-agirietan.
- Berrerabiltzeko SDDRan bilgarritzaileek izan dezaketen interes posiblea aztertzea.
- Ingurumen, ekonomia eta gizarte BZA, berrerabiltzeko SDDRari buruz.
- Bilgarritzaileekin beirazko botila berrerabilgarrien modeloak adostea, botilen poola estandarizatzeko.
- Enpresentzako Dirulaguntzen Aginduan sartzeko bilgarriak (edariak eta edariak ez direnak) berrerabiltzeko azterlanetarako dirulaguntzak, bai eta bilgarriak garbitzeko plantentzat ere.
- Enpresentzako Dirulaguntzen Aginduan sartzeko ekipamenduentzako dirulaguntzak, grantza galtzea saihesteko.
- Makroplastikoen / mikroplastikoen bidezko itsas kutsadura monitorizatzeko sistema bat ezartzea.
- Ihoberen tresna, enpresek bilgarriak berrerabiltzeko sistema baten bideragarritasun tekniko eta ekonomikoari buruzko autodiagnostiko bizkor bat egin dezaten.
- Berrerabiltzearen aldeko borondatezko akordioa EJren, edari-bilgarritzaileen, HoReCaren eta udalen artean, alderdi bakoitzaren konpromisoarekin, eta EJren laguntzekin.
- HoReCan berrerabilgarrien erabilera sustatzeko komunikazio-kanpaina.

- TIBek osagai berrerabilgarriak eraistea sustatzea dirulaguntzen bitartez.
- Bi urtean behin berrikustea minimizazio-planak, feedback-a enpresetara bidaltzea eta emaitza eta jardunbide egokiak argitaratzea.
- Hondakinen arriskugarritasuna minimizatzea eta EAetik kanpo tratatzera bidalitako hondakinen kopurua murriztea.

2.2.4. Planen eta proiektuen aurreikuspena: azpiegiturak instalatzeko leku desegokiak edo baztertuak, eta sustatu beharreko espazio degradatuak

2.2.4.1. PLANEN ETA PROIEKTUEN TIPOLOGIA

HPKP 2030en garapen gisa sortuko diren planen eta proiektuen tipologia oso aldakorra da, oro har:

- "Planei" dagokienez, hauek dira funtsean:
 - Hirigintza-plangintzaren aldaketak (HAPO edo Arau Subsidiarioak, kasu batzuetan Bateragarri egiteko planak) aurreikusitako lurzoruen erabilera berriei lekua emateko beharrezkoak direnak, bai lehendik dauden instalazioak handitzeko, bai ekimen berriak gaitzeko.
 - Plan partzialak edo plan bereziak, kudeaketa-instalazio ezberdinak garatzeko aurreikusitako eremuak antolatuko dituztenak .

Plan horietako gehienak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende daude, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin eta planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren (IEE) prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuarekin bat. Prozedura horietan, egiaztatu ahal izango da eremu bakoitza egokia ote den proposatutako instalazioetarako, eta horrek ez du kentzen ondorengo proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko beharra, baldin eta ebaluazio horren mende badaude.

- "Proiektuei" dagokienez, oso izaera desberdinekoak dira kudeatzeko aurreikusten diren hondakin-frakzioen eta horretarako metodologiaren arabera. HPKP 2030ek berak dauden azpiegituren nahikotasunaren analisia egiten du hondakin-korronteen arabera, programazio-aldiari begira premiak identifikatuz. Arazo hori ebatzi ahal izango da lehendik dauden instalazioak moldatuz edo zabalduz edo instalazio berriak sustatuz.

Instalazio berrien adibide gisa, aipa daitezke 6. funtsezko jarduketa abian jartzeak ekar ditzakeenak, hau da, agregakinen, lurren eta bigarren mailako lehengaien tarteko biltegiratzerako eta kalitatearen kontrolerako instalazioak, Garbiguneak bezalako beste batzuk, etab. Hobekuntzei dagokienez, azpimarra daitezke zenbait instalaziotan probintziako plangintzak aurreikusitakoak, hala nola:

- Bilgarriak bereizteko plantak
- Konpostatzeko eta/edo biometanizatzeko plantak
- Berrerabiltzerako prestatze-zentroak
- Transferentziaguneak
- Gaika hiri-hondakinetatik jasotako biohondakina tratatzeko azpiegitura
- Tamaina handiko hondakinak berrerabiltzeko prestatze-azpiegitura.
- Bilgarri arinak tratatzeko azpiegiturak (gaitasunak handitzea)
- Etxeko hondakin arriskutsuak eta ehunkiak gaika biltzeko azpiegiturak
- Etab.

Proiektu horietako asko hiriguneetan garatuko dira (kasu askotan, industrialdeetan), garraio-lotura onak dituzten kokalekuak erabili behar direlako edo aurretiko instalazioak daudelako. Hala ere, horietako zenbaitentzat, lurzoru ez-urbanizagarrian kokatzea planteatu beharko da, eta horrek, zenbait kasutan, hirigintza-plangintza egokitzea eskatuko du (IEEren mendekoak, lehen esan dugun bezala).

Bestalde, proiektu horien zati handi bat, eta bereziki tamaina handienekoak, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren mende daude (IIE), Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea eta Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra aplikatuz. Gai horren azterketa osatuagoa egiten da [6.1. atalean, IAE honen instalazio berriak ezartzeko irizpideak](#) atalean.

2.2.4.2. INDUSTRIA-EREMUETATIK KANPO HONDAKINAK KUDEATZEKO AZPIEGITURAK INSTALATZEKO LEKU DESEGOKIAK EDO BAZTERTUAK DEFINITZEA

Nahiz eta PPGR 2030 garatzeko ekimen gehienak, eta bereziki garrantzi edo tamaina handienekoak (inpaktu-potentzial handienekoak), ingurumen-ebaluaziorako prozedura baten xede izango diren, eta zenbait kasutan, baita bi prozeduraren xede ere –IEE eta IIE–, aurreko Hondakinen Planetik (2020rako programazioa), instalazio berriak garatzeko irizpide batzuk ezartzeko beharra ikusi zen, lehendik dauden instalazioak handitzean ere aplikatzekoak direnak eta diseinu- zein kokapen-gaiak barnean hartzen dituztenak. Irizpide horiek, 2030eko HPKPa betetzen ari den IEEren prozesuaren ondorioz, berrikusi egin dira, gaur egun indarrean dagoen araudira eta plangintzara egokitzeko.

Horrez gain, programazio-aldi honetan berrikuntza gisa, irizpide horien arabera [zona desegokiak edo baztertuak](#) ezartzea proposatzen da, hondakinak kudeatzeko azpiegiturak industrialdeetatik kanpo instalatzeko. Hauek dira zona horiek:

- Parke naturalak.
- Biotopo babestuak.
- Zuhaitz apartekoak.

- Natura 2000 Europako Sarean sartutako gunek: Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE).
- Izapidetzen ari diren naturagune babestuen (onartutako NBAParen hasiera-aginduekin).
- Ramsar hezeguneak, EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialaren II. Multzoon sartutako hezeguneak eta plan hidrologikoek babestutako eremuetako beste hezegune batzuk.
- Urdaibai Biosfera Erreserba, EKZPn definitutako hirigintza-plangintzan ordenatzeko zonak izan ezik (HPO).
- Txingudiko Plan Bereziak antolatutako eremua.
- EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren babes berezi zorrotzaren eta babes bereziaren bateragarria kategoriak.
- Lurralde-plan partzialek (LPP) eta udal plangintzak, beren interes natural handian oinarrituta, Babes Bereziko Eremu gisa kategorizatutako eremuak.
- Kudeaketa-planak onartuta dituzten flora- edo fauna-espezieak banatzeko interes bereziko eremuak¹⁹.
- Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartutako espezieen flora berreskuratzeko planen eraginpeko zonak.
- Kantauri Mendebaldeko, Kantauri Ekialdeko eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoetako Plan Hidrologikoetako Eremu Babestuen Erregistroko hiri-hornidurarako ura biltzeko gunek babesteko perimetroan sartutako eremuak.
- Babes bereziko eta ertaineko kultura-ondasunak (6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena).
- LAGetan definitzen diren funtzio anitzeko interes naturaleko eremuak.

Ondoko gogoetak oso garrantzitsuak dira desegokiak diren edo baztertuak dauden zona hauek interpretatzeko:

- 1) Haren mugaketa IAE honen I. ERANSKINEAN dago jasota, eta 2030eko HPKPari erantsi zaizkio. Dena den, erakunde eskudunek babestutako eremuei buruzko eguneratze berriak egin ditzakete²⁰, eta horiek Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituran (www.geo.euskadi.eus) eta/edo foru-aldundien web-orrietan kontsultatu ahal izango dira.
- 2) Esparru horietatik kanpo proiektuak sustatzeak ez du saihesten IEE/IIERI men egitea, aplikatu beharreko araudiak hala ezartzen badu, eta ez du baztertzen ingurumen-ebaluazio horrek emaitza txarrak ematea, espero diren ingurumen-inpaktuen garrantziaren arabera.

¹⁹Bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) kasu zehatzean, Bizkaian, "Interes bereziko eremuak" kategoria hartu da Kudeaketa Planak Bizkaiko ibai-sare osoa banatzen dituen 3 kategorien artean (beste biak "zabaltze-eremu potentzialak" eta "hobekuntza-tarteak" izango lirateke).

²⁰ Adibidez, espezie mehatxatuak kudeatzeko planak onartzea, eremu berriak eta antzeko gaiak babesteko.

- 3) Interes natural handia izateagatik LPpek eta udal-plangintzak Babes Bereziko gisa kategorizatutako eremuei dagokienez, ez dago informazio kartografiko eguneraturik eta shp. edo dwg. formatuan kasu guztietarako. Gainera, kontuan hartu behar da plangintza biziak direla, askotan berrikusten ari direla (Bilbo Metropolitanoko Lurralde Plan Partziala edo Araba Zentraleko Lurralde Plan Partziala, adibidez), eta, beraz, ez zaio egoki iritzi haien mugaketa adierazteari.

Planak edo proiektuak onartzeko eta/edo horien ingurumen-ebaluazioa egiteko prozeduretan egiaztatu ahal izango da, kasuz kasu, eremu horien gaineko eragina.

- 4) Ez dago babes bereziko eta ertaineko kultura-ondasunei buruzko informazio kartografikorik. Planak edo proiektuak onartzeko eta/edo horien ingurumen-ebaluazioa egiteko prozeduretan egiaztatu ahal izango da elementu horien gaineko eragina.

Horrez gain, industria-eremuetatik kanpo **instalazioak kokatzeko saihestu beharreko beste esparru batzuk** proposatu dira; ez da egokitzat jo intereseko elementu horiek berariaz "baztertutako" edo "desegoki" gisa aipatzea, beren izaera, hedadura eta/edo aplikatzekoa den araudia dela-eta. Oro har, natura-balio bikainengatik, balio kulturalengatik edo giza osasunerako eta ingurumenerako arriskuak direla-eta, gomendagarria da eremu horietatik kanpo kokatzeko aukerak planteatzea (ingurune geografiko zabalak hartzen dituzten eremuak izan ezik).

Eremu horietan HPKP 2030 garatzeko planen eta/edo proiektuen balizko sustapenari dagozkion eraginen azterlan eta analisiak egin beharko dira.

Hauek dira funtsean:

- Interes geologikoko eta geoparkeko lekuak: ikuspegi geologikotik EAEko balio handieneko elementuak dira. Hala ere, eremu zabalak direnez (bereziki Geoparkearen kasuan, Deba, Zumaia eta Mutrikuko udal-mugarteak osorik hartzen dituenak) eta babes-araubide espezifikorik ez dagoenez²¹, eremu horiek ez dira baztertutzat hartu, baina afekzioen analisi espezifikoko bat egin beharko da.
- Nekazaritza eta Basozaintzako LPsko balio estrategiko handiko lurrak: hondakinak kudeatzeko jarduerak onargarriak izan daitezke egoera jakin batzuetan, nekazaritzaren eragin sektoriala ebaluatu ondoren eta, hala badagokio, Nekazaritza Administrazioak aldeko txostena egin ondoren.
- Urpean gera daitezkeen eremuak, Ibaiak eta Errekak Antolatzeako LPseko kartografiaren eta arroko plan hidrologikoen arabera. Tresna horietan jasotako distantziak eta erregulazioak errespetatu beharko dira, eta, nolanahi ere, agintaritza hidraulikoaren baimena eskuratu beharko da.

²¹ Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarearen Legea izapidetzean baliteke babes-araubide hori onartzea, eta hori berrikusi egin beharko da.

- Hainbat zerrendatan jasotako kultura-ondarearen elementuak, baina 6/2019 Legearen arabera babes-neurri espezifikorik jaso ez dutenak: baimen-prozeduretan eta/edo inpaktu-prozeduretan elementu horien balizko afekzioa egiaztatuko da.
- Arrisku geotekniko eta/edo sute-arrisku handiko eremuak, Babes Zibileko mapekin bat: lurraldeko eremu zabalak hartzen dituzte, eta, beraz, esparru-helburu gisa kanpo ez uztea erabaki da. Hala ere, zona horretan planak eta proiektuak garatzeko, arriskuei buruzko azterketa espezifikoak egin beharko dira.
- Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak dituzten eremuak (92/43/EE Zuzentarauaren I. eranskina).

2.2.4.3. INDARTU BEHARREKO ESPAZIO DEGRADATUAK

Zona desegokiez edo baztertuez gain, ingurumen-organoak igorritako irismen-dokumentuak hau adierazten du:

"(...), naturaren, kulturaren edo ingurumen-arriskuaren ikuspegitik garrantzi txikiko esparru posibleak identifikatuko dira, hondakinak kudeatzeko azpiegitura jakin batzuk jasotzeko susta daitezkeenak, baita lur eta arroka naturalen bolumen esanguratsua har dezaketen espazio degradatuak ere, espazio horiek ingurumenaren ikuspegitik leheneratzeko".

Lehendik degradatutako eremuei dagokienez, zaila da HPKP 2030en mailan eguneratutako hurbilketa bat egitea, etorkizuneko instalazioen kokapena orientatzeko datu garrantzitsuak eta baliagarriak emateko. Hainbat faktorek eragin dute hori, besteak beste, erabileraz kanpoko espazio degradatuei buruzko datu bateraturik ez egoteak, zona bakoitzerako hirigintza-aurreikuspenek edo hirigintza mailan gertatzen diren erabilera-aldaketa azkarrek. Oro har, aurreratu daiteke honako hauek lehenetsi beharko liratekeela:

- Erabileraz kanpoko esparru industrialak, baldin eta ingurumen aldetik sentikorrak ez diren eremuetan ez badaude (adibidez, ibaiertzean, eremu babestuen barruan edo gertu, etab.).
- Kutsatuak egon daitezkeen eremu gisa inbentarioan jasotako eremuak, betiere ezarri beharreko erabilerak bateragarriak badira, eta garraio mailan eta zerbitzu guztiekin ondo konektatutako eremuak badira. Bereziki, zigilatutako zabortegeiak kokaleku onak dira, esaterako, Garbiguneak/puntu garbiak instalatzeko.

Zehazki **lur eta arroka naturalak har ditzaketen espazio degradatuei** dagokienez, ingurumena leheneratzeko helburuarekin, HPKP 2030ek aurreikusten du soberakin horiei irteera ematea lehendik dauden harrobietan. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren txostenak bi eremu aipatzen ditu, xede horretarako egokiak direnak:

- Bilboko portua
- Mantulizeko Plan Partzialaren eremua, Derion

Helburu horretarako egokiak izan daitezkeen beste eremu batzuk foru-aldundiek eta udalek identifikatu ahal izango dituzte.

Zona horien benetako erabilerarako, hala ere, berariazko analisiak egin beharko dira. Harrobien kasuan, egiaztatu behar da materialak jasotzeko baldintza egokiak dituztela, izan ere, zenbait kasutan, hegazti-espezie mehatxatuek habia egiten dute bertan, eta, ondorioz, ez da halako esku-hartzerik gomendatzen (ezta "leheneratze"tzat jotakoak ere), edo gerta daiteke harrobiaren naturalizazio-maila, abandonatu ondoren, hain aurreratua izatea ezen materialak hartzeko desegokiak bihurtu diren.

A priori, dagozkion analisisen arabera, EAEn materialak har ditzaketen 63 harrobi identifikatu dira²²:

3. taula. EAEn identifikatutako harrobiak

Izena	L.H.	Udalerria
Aizkoletxea	Gipuzkoa	Elgoibar
Altuna	Bizkaia	Aulesti
Amalia	Bizkaia	Galdames
Turtzioz harrobi zaharra	Bizkaia	Turtzioz
Apario	Bizkaia	Lemoa
Arismendiko harrobia	Bizkaia	Markina-Xemein
Arterrekako harrobia	Gipuzkoa	Altzo
Aspea edo Azkorigana	Araba	Iruña Oka
Atxarte	Bizkaia	Abadiño
Aveleta	Bizkaia	Zornotza
Barrengoerota	Bizkaia	Errigoiti
Bidegane	Bizkaia	Iurreta
Bilbo	Bizkaia	Ortuella
Bolintxu-Artxondoko	Bizkaia	Arrigorriaga
Bordazarko harrobia	Gipuzkoa	Astigarraga, Erreterria
Bulandegi	Gipuzkoa	Aduna
Buruntzako harrobia	Gipuzkoa	Andoain
Rezola Zementuak	Gipuzkoa	Donostia - San Sebastián
Matxitxakoko kuartzitak	Bizkaia	Bermeo
Urkulu Dukesa	Gipuzkoa	Deba
Elejalde Ribacoba	Araba	Artziniega
Erausoko harrobia	Gipuzkoa	Andoain, Urnieta
Ermular	Bizkaia	Bilbo
Extra-Aintza	Gipuzkoa	Errezil
Gomistegi	Gipuzkoa	Oñati
Goriko	Bizkaia	Arrigorriaga
Jaime	Bizkaia	Aulesti
Kanpanzarko harrobia	Bizkaia, Gipuzkoa	Elorrio, Arrasate

²² Zerrenda ez-exhaustiboa da, Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien Zuzendaritzaren datuetan eta EAEko BTA kartografian ("Aire zabaleko ustiapenak") oinarritutakoa, eta, nolanahi ere, ez du esan nahi kokalekuak indusketa-soberakinen biltegirako egokiak direnik. Ez da jaso lurpeko ustiapenik, hala nola Mutiloako Troya meategia.

Kobate	Gipuzkoa	Arrasate
Kontxa	Bizkaia	Abanto-Zierbena, Ortuella
Kontxa 2 / Bodovalleko ebakia	Bizkaia	Abanto-Zierbena
La Primitiva	Bizkaia	Bilbo
Lacilla	Bizkaia	Sopuerta
Larrasko	Bizkaia	Bilbo. Arrigorriaga
Larregi	Gipuzkoa	Antzuola, Urretxu
Lekoitz	Bizkaia	Aulesti
Lersundi	Bizkaia	Iurreta
Markomin Goikoa	Bizkaia	Mañaria
Matilde	Bizkaia	Galdames
Esther meategia	Araba	Arraia-Maeztu
Carmen eta Teresa meategiak (Maeztuko Asfaltoak)	Araba	Arraia-Maeztu
Murgia mendia	Bizkaia	Lemoa
Mutxate	Bizkaia	Mañaria
Nafarrondo	Bizkaia	Orozko
Navarra Pequeña	Araba	Iruña Oka
Osinbeltz	Gipuzkoa	Zestoa
Peña Forua	Bizkaia	Forua
Lemoa haitza	Bizkaia	Lemoa
Luzuero mendia	Bizkaia	Zierbena
San Anton	Gipuzkoa	Albiztur
Sanjosepe	Gipuzkoa	Arrasate
San Roque 2	Bizkaia	Iurreta
Santa Apolonia	Bizkaia	Iurreta
Santa Barbara	Gipuzkoa	Hernani
Santutis	Araba	Urizaharra
Sasiolako harrobia	Gipuzkoa	Deba
Sistiaga	Gipuzkoa	Azpeitia
Ugartetxea	Bizkaia	Markina-Xemein
Urko Alde	Bizkaia	Ermua
Ventalaperra	Bizkaia	Karrantza harana
Arrateko Andre Maria	Gipuzkoa	Beasain
Zalloventa	Bizkaia	Mañaria
Zubiondo	Bizkaia	Ereño

Mapa bat aurkezten da (IAEren I. ERANSKINA, HPKP 2030i erantsita) identifikatutako harrobi horiekin, bai eta Bilboko Portuko eta Mantuliz Plan Partzialeko eremuekin ere.

2.2.5. Ingurumenean eragin dezaketen planaren jarduerak

Lehenik eta behin, garrantzitsua da azpimarratzea HPKP 2030, aurrekoak bezala, **funtsean ingurumen-izaerako plan bat** dela, eta dituen helburuak lortzeko maila autonomikoan eta globalean ingurumen-hobekuntza nabarmena ahalbidetuko duela.

Nolanahi ere, eta helburuetatik harago, jarduketaren mailan hau hartu behar da kontuan:

- HPKP 2030 planak proposatzen dituen jarduera gehienak –zeharkakoak edo funtsezkoak nahiz hondakinen lehentasunezko korronteeekin lotutakoak– ez dute lurralde-eragin zuzenik, kudeaketan aurrerapen nabarmena ahalbidetuko duten hainbat tresna (araudiak, ekonomikoak, administratiboak, ikerketakoak, koordinaziokoak eta lankidetzakoak...) sortzeari eta sustatzeari buruzkoak baitira.

Beraz, jarduera horiek ez dute eragin negatiborik izango ingurumenean, ez baitakarte lurraldean esku hartzerik, eta, nolanahi ere, eragin positiboa izango dute hondakinen kudeaketa hobetzeari egiten dioten ekarpenagatik.

- HPKPtik, hondakinen kudeaketaren arloko helburuei erantzuteko, instalazio berriak edo lehendik daudenetan egiten diren aldaketak sortuko dira, horietako batzuk Planean esplizituki jasota daudenak eta zehatz identifikatu gabeko beste batzuk (HPKP 2030en "Beharrezko azpiegiturak" atalean, zentzu horretan analisi bat egiten da).

Izan ere, HPKPren lehen zirriborroetan sustapen publiko-pribatuko tratamendu-instalazio bat gauzatzea erabaki zen 6. funtsezko jarduketaren esparruan, eta hala adierazi zen, halaber, hasierako dokumentu estrategikoan. Hala ere, esku hartzeko beste aukera batzuk proposatu dira, agregakinen, lurren eta bigarren mailako beste lehengai batzuen kalitatea biltegitartzeko eta kontrolatzeko konponbidea eman lezaketenak; beraz, hasiera batean ezetsi egin da zuzeneko lurralde-efektua zuen HPKP 2030en esku-hartze bakarra.

Hala ere, gaur egungo proposamenarekin, jarduerak ez dira zehazten haiei zuzenean dagokien lurralde-eragina lortzeko behar adina, eta, beraz, ulertzen da plangintzaren maila honetan zeharkako eragina izango dela beti.

IAEren 5 atalean, HPKP 2030eko jardueren ingurumen-inpaktuen balorazioan aurrera egiten da. HPKP 2030en ondorengo faseetan izapidetzen ari den bitartean Planean bertan adierazitako instalazioen bat zehaztuko balitz, inpaktuen balorazioa berrikusiko da hura kontuan hartzeko.

2.2.6. Planarentzat aurreikusitako garapena

HPKP 2030 plana zuzeneko ekintzen bidez hedatuko da (legegintza-proposamenak, etab.), baita hainbat proiekturen bidez ere. Besteak beste, azpiegitura berrien eraikuntzarekin lotutakoak dira garrantzitsuenak. Azpiegitura horiek logistikako eta diseinuko alde zuzeneko azterketak beharko dituzte, eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko zaie, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea eta Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorra aplikatuz.

2.2.7. Garatzeko denbora-aurreikuspena

HPKP 2030 planean aurreikusitako denbora-agertokiak 2020-2030 aldia hartzen du. Indarraldi honetan, tarteko ebaluazio bat egingo da 2025. urtearen amaieran. Ebaluazio horren helburua

izango da aldi horretan finkatutako helburuak betetzen diren ebaluatzea eta planaren bigarren aldirako jarduketa edo neurri zuzentzaile berriak ezartzea (2025-2030).

2025-2030 aldian aurrerapenak 2020-2025 aldian baino handiagoak izango direla pentsatu da. Hipotesi horren oinarria da, Planaren lehenengo zatian, tresna nagusiak diseinatu eta martxan jarri beharko direla, eta, 2025-2030 aldian, berriz, tresna horiek jada ezarrita egongo direla eta helburuak lortzeko motor gisa balioko dutela.

3. PLANGINTZA-ALTERNATIBEN AZTERKETA

Europako araudiak (Hondakinei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren maiatzaren 30eko 2018/851 Zuzentaraua, Hondakinen Esparru Zuzentaraua aldatzen duena) eta Estatuko araudiak (HLKL eta hura aldatzen duen lege-aurreproiektuaren zirriborroa) ezartzen dituzte hondakin-plan autonomikoen idazketa arautu behar duten printzipioak, irizpideak eta gidalerroak, hala nola 2020-2030 aldirako EAerako prestatzen ari dena. Zentzu horretan, esparru-araudian ezarritakoa betetzeko beharrak baldintzatu du alternatibak kontuan hartzea.

Nolanahi ere, badago esku hartzeko nolabaiteko marjina bat, eta, batez ere, autonomia bakoitzean identifikatutako beharretara egokitzeko gaitasuna, aurretiazko plangintza-aldiaren emaitzen ebaluazioaren arabera (kasu honetan, HPKP 2015-2020).

IAE honen oinarri den HPKP 2030 planaren zirriborroa definitzera eraman duen erabaki-prozesuan (dokumentu horiek informazio publikoan jarriko dira eta kontsulten mende egongo dira) ez dago alternatiba hermetikorik, eremu desberdinetan hartutako hainbat erabaki baizik, betiere araudiak baimentzen dituen marjina estuen barruan. Ondoren, nagusiak deskribatuko dira, erabaki eremuaren arabera:

3.1. 0 (zero) ALTERNATIBA EDO ESKU-HARTZERIK EZA

Ingurumen-ebaluazioaren araudiak behartzen du alternatiba hau beti kontuan hartzera, eta, kasu honetan, EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020-2030 ez idaztea ekarriko luke berekin. Beraz, luzatutako plangintza bat izango genuke, 2015-2020 aldikoa, eta horrek zera esan nahiko luke:

- 2030erako helbururik eta ekintza-ildorik ez izatea, helburuak 2020rako ezarrita zeudelako. 2015-2020 aldian lortu ez diren helburuetarako ere, 2020-2030 aldia amaitu baino lehen plangintza agortzeko arriskua dago (helburuak eta jarduketa-ildoak betetzea), helburu eta ekintza berriak ezartzeko esparru egokia ez izatearen ondorioz.
- Hondakinen arloan Europa mailan ezarritako helburuekin ez lerrokatzea, hartutako konpromisoak betetzeko behar diren ahalegin guztiak egin gabe. Horrek konpromiso horiek ez betetzea ekarriko luke, eta ondorioak izan litzake horrek lege-mailan.
- Aurreko paragrafoan adierazitako modu berean, Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategiaren ekintza-ildoekin eta helburuekin ez lerrokatzea; horrek domino eragina izango luke garapen jasangarria bermatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoaren ekintza-estrategian.

Bestalde, kontuan hartu behar da ingurumen-organoaren trakzio-ekintzari lotutako onura, aurreko hondakin-planetan kontrastatua, zeinekin frogatu baita EAEko ingurumen-organoak sensibilizazio-, prestakuntza-, koordinazio-, kontrol-tresnak eta abar aplikatzea ezinbestekoa

dela²³ hondakinen kudeaketaren arazoan inplikaturako eragile guztiek aplikatu beharreko lege-eskakizunak betetzeko.

Horregatik guztiagatik, 0 alternatiba edo esku-hartzerik eza baztertu egin zen plangintzaren hasierako uneetan.

3.2. ALTERNATIBAK, PLANAREN IRISMENARI DAGOKIONEZ

HPKP 2030en izan behar zuen irismenaren definizioan, honako aukera hauek aztertu ziren:

- Hondakinen tipologia edo korrante bakoitzeko ikuspegi indibidualizatua berreskuratzea, horietako bakoitzarentzat plan bat eginez, HPKP 2015-2020ra arte egin izan zen bezala. Baztertu egin zen, egungo problematikari aurre egingo zion ikuspegi integrala eragozten baitzuen.
- Dauden hondakin-mota guztiak eta EAEko hiru lurralde historikoak barne hartzen dituen ikuspegi integral bat mantentzea: 2015-2020 HPKP planaren emaitzek argi erakusten zuten ezinbestekoa zela plangintza integrala eta hondakinen arloko politika ezartzea herrialde-estrategia gisa, Europa mailan ezarritako helburuak lortzeko. Gainera, plangintza-aldi berri honetarako, autonomia-erkidegoan aktibatu beharreko lege-mailako xedapenen eta tresna ekonomikoen beharra identifikatu da, eta ezin dira lurralde historikoka garatu.

Horregatik guztiagatik, hondakinen sorkuntza eta kudeaketaren ingurumen arazo bateratuari hurbilketa global batez heltzea erabaki zen, oinarri komunak ezarriz sortzen diren inpaktuei heltzeko eta haiek konpontzeko.

Prebentzio-plan bat eta kudeaketa-plan bat modu independentean planteatzeko moduari dagokionez, estatu mailan planteatuta dagoen moduan, 2015-2020 aldian dokumentu bakar bat egiteko erabilitako metodologiarekin jarraitzea erabaki zen, uste baitzen kudeaketa eta prebentzioa batera hartu behar zirela Europako Zuzentzauekin eta hondakinen kudeaketaren hierarkiarekin lerrokatzeko. Gainera, funtsezko ikuspegia da Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategiaren parametroetara egokitzea.

Hautatutako alternatibatik eratorritako ingurumen-onurak begi-bistakoak direla baloratzen da, aukera ematen baitu arau- eta plangintza-esparruarekin modu bateratuan eta koherentean aurre egiteko EAEko hondakinen kudeaketaren arazoei.

²³ Izan ere, trakzio-ekintza hori indartu egiten da HPKP 2030 planean, legezko xedapenekin eta tresna ekonomiko zehatzekin.

3.3. ALTERNATIBAK HELBURUEN HAUTAKETAN

HPKP 2030 planean finkatutako helburuak Europako Zuzentzuek eta Estatuko legeriak²⁴ ezarritako gutxienekora egokitu behar dira, bai helburu estrategikoei dagokienez bai hondakin-korrante desberdinei buruzko helburu espezifikoiei dagokienez. Alde horretatik, HPKP planak duen ekintza-marjina helburu handizaleagoak ezartzea da, HPKP 2020 planean egin zen bezala.

Nolanahi ere, eta kasu batzuetan Europako eta estatuko igurikimenak gainditzea aurreikusten bada ere, HPKP 2030 planaren helburuak errealistak izan behar dira. Horregatik, horien definizioa oinarritu da aurreko plangintza-aldiaren emaitzetan, egungo egoera ekonomikoan (batez ere COVID-19aren osasun-krisiaren ondoren, eta horrek eragiten dituen eta oraindik erabat haztatuta ez dauden egoera eta aurreikuspen ekonomikoetan egindako aldaketetan) eta hondakinen kudeaketaren zerbitzura dagoen garapen teknologikoan. Helburu errealistak eta eskuragarri dauden baliabideekin koherenteak diren helburuak jartzeko ahalegina egin da, ez-betetzerik eragiten ez duten muga eskuragarriak ezartzen saiatuz. Nolanahi ere, 2025ean aurreikusitako bitarteko ebaluazioari esker, abian jarritako neurrien bilakaera baloratu ahal izango da, eta 2025-2030erako aurreikusitakoak doitu.

3.4. FOKURATZEARI BURUZKO ALTERNATIBAK: PROGRAMAK VS JARDUKETA NAGUSIAK

2020an erabaki zen HPKPa helburu estrategikoei zuzenean lotutako programen arabera egituratzea. Dena den, programazio aldi berri honetan ikusi da egitura hori ez dela erabakigarria izan jarduketak abian jartzeko eta gauzatzeko, eta, berez, interpretazio-zailtasunen bat sortu du, Planaren jarduketaren bat Programa batean baino gehiagotan sar daitekeelako, helburu estrategiko bati baino gehiagori erantzuten baitio. Adibidez, balorizazioa errazten duten jarduketek ezabaketa hobetzen ere laguntzen dute, eta, aldi berean, gaikako bilketaren jarduketek ere hobetzen dute balorazioa; beraz, programa horietako bakoitzaren jarduketa gehienek besteei ere eragiten zieten.

Horregatik, 2020-2030 aldi berrirako ikuspegi enpirikoago eta praktikoago baten beharra planteatu da, ahaleginak funtsezko alderdietan zentratuz –ez bakarrik esparru-araudiarekin eta -plangintzarekin bat, baita HPKP 2020ren emaitzekin ere– helburuen lorpenean arrakasta handiagoa izateko. Horregatik, erabaki zen HPKP 2030 planaren funtsezko motorrak diren "gako-jarduketak" definitzea, haren esparruan garatu beharreko gainerako jarduketen oinarria osatzen dutenak.

Jarduketa horiek plangintzaren lehen aldian abian jartzea aurreikusten da batez ere, 2020-2025ean, eta horrela hurrengo 2025-2030 aldian zuzenean lotutako beste tresna batzuk aktibatzei aukera emango dute (adibidez, hondakinen esparru-arau autonomiko bat

²⁴ Kasu askotan helburu kuantitatiboak ezartzen dituzte (%) eta beste batzuetan kualitatiboak.

onartzean, kudeaketan lege-betekizunak ezarri ahal izango dira –adibidez, zenbait material isurtzeko debekua–, emaitzetan neurri handiagoan aurrera egiteko aukera emango dutenak.

HPKP 2030 planean zegoen Programetan oinarrituta egituratzea baztertu den arren, HLKL (eta izapidetzen ari den lege berria) betetzeko, Prebentzio Programari eutsi zaio, eta modu espezifikoan identifikatu dira prebentzioarekin zuzenean lotutako jarduketak (ikus IAE honen 2.2.3.3 atala).

3.5. ALTERNATIBAK GAKO-JARDUKETEN ETA GAINERAKO JARDUKETEN HAUTAKETAN

Funtsezko jarduketak eta hondakin-korrontearen ondoriozko jarduketak izan behar luketenei buruzko erabakiak hartu dira HPKP 2030 plana idazteko espresuki osatutako Batzorde tekniko batean, eta horretarako oinarritzat hartu dira talde teknikoaren esperientzia hondakinen plangintzaren eta kudeaketaren arloan, HPKP 2015-2020 planaren emaitzak eta bete beharreko lege-esparru berria.

Ikuspegi teknikotik, erabilgarri dagoen finantza-esparruaren barruan HPKP 2030 planaren helburuak lortzeko ondoen erantzun diezaioketen ekintzak identifikatu dira, eta, bereziki, detektatutako arazoei konponbide integralagoa emateko aukera ematen dutenak (prebentzioan aurrera egiteko aukera ematen duen lege-esparrurik ez izatea, bigarren mailako materialak biltegiatzeko irtenbiderik eza, zabortegean plastikoak gordetzearen egungo arazoa...).

Alde horretatik, alternatibak askotarikoak dira, eta printzipioz, lehenetsi dira kontuan hartuz hondakinen kudeaketa hobetzeko, eta, beraz, EAEko ingurumen-hobekuntza global baterantz aurrera egiteko, aukera ematen duten ekintza-ildoak. Nolanahi ere, 2025ean aurreikusitako tarteko bilakaerak ahalbidetuko du jarduketen martxa baloratzea, eta jarduketak berrikustea, aldatzea eta, hala badagokio, 2030erako emaitzak lortzea bermatuko duten jarduketa berriak definitzea.

Alternatiben azterketa eta hautaketa gidatu dituen erabakitze-prozesuan hainbat bideragarritasun-irizpide tekniko erabili dira planaren zirriborroa idazterakoan. Ondoren nabarmentzen dira erabaki garrantzitsuenak gidatu dituzten irizpideak, HPKP 2030 planaren egitura eta edukiak gauzatzera eraman dutenak:

3.5.1. Hierarkiaren printzipioa aintzat hartzea

Jarduketa-eremu askotan aldi berean jardutea aurreikusten bada ere, zeharkako edo funtsezko jarduerak eta hondakin-korronte desberdinei lotutako gainerako jarduerak definitzean, hierarkia-printzipioa hartu da kontuan une oro.

3.5.2. Lehenetasunak erabakitze irizpideak

Ingurumena hobetzeko potentziala duten funtsezko jarduketak lehenetsiko dira:

- Ingurumena hobetzeko potentziala, edo lege-betetzea nabarmenki hobetzeko potentziala, orokorrean edo hainbat gaitan.
- Ingurumena hobetzeko potentziala edo lehentasunezko hondakin zehatzen legezko betetze adierazgarria.

3.5.3. Hondakinak tratatzeko edo kudeatzeko instalazio berriak: diseinurako eta lokalizaziorako irizpideak

HPKP 2030 planak plangintza-esparrua barne hartzen du, zeinetan oinarritutako kudeaketa-azpiegitura berriak sor baititzake probintzia mailan edo baita autonomia-erkidego mailan ere, besteak beste:

- Hondakinak sor ditzaketen instalazio berriak.
- Hondakinak aldi baterako biltegitratzeko zentroak.
- Hondakinak tratatzeko instalazioak.

Eta, zehazki, hurrengo atalean aztertzen den 6. funtsezko jarduketarekin lotutako azpiegitura posibleak.

5. atalean instalazio horiek sor ditzaketen inpaktu nagusiak²⁵ aurreratzen dira, oro har. Horietan oinarrituta, HPKP 2015-2020 planean jada landutako planteamenduari jarraituz, baina aurrerago urrats bat egiten saiatuz, HPKPn bertan txertatzen diren **ingurumen-irizpide** batzuk definitzen dira. Irizpide horiek azpiegitura horien kokapena eta diseinua zehaztuko dituzte, eta, horrela, haien garapenak ahalik eta ingurumen-inpaktu gutxien sortuko dituela bermatzen da. HPKP planaren laburpenean jada aipatu diren irizpide horiek IAE honen 6. atalean ere jasota daude.

3.6. 6. FUNTSEZKO JARDUKETAREKIN LOTUTAKO ALTERNATIBAK

HPKP 2030 planaren lehen zirriborroek, eta zehazki kontsultetara bidali zenak (eta ingurumen-organoak jaulkitako irismen-dokumentuaren oinarria izan zenak), honela definitzen zuten 6. funtsezko jarduketa:

"Instalazio publiko-pribatua, agregakinak, lurrak eta bigarren mailako beste lehengai batzuen tarteko biltegitratze, egokitzapen eta kontrolerako".

HPKP 2020 planarekiko aldaketa garrantzitsua eragiten zuen ekimen batean, lurralde-eragin zuzena zuen jarduketa proposatzen zen. Kontu hori behar bezala aztertu zen hasierako agiri estrategikoan.

²⁵ Aldez aurreko azterketa gisa, eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea aplikatuz proiektuek bete beharreko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioetan egin beharreko analisisien kaltetan izan gabe.

Proposamena abiatzen zen oraindik badiren eta isurketa-gaitasunik ezarekin erlazionatuta dauden gorabehera eta arazo batzuetatik. Zehazki, HPKP 2030 planaren diagnostikoan berariaz aipatzen da 2020ko otsailaren 6an Zaldibarko hondakin ez-arriskutsuen zabortegean (Verter Recycling, S.A) gertatutako gorabehera; hortik aurrera zabortege hori itxi egin zen hondakin-tipologia hori onartzeko, eta horrela, 500.000 t/urte murriztu da HeAk biltegitratzeko ahalmena. Horri guztia gehitu zaio jada aurreikusita zegoen Mutiloako HeAen zabortegearen itxiera (350.000 t/urte-ko edukiera) eta Larrabetzuko zabortegearena (250.000 t/urte-ko edukiera); eta, horrela, hondakin-tipologia hori biltegitratzeko guztizko ahalmena 1.100.000 t/urte murriztu da. Egoera horren ondorioz EAEn hondakin ez-arriskutsuak zabortegean gordetzeko urteko edukiera 700.000 t/urte da, oraindik zabortegean biltegitratzen ari diren hondakin-mota horren 1,5 milioi t/urte-ren aldean, eta beraz, isurketa-ahalmenaren 800.000 tona/urte-ko hasierako defizita dago egungo egoerarekin alderatuta.

Egoera arintzeko larrialdiko zenbait soluzio abian jartzera eraman du horrek Eusko Jaurlaritza, eta horien artean hauek azpimarra daitezke: (1) Verter zabortegearen egokitzapena (2) lan-mahaia EAEko zabortege publiko eta pribatuekin, datozen urteetan HeAk onartzeko ahalmena egokitzeko eta/edo handitzeko, (3) Isurketa Mugatzeko Agindua (IMA) 2020ko martxoaren 4an argitaratua eta (4) 2030erako isurketa-ahalmenaren plangintza HPKP planaren esparruan.

Testuinguru horretan, 2030erako isurketa-gaitasunaren larrialdiko plangintzari dagokionez, lehenengoz identifikatu zen autosufizientziaren, hurbiltasunaren eta unibertsaltasunaren printzipioei zerbitzua emango zien Planta baten beharra.

Hala ere, HPKP 2030 plana idazteko ardura duen Batzorde Teknikoaren esparruan, arazo horri beste ekimen batzuen bidez konponbidea emateko aukera identifikatu da. Ekimen horiek ekimen pribatua inplikaturik lukete, baina administrazio publikoak kontrol-maila handia izango luke, eta, gainera, aipatutako autosufizientziaren, hurbiltasunaren eta unibertsaltasunaren printzipio berberekin garatuko dira.

Arazo horren konponbide-fasean dago, baina HPKP 2030 planetik instalazio espezifiko bat sustatzea saihesteko aukeraren aurrean, 6. funtsezko jarduketara birbideratu da izen hau emateko: *"Agregakinen, lurren eta bigarren mailako beste lehengai batzuen tarteko biltegitratzerako, egokitzapenerako eta kalitate-kontrolerako konponbide integral publiko-pribatua"*.

HPKP 2030 planaren ingurumen-inpaktu globalari dagokionez, murriztu egingo litzateke, lurraldearen zuzeneko esku-hartzea kentzean; beraz, alternatiba hobea da plangintza-mailan.

4. INGURUMENAREN EGUNGO EGOERA EZAUGARRITZEA

Hondakin Planaren lurralde-aplikazioaren eremua EAE osoa denez, zaila da ingurumenaren egungo egoeraren sintesi bati heltzea.

Irismen-dokumentuak 6.2 atalean adierazten du EAEko ingurumen-egoeraren deskribapenari ekin behar zaiola, hainbat faktore kontuan hartuz (ingurune fisikoa, natura-ondarea, paisaia, kultura-ondarea...) eta ingurumen-alderdi garrantzitsuen laburpena eginez.

Atal hau idazteko, premisa hau hartu da abiapuntutzat: ingurune fisikoaren eta biotikoaren hainbat elementuri buruzko deskribapen zehatzak egitea, bai eta EAE osoko paisaiari eta natura-ondareari buruzkoak ere, ez du datu adierazgarririk ematen HPKP 2030 plana aztertzeke, hark plangintza estrategikoaren izaera duelako. Ulertu da osorik Euskal Autonomia Erkidegoan dauden lurzoruei, paisaiei edo onura publikoko mendiei (adibide batzuk jartzeagatik) buruzko deskribapen zabalak egiteak ez duela plangintza hobea lortzen lagunduko, HPKP 2030 planak ez baitu lurralde-adierazpenik jasotzen; horrela, egokitzen jo da²⁶ analisia zehaztea eta EAEko ingurumen-ezaugarri nagusietan eta egungo ingurumen-ezaugarrien ikuspegi orokorra eman dezaketen gai garrantzitsuetan zentratzea.

4.1. INGURUMENAREN EGOERA EAE-N

2002az geroztik, EAEko Ingurumen Esparru Programa (2002-2006) eta Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) martxan jarritz, Eusko Jaurlaritzak txosten bat egin eta argitaratu du urtero, adierazle-kopuru txiki batean oinarrituta, ezarritako lehentasunezko ingurumen-helburuen joera globalak adierazten dituenak.

Egindako azken txostena 2019. urteari buruzkoa da ²⁷, eta, oro har, datu hauek ematen ditu:

- **Azaleko urei dagokienez**, egoera globalaren eboluzio positiboa ikusten da: gainazaleko ur-masen % 56 egoera global "onean" daude, eta 2012an % 34 ziren.
- **Lurpeko urei dagokienez**, azpimarratu behar da masen % 100ek (36) egoera kuantitatibo "ona" dutela, eta % 92k (33 masa) "ona" egoera kimikoa dutela.
- **Aireari dagokionez**, eguratseko kutsatzaile nagusien isuriek beherakada nabarmena erakusten dute 1990. urtearekin alderatuta, PM_{2,5} partikulen kasuan izan ezik, horiek


²⁶ HKEEPren ingurumen-azterketa estrategikoan egin den bezala, esate baterako.

²⁷ EAEko ingurumen-egoeraren 2019ko txostena:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/medioambiente/es_def/adjuntos/Medio_ambiente_en_euskadi_cast.pdf

erreferentzia-urte horretako mailak gainditzen baitituzte, nahiz eta 2006an erregistratutako maximo historikotik etengabeko beherakada izan.

Oro har, airearen kalitateak hobekuntza nabarmena izan du 2005-2016 aldian, eta urteko egunen % 50ean airearen kalitate "ona" izatetik (2005), egunen % 82an airearen kalitatea "ona" eta "oso ona" izatera pasatuz (2016). Airearen kalitate "txarra" edo "oso txarra" duten egunak % 1era murriztu dira.



2. irudia. Zenbait kutsatzaile atmosferikoen isurien bilakaera.

- **Biodibertsitateari** dagokionez, 2019ko txostenak adierazten du Natura 2000 gune babestuek Euskadiko azaleraren % 23,3 estaltzen dutela, eta eremu horiek guztiek onartutako kontserbazio-neurriak dituztela.

Datu positibo hori osatu daiteke duela gutxi argitaratutako²⁸ Euskadiko natura-egoerari buruzko txostena²⁹ren balorazioarekin; txosten horrek 2013-2018 aldian habitat eta espezieen bilakaera aztertzen du, Habitaten 92/43/EEE Zuzentarauaren 11. eta 17. artikuluen arabera, 2030eko biodibertsitateari buruzko EBren Estrategiaren ikuspegiaren arabera - Gure bizitzetan natura berrintegratzea³⁰. Eskuragarri dauden datuetatik, honako hauek azpimarra daitezke:


- Batasunaren intereseko habitaten eta eskualdeko intereseko habitaten % 22 kontserbazio-egoera (KE) onean daude, % 49k KE desegokia du, eta % 20rena txartzat jotzen da. Gainerako % 9 "ezezaguntzat" jotzen da ebaluazioa zaildu duten hainbat arrazoiengatik.
- Espezieei dagokionez, EAEn, oro har, informazio eskasa dago espezie horien kontserbazio-egoerari eta joerari dagokionez, aurreko aldietan ingurumeneko

²⁸ 2020ko ekaina.

²⁹ https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/estadonaturaleza/es_def/adjuntos/estado_naturaleza_Euskadi.pdf

³⁰ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?qid=1590574123338&uri=CELEX:52020DC0380>

eskumenak dituen Ministerioaren esku egon baita ebaluazioa. Informazio-gabezia hori bereziki aipagarria da onddoetan, likenetan, flora ez-baskularrean eta ornogabeetan. Hala ere, esan daiteke, 2020ko Biodibertsitateari buruzko Europar Batasunaren Estrategiaren tarteko berrikuspenaren arabera, kontserbazio-egoera onean dauden espezieen kopurua pixka bat igo dela 2010etik. Bestalde, egoera txar hori zuten espezie askok tentsioa izaten jarraitzen dute, eta batzuek okerrera egin dute. Argitaratutako txostenean emandako datuek hau adierazten dute:



3. irudia. KEren taula espezie-elkarketen arabera. FV: ona; U1: txarra; U2: desegokia; XX: ezezaguna (iturria: Euskadiko natura-egoerari buruzko txostena 2020).

Estado de Conservación por agrupaciones de especies	Kontserbazio-egoera espezie-elkarketen arabera
Plantas vasculares	Landare baskularrak
Reptiles	Narrastiak
Peces	Arrainak
Moluscos	Moluskuak
Mamíferos	Ugaztunak
Crustáceos	Krustazeoak
Artrópodos	Artropodoak
Andibios	Anfibioak
FV	FV
U1	U1
U2	U2
XX	XX

Bestalde, azpimarratu behar da badaudela beste naturagune interesgarri batzuk (Ramsar hezeguneak, etab.), eta baita EAEk bere lurralderako azpiegitura berde bat sortzea hartu duela bere gain, ekosistemak mantendu eta hobetzeko, lurraldearen konektagarritasuna eta horiek ematen dituzten zerbitzuak sustatzu. Azpiegitura Berde hori Lurralde Antolamenduko Gidalerro (LAG) berrietan sartu da³¹.

- **Lurzoruari dagokionez**, 2018an ikertutako eta kutsatuak egon daitezkeen kokalekuen kopurua 285 lurzatiko maximo historikora iritsi da Euskadin. 2018an berreskuratutako 87 kokaleku kutsatuekin, berreskuratutako kokalekuak 1.031 dira guztira, 2000. urtean erregistratzen hasi zirenetik, hau da, berreskuratuko azalera metatua 1.157 ha-koa da.

Nolanahi ere, lurzoruaren erabilerei dagokienez dauden arazoak ikusita, eta kontuan hartuta garapen jasangarriaren 17 helburuetatik (GJH) 11³² horrek eskaintzen dituen ekosistema-zerbitzuen mendeakoa direla, Eusko Jaurlaritza Lurzorua Babesteko Euskadi 2030 Estrategia diseinatzeko ari da³³. Lurzoru Kutsatuen Plan bat ere jasotzen duen Estrategia hori prestatzeko, lurzoruaren kudeaketa eta erabilerekin zerikusia duten eragile guztiak inplikatu dira. Aurreikusten da abian jartzean baliabide hori babesteko aurrerapausoak ahalbidetu dituzten neurri espezifikoak hartuko direla.

- **Klima-aldaketari dagokionez**, EAEko ingurumen-egoeraren 2019ko txostenak nabarmentzen du EAEko Klima Aldaketaren Estrategia 2050 (KLIMA 2050) martxan jarri dela, eta 2005-2017 aldian BEG guztizkoen eta lausoen isuriak pixkanaka murriztu direla adierazten du. Sektoreka aztertuz gero, epe honetan hondakinek beheranzko joera erakusten dute, irudi hauetan ikus daitezkeen bezala:


³¹ 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.

³² <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>

³³ <https://www.irekia.euskadi.eus/es/debates/1273?stage=discussion>

EMISIONES DE GEI

Evolución 2005-2017



4. irudia. BEG isurien 2005-2017 bilakaeraren datuak sektoreka (EAEko ingurumen-egoeraren 2019ko txostena).

EMISIONES DE GEI	BEG ISURIAK
Evolución 2005-2017	Bilakaera 2005-2017
Transformación de energía	Energiaren eraldaketa
Residuos	Hondakinak
Servicios	Zerbitzuak
Agricultura	Nekazaritza
Residencial	Bizitegia
Industria	Industria
Transporte	Garraioa
32% 6,4 Mt Transporte	% 32 6,4 Mt Garraioa
8% 1,6 Mt Residencial	% 8 1,6 Mt Bizitegia
7% 1,4 Mt Servicios	% 7 1,4 Mt Zerbitzuak
3% 0,7 Mt Agricultura	% 3 0,7 Mt Nekazaritza
4% 0,9 Mt Residuos	% 4 0,9 Mt Hondakinak
%13 2,6 Mt Transformación de energía	% 13 2,6 Mt Energiaren eraldaketa
-40,6% Industria	-% 40,6 Industria

+15% Transporte	+% 15 Garraioa
-9,2% Residencial	-% 9,2 Bizitegia
-21.6% Servicios	-% 21,6 Zerbitzuak
-39,2% Agricultura	-% 39,2 Nekazaritza
-37,3% Residuos	-% 37,3 Hondakinak
-19,5% Energía	-% 19,5 Energia

Aipatzekoa da, halaber, berriztagarrien kontsumo-kuota energiaren azken kontsumoarekiko % 13,4 hazi dela 2011-2017 aldirako.

Halaber, adierazten da 1995-2017 aldian EAEko BPGd-aren % 70eko hazkundearekin batera BEGen isuriak % 12 jaitsi direla, eta horrek adierazten du BPGd-aren eta BEGen isurketen arteko desakoplamendua gero eta handiagoa dela.

- Ekonomia **zirkularrari dagokionez**, Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia 2030en helburuak eta erronkak aipatzen dira. Nabarmentzekoa da euskal sistema ekonomikoak gero eta mendekotasun txikiagoa duela materialekiko, eta horrek, inportazioak jaisteaz gain, berezko baliabide naturalen ustiapen txikiagoa eragiten duela.

Era berean, energiaren eta ingurumen-adierazle nagusien arteko gero eta desakoplamendu handiagoa aipatzen da: BPGd-ak 2000-2016 aldian % 30 gora egin zuen arren, PM10 partikulen isuria edo zabortegiko hiri-hondakinak, hurrenez hurren, % 37 eta % 53 murriztu ziren aldi horretan.

Txostenean nabarmentzen da, halaber, EAEko ingurumen-gastu publikoaren % 80 baino gehiago urarekin eta hondakinekin lotutako proiektuetan aplikatu zela.

- **Jasangarritasunari buruzko** epigrafea herritartasunean eta ingurumenean, hezkuntzan eta tokiko ingurumenean zentratzen da, eta epigrafe horretan 2019ko Txostenak Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia 2030 aipatzen du (2018an argitaratua). Bertan, euskal gizarte bidezkoago eta jasangarriago baterantz aurrera egiteko aukera emango duen hezkuntza eraldatzailea garatzeko oinarriak ezartzen dira. Eskolako Agenda 21, Ekoetxea ingurumen-zentroen sarea eta Udalsarea 2030 Udalerri Jasangarrien Euskal Sarea bezalako proiektuak dira, txostenaren arabera, ezarritako helburuetan aurrera egiteko aukera ematen duten beste ekimen batzuk.

Aurreko guztiaz gain, **arriskuei** buruzko tarte espezifiko bat egiten da, hondakinen arloko plangintzarako gai garrantzitsua den heinean, Zaldibarko gorabeheraren ondoren agerian geratu den bezala. Babes Zibilaren arloan³⁴ arrisku hauek definitu dira EAEn:

³⁴ Ekainaren 24ko 153/1997 Dekretuak onartutako eta urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretuak aldatutako EAEko Babes Zibileko Planarekin (LABI) bat etorritz.

- **Baso-sutearen arriskua:** baso-sutearen arriskuaren mapa bat prestatu zen EAerako, 2012tik 2014ra bitartean garatu zen eta helburu nagusitzat baso-arriskuen kudeaketari begira hartu beharreko neurrien berri izatea zuen SUDOE Forrisk proiektuaren esparruan³⁵. Mapa hori 2012ko LIDAR datuetan oinarrituta egina, eta EAeko baso-erabilerako lurraldea (sastraka eta basoa kontuan hartuz) 3 kategoriatan sailkatzen du, duen sute-arrisku txiki, handia edo oso handiaren arabera.
- **Uholde-arriskua:** LPSek eta plan hidrologikoek 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-aldien arabera ezartzen dituzte urpean gera daitezkeen eremuak, eta, gainera, uholdeak izateko arrisku potentzialeko eremuak (UAPEak) lehentasunezko esku-hartze eremu gisa definitzen dituzte, uholde-arrisku handiagatik. Gaur egun 2021-2027 aldirako plangintza izapidetzen ari da.
- **Arrisku sismikoa:** MSK sailkapenak hainbat eremu sismikotan banatzen du EAE, arriskuaren arabera.
- **Arrisku kimikoa (SEVESO):** 840/2015 Errege Dekretuak Espainiako ordenamendu juridikora ekarri du 2012/18/EB Zuzentaraua (SEVESO III Zuzentaraua), substantzia arriskutsuek esku hartzen duten istripu larriek berezkoak dituzten arriskuak kontrolatzeari buruzkoa. Errege-dekretu honen xedea da substantzia arriskutsuetan parte hartzen duten istripu larriak prebenitzea, bai eta horiek giza osasunean, ondasunetan eta ingurumenean dituzten ondorioak mugatzea ere.
- **Salgai arriskutsuak garraiatzeagatiko arriskua:** Salgai Arriskutsuak Errepidez eta Trenbidez Garraiatzeko Arriskuari aurre egiteko Larrialdietarako Plan Berezia Gobernu Kontseiluaren 2001/07/30eko Akordioaren bidez onartu zen. Plan horretan salgai arriskutsuen garraioa egin daitekeen errepideen sailkapena egiten da, baita horren ondoriozko nolabaiteko arriskuarena ere. Gainera, zenbait zerrenda ezartzen dira (100, 200 eta 600 m) horien inguruan, arrisku-mailaren arabera.

4.2. HONDAKINEKIN ZERIKUSIA DUEN ARAZOA

Hondakinak, haien sorrera eta kudeaketa, maila globalean lehen mailako ingurumen-arazo bat dira, eta EAE ez da arazo horretatik kanpo geratzen. Aurreko atalean aipatutako joera globalei buruzko urteko txostenen barruan, Eusko Jaurlaritzak hondakinei buruzko³⁶ txosten espezifiko

³⁵ Forrisk proiektuan Neikerrek eta HAZik hartu zuten parte bazkide gisa, biak Eusko Jaurlaritzaren erakundeak izanik.

³⁶Euskadiko 2019ko ingurumen-profila:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/medioambiente/eu_def/adjuntos/2017.pdf

bat prestatu zuen 2017an gai horri buruzko ikuspegi global bat eskaintzeko. 2017ko egoeraren analisisan honako hau nabarmendu zen:

- **Batasunaren mailako eskalan**, estatu kideen errealitate desberdinek baldintzatzen dute Europar Batasuneko hondakinen egoera. 2017an eskuragarri zegoen informazioaren arabera, estatu kideek 1.798 milioi tona hondakin sortzen dituzte urtean, eta Alemania, Frantzia eta Erresuma Batua dira gehien sortzen dituzten herrialdeak.

Datuak aztertuta, egiaztatzen da herrialde bateko hondakinen sorrera ez dagoela soilik biztanleriak baldintzatuta; aitzitik, badaudela eragin handia izan dezaketen beste aldagai batzuk, hala nola emandako datuen kalitatea edo produkzio-sektoreen pisu espezifikoak. Euskadiren kasuan, siderurgiaren edo eraikuntzaren sektorearen eraginak per capita ratioa handitzen laguntzen du, urteko eta biztanleko 2.695 kg arteko balioetaraino iritsiz 2016an.

EB osoari dagokionez, eraikuntzaren sektorea da ekarpen handiena duena (868 MMt), sortutako hondakinen ia erdia ekartzen duelako.

Era berean, ikusten da hondakinen kudeaketaren hierarkia betetzea ere nabarmen aldatzen dela estatu kideen artean.

- **Eskala autonomiko batean**, Euskadiko hondakinen sorrera funtsezko faktoreek baldintzatzen dutela egiaztatzen da, eta hauek dira nagusiak: lurraldearen industrializazio sendoa, berez hondakin asko sortzen dituzten sektoreak (esaterako, siderurgia), eraikuntza-sektoreak ekonomian pisu handia izatea, lurzoru urbanizagarriko biztanle-dentsitate handia eta erosteko ahalmen handia.

Erkidego-mailan egoera horrekin jarraituz, eta HPKP 2030 planean egindako diagnostikoak jasotzen duenez, Euskadiko hondakinen sorrera ³⁷6.089.377 tonara iritsi zen³⁸ 2018an. Horrek esan nahi du % 4ko beherakada egon zela 2010³⁹rekin alderatuta (6.336.431 t), aurreko Planean proposatutako % 10eko murrizketaren aurrean. BPGd-ko milioi euro bakoitzeko hondakinen sorrera 79 tonakoa izan zen; horrek esan nahi du 2010ekoarekin alderatuta % 17 murriztu zela (95 tona/miloi €). Erdia baino gehiago, % 55 hondakin ez-arriskutsuak (HeA) izan ziren; % 20 eraikuntza- eta eraipen-hondakinak; % 20 hiri-hondakinak eta % 5 hondakin arriskutsuak.

Edonola ere, hondakin-kopuru oso altuei buruz ari gara, 2.700 kg hondakin inguru sortzen baitira pertsonako eta urteko. Eraikitako birziklatze-azpiegiturei eta azken hamarkadetan zehar ezagutza sortzeko eta laguntza ekonomikoa emateko hartutako neurriei esker, hondakinen


³⁷ Plan hau prestatzeko unean eskura zeuden Eusko Jaurlaritzaren azken inbentarioak.

³⁸ Inbentario orokorraren kalkuluak aurreikusten du inbentarioen arteko teilakatzeak kentzea, hondakin-partida jakin batzuk ez bikoizteko.

Datu horretan sartu dira lurrunzeagatik galerak eta hondakinak tratatu arteko biltegiatzeagatik (67.410 t).

³⁹ 2010eko datuak birkalkulatu egin dira, egungo inbentario-metodologiarekin koherenteak izan daitezen.

erdia baino gehiago birziklatu egiten da, zehazki, % 57 (zifra horretan konpostatzeari dagokion % 1 sartzen da), % 6 energetikoki balorizatzen da, < % 1 berrerabiltzeko prestatzen da, eta % 37 deuseztatu egiten da, bai zabortegiko biltegitratzeen bidez (% 35), bai beste tratamendu batzuen bidez (% 2); kudeaketa-zenbaketa horretan ez da sartzen galeren eta tratamenduaren zain dauden biltegitratzeen % 6, tratatzen diren unean eta azkenean ematen zaien tratamenduaren arabera zenbatuko baitira.



5. irudia. Hondakinen kudeaketa (t, %) 2010eko, 2016ko eta 2018ko urteak (iturria: HPKP 2030en zirriborroa).

Reciclaje	Birziklatzea
Valorización energética	Balorizazio energetikoa
Eliminación	Ezabatzea

Azken finean, **hondakinak arazo bat dira berez, eta, gainera, horien kudeaketa ingurumen-arazo hauek sortzera irits daiteke** (garrantzitsuenak azpimarratzen dira):

- Klima-aldaketan eragindako ondorioak, hondakinen kudeaketan eta garraioan BEGak isurtzeagatik (CH₄, CO₂ eta beste batzuk).
- Gainazaleko eta lurpeko uren kutsadura.
- Lurzoruaren kutsadura
- Okupazioak lurzoruari eragiten dizkion beste eragin batzuk: higadura-arriskua handitzea, gazitzea, zigilatzea, etab., baliabide honek ematen dituen ekosistema-zerbitzuak murriztu ditzaketenak.
- Osasun publikoaren gaineko eraginak, bai zuzenekoak, kudeaketa-azpiegituren funtzionamenduaren ondorioz, bai zeharkakoak, gasak sortzearen ondoriozkoak, hala nola furanoak, dioxinak, NO_x-ak, etab.

- f) Natura-ondarearen gaineko eraginak eta paisaiaren degradazioa: instalazioak kokatzen diren lekuaren arabera, inpaktuak eremu babestuetan, habitatetan, espezieetan, paisaian eta abarretan eragingo dira.
- g) Natura 2000 Sarearen gaineko eraginak, atal espezifiko gisa natura-ondarearen gaineko afekzioen barruan.
- h) Lehengaiak erauztea: erauzketaren ondoriozko hainbat inpaktu sortzen ditu.
- i) Arriskuak, batez ere substantzia kimikoak maneiatzetik eratorritakoak.

IAE honen 5 atalean xehetasun handiagoz deskribatzen dira inpaktu horiek eta HPKP 2030ek nola eragin dezakeen horietan.

5. PLANAREN INGURUMEN-ONDORIOAK

5.1. SARRERA

Lehen aipatu den bezala, nagusiki ingurumen-izaerako plana da HPKP 2030, eta biltzen dituen jarduketa gehienek, zeharkakoek nahiz hondakinen lehentasunezko korronteeekin lotutakoek, ez dute zuzenean eraginik lurraldean eta, beraz, ezin da espero haren garapenak ingurumenean eragin kaltegarririk izango duenik. Alde horretatik, esan daiteke HPKP 2030 aplikatzeak, oro har, ingurumen-eragin **positiboa** izango duela EAEko ingurumenean.

Izan ere, eta indarrean dagoen plangintzari dagokionez, aurreko aldietan baino ingurumen-onura hobeak ahalbidetuko dituzte hondakinen kudeaketaren inguruko Europako eta estatuko eskakizunak handia egokitu beharrak eta maneiatzeko eta tratatzeko teknologietan izandako aurrerapen handiak.

Hala ere, eta lehen adierazi den bezala, Planean badira ingurumen eragin negatiboak sor ditzaketen zenbait jarduketa. Alde horretatik, kontuan hartu behar dira:

- HPKP 2030en babesean eta plan horren helburuak betetzeko sor daitezkeen hondakinen kudeaketarako instalazioak (gaur egun zabortegira eramaten diren plastikoen tratamenduarekin zuzenean lotutako instalazioak, hondakinak bereizteko eta birziklatzeko instalazioak, konpostatze-instalazioak, etab.). Eta, zehazki, 6. funtsezko jarduketarekin lotu daitezkeen instalazioak, agregakinen, lurren eta bigarren mailako beste lehengai batzuen tarteko biltegiatzeari irtenbide integrala ematekoak, egokitzekoak eta kalitatea kontrolatzekoak.
- Gainera, lehendik dauden instalazioetan egin beharreko egokitzapenak ere kontuan hartu behar dira, hondakinak kudeatzeko prozesu berrietara egokitzeko, HPKP 2030eko helburuak lortzeko. Kasu honetan, inpaktua lotuta egon daiteke bai lurzoruen okupazio batekin, bai isurietan, isurketetan eta abarretan moldaketak eragiten dituzten prozesuen aldaketekin.

Atal honetan zehar Plan honek maila guztietan eragin ditzakeen inpaktuetara hurbilketa bat egingo da, HPKP 2030en edukiek eta garapen-graduak ahalbidetzen duten xehetasunekin.

5.2. HONDAKINEN SORRERATIK ETA KUDEAKETATIK ERATOR DAITEZKEEN INGURUMEN-INPAKTU NAGUSIAK

Inpaktu horiek jada aurreratu dira IAEren 4.2 atalean, eta xehetasun handiagoz deskribatzen dira ondoren:

5.2.1. Hondakinak sortzea

HPKP 2030en helburua bera da, berez, lehen mailako ingurumen-arazo bat. Sortutako hondakinen bolumena gero eta handiagoa da –BPGd-a pixkanaka-pixkanaka deskoplatu egin den arren, tresna desberdinen (horietako asko HPKP planarekin lotuta daude) jardunari esker–, eta hori eragin negatiboak sortzen ari dira hurrengo puntuetan nabarmendutako elementuetan, horiek kudeatzeko beharra dela-eta.

Hondakin-korrante bakoitzak ingurumen-inpaktu desberdinak dakartza, kudeatutako bolumenaren edo materialen arabera, edo hondakinen hierarkiaren arabera kudeaketa-aukeren arabera. Nolanahi ere, eraginak sortzen dira klima-aldaketan, gainazaleko eta lurpeko uretan, lurzoruan, osasun publikoan, biodibertsitatean eta abarretan.

Aipamen berezia merezi dute itsas zaborrek, HPKP 2030 planak garrantzi handiko korrante espezifikotzat jotzen baititu. Horietako asko⁴⁰ lehorreko iturrietatik datoz; beraz, horiek murrizteko neurri batzuk hondakinak kudeatzeko politiketan oinarritu behar dira. Horiek behar bezala kudeatuz gero, itsas ingurunean amaitzea saihestuko da, eta horrek lagunduko du itsas ingurumena babestu eta kontserbatzeko itsas estrategien barruan dauden helburuak lortzen.

Hondakinen arazoei aurre egiteko erabili behar den tresna nagusia **kudeaketa-hierarkia eta prebentzio-programa aplikatzea** da, ekonomia zirkularreko sistema baten bidez gutxiago sortzea azpimarratuz. Sistema hori funtsezkoa da gaur egun hondakinak diren materialak ekoizpen-sistemara baliabide gisa itzultzeko eta, horrela, kudeaketaren ondoriozko problematika saihesteko.

5.2.2. Klima-aldaketaren gaineko ondorioak

HKEEP 2016-2022-k emandako datuen arabera, hondakinek klima-aldaketari egiten dioten ekarpena txikia da beste sektore batzuenaren aldean, eta % 5koa 2013rako, estimazioaren arabera. Zifra horretan hondakin-uren tratamenduari lotutako BEG isuriak sartzen dira, hondakinen eremuan sartuko ez liratekeenak. Edonola ere, KLIMA 2050 Estrategiak berak bere helburu nagusien artean markatzen du 6. helburua, "Hiri-hondakinen sorrera murriztea eta tratamendurik gabeko zero isurketa lortzea" izenekoa, hondakinen sektoreak arintze-lanean zeregin garrantzitsua duelakoan.


Horrela, sektore horren isuriaren ehunekoa nabarmen murriztu daitekeela kalkulatzen da. Hondakinei dagokienez, kontuan hartu behar da hondakinak osatzen dituzten materialek portaera desberdina dutela BEG isuriei begira, eta, beraz, proposatu daitezkeen murrizketa-neurriak desberdinak direla. Beraz, isurtze-jarduerak murriztu behar dira, karbonoa bahitzen duten jarduerak sustatu behar dira, eta hondakinen tratamenduari eta garraioari lotutako isuriaren murrizketa baloratu behar da. Ildo horretan, funtsezkoa da arlo hauetan aurrera egitea:

⁴⁰ HKEEPren arabera, % 80 inguru.

- **Hondakinak sortzeari aurea hartzea eta gaikako bilketaren eta bereizketaren** (eta ondorengoko berrerabiltze, birziklatze eta balorizatzearen) **ratioak handitzea**, KLIMA 2050ek 6. helburuaren barruan ezarritako ekintza-ildoek ezartzen duten bezala.
- **Aplikatzeari erabilgarri dauden teknologia aurreratuenak**, tratamendu eraginkorragoa eta isuri txikiagoak eskatzen dituztenak: horretarako, arau-mailan eta laguntzen bidez eragin behar da teknologia horien erabilera sustatzeko.
- **Garraio-beharrek murriztea**, analisi logistikoak eginez ekoizpen-zentroak tratamendu zentroetara hurbiltzea ahalbidetuko duten beharrezko instalazioak kokatzeko. Autosufizientziaren, hurbiltasunaren eta unibertsaltasunaren printzipioa gai honi dagokio.
- **Aldez aurreko tratamendurik gabeko hondakinen zero isurketa lortzea**, hori BEGen isuri-iturri potentzial nagusietako bat baita, batez ere biohondakinei dagokienez. Neurri hori laster iristea espero da, eta horrela jasota dago hasierako dokumentu honen xede den plangintzan.

HPKP 2030 planak kontuan hartzen ditu faktore horiek guztiak bere helburuen eta jarduketaren definizioan. Azpimarratzekoa da ekonomia zirkularrari eman nahi zaion bultzada, hondakinen sorrera eta haiei lotutako inpaktuak murriztuko dituen, eta lurzoruetan karbono-hustubide gehigarriak sortzen lagunduko duten konpostatze-ekimenei laguntza ematea.

Izan ere, 5.4 atalean **–Hondakinak sortzeko eta BEGak isurtzeko egoerak–** jasotzen denaren arabera, planteatutako jarduketaren bidez ezarritako helburuak betetzen badira, estimazioen arabera, BEG isuriak 620.000 t CO₂ bal. murriztuko dira 2030erako; horrek esan nahi du hondakinen sektoreari EAEko BEGen inbentarioan esleitutako BEG isuriaren % 98 murriztuko direla, eta 2018an EAEn isuritako BEG guztien % 3,3.



6. irudia. 2018an eta 2030ean hondakinen kudeaketari lotutako BEG isuriaren konparazioak

Emisiones de GEI asociadas a la gestión de residuos (t CO ₂ eq/año)	Hondakinen kudeaketari lotutako BEG isuriak (t CO ₂ bal./urte)
Reciclaje	Birziklatzea

Compostaje	Konpostatzea
Vertido	Isurketa
VE	BE
Materia prima sustituida	Ordez tutako lehengaia
Energía sustituida	Ordez tutako energia

5.2.3. Gainazaleko eta lurpeko uren kutsadura.

Hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten zenbait jarduerak eragina izan dezakete uren kutsaduran, hala nola hauek:

- Hondakinak biltegitratzeko eta tratatzeko instalazioak.
- Zabortegiak eta horietan sortutako lixibiatuak.
- Hondakin organikoak lurzoruei aplikatzea.
- Lurpeko urekin kontaktuan dauden lurzoru kutsatuak.

Horregatik, funtsezkoa da proposatzen diren instalazio guztietan prebentziozko neurriak ezartzea, uren kalitatea babesten dela bermatzeko, Uraren Esparru Zuzentarauari jarraiki. Alde horretatik, garrantzitsua da instalazioen kokagunea, baita eskumena duten agintaritza hidraulikoek beharrezko baimenak eta kontrol-sistemak izatea ere.

5.2.4. Lurzoruen kutsadura

Aurreko paragrafoan aipatu diren eta urak kutsatzeko prozesuak eragin ditzaketen jarduerak lurzoruen propietate fisiko-kimikoetan ere eragina izan dezakete, degradazioa eta kutsadura lagunduz.

Horregatik, instalazioen diseinu egokia ezinbestekoa da kutsadura hori saihesteko.

Gainera, eta lehen adierazi den bezala, gaur egun Euskadiko lurzoru babesteko 2030erako Estrategia prestatzen ari da. Estrategia horretan hainbat jarduketa aurreikusiko dira –horietako asko kutsatutako kokalekuak erremediatzekoak– gure Autonomia Erkidegoan lurzorbaliabidea pixkanaka berreskuratzeko. HPKP 2030 planak bat egiten du estrategia horrekin, bere edukien artean kutsatutako lurzoruen kudeaketa sartzen den neurrian; hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea arazo logistiko handia sortzen duela Estatuko oinarritzako araudian induskatutako lurzoruak –erremediatuak izan arren– "hondakin" gisa hartzeak, eta horrek nabarmen zailtzen duela haiek berrerrabiltzea.

Alderdi hori kontuan hartuko da HPKP 2030en funtsezko jarduketetako batean, 6. funtsezko jarduketa, Konponbide integral publiko-pribatua, agregakinen, lurren eta bigarren mailako beste lehengai batzuen tarteko biltegitratzearen, egokitzapenaren eta kalitate-kontrolerako, izan daitekeena "lur-bankuak" gaitzeko oinarria eta optimizazio logistikoaren eta ekonomikoaren irizpideak aplikatzea ahalbidetuko lukeena, irizpide horietan oinarritutako eskaintza-eskaera-sistema bati lotuta, jarduketan bertan deskribatzen den bezala.

5.2.5. Okupazioagatik beste afekzio batzuk lurzoruari

Hondakinen kutsaduraz gain, eta hori atal berezitu gisa sartu da HPKP 2030 planak duen harremanagatik lurzoru kutsatuen kudeaketari lotutako prozedurekin (kutsatuta egon daitezkeen kokalekuen inbentarioa, lurzoru kutsatuei buruzko kontsultak, lurzorua egoerari buruzko aurretiazko txostenak eta lurzorua kalitatearen adierazpen-prozeduraren esparruan gauzatutako jarduketak, 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoaren arabera), hondakinen kudeaketarekin lotutako hainbat instalaziok lurzorua okupatzeak beste eragin batzuk ditu, hala nola:

- Higadura-arriskuak areagotzea.
- Gazitzea.
- Zigilatzea
- Materia organikoa murriztea.
- Etab.

Oro har, eta kutsatutako lurzoruen antzera, lehen mailako baliabide natural horrek eskaintzen dizkigun ekosistema-zerbitzuak mugatzen dira lurzoruen ezaugarrien degradazioaren ondorioz. Horregatik, instalazio berriak ezartzeko irizpideak kontuan hartzea (IAE honetako 6. atala) funtsezkoa da instalazio berriak diseinatzean eta haien kokapena aukeratzeko orduan.

5.2.6. Osasun publikoaren gaineko eraginak

Seguru asko hondakinen kudeaketak sor ditzakeen inpaktu garrantzitsuenetako bat da, eta kudeaketa-azpiegituren funtzionamenduaren ondorioz zuzenean gauzatzen da, edo zeharka, gasak sortzeagatik, hala nola furanoak, dioxinak, NO_xak, etab., tratamendu desberdinetan. Zarata sortzeak ere eragozpen ugari sor diezazkieke biztanleei.

Ingurumenaren babesa ez ezik, giza osasunarena ere ziurtatzeko ezagutza sakona behar da hainbat arlotan, hala nola hauetan: hondakinak sortzen dituzten industria-prozesuak, horien tratamendu desberdinak, hondakinen konposizioa eta haietan dauden kutsatzaileak (batez ere materialen zikloan berriro sartu nahi badira), eta abar.

Hala, garrantzi berezia hartzen dute arlo horretan honako jarduera hauek jasotzen dituzten jarduerak:

- Hondakinen sorrera murriztea, haien tratamenduaren ondorioak mugatzeko metodo onena baita.
- Prozesu guztietan erabiltzea eskuragarri dauden teknika onenak, kutsatzaileen isuri txikiagoak bermatzen dituztenak, bereziki herritarren segurtasunerako kaltegarriak direnak, baita soinu-igorpen txikiagoak ere.
- Ezagutza handiagoa izaten laguntzen duten azterlanak egitea, I+G+b-n inbertituz.

HPKP 2030 planak jarduketa-lerroak ditu gai horietan guztietan.

5.2.7. Natura- eta kultura-ondarearen gaineko eraginak, eta paisaiaren degradazioa

Hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten instalazioen kokapenaren arabera, natura-ondareko hainbat elementuren gaineko inpaktuak bideratuko dira:

- Naturagune babestuak eta intereseko beste naturagune batzuk
- Konektibitate ekologikorako garrantzitsuak diren eremuak
- Landaretza autoktonoa eta Batasunaren intereseko habitatak
- Mehatxatutako flora- eta fauna-espezieen banaketa-eremuak
- Etab.

Era berean, kokapenaren arabera, inpaktuak sor daitezke hainbat katalogotan jasotako kultura-intereseko elementuetan.

Gainera, azpiegituren diseinuaren arabera, azpiegitura horiek txertatzen diren paisaia-ingurunearen degradazioa eragin daiteke. Alde horretatik, bereziki garrantzitsua da kokapenaren eta diseinuaren egokitasunari erantzutea.

Natura- eta kultura-ondarearen gaineko eraginik eta paisaiaren degradaziorik sor ez dadin, HPKP 2030 planak aurreko HPKP 2015-2020 planaren proposamenean aurrera eginez, instalazio berriak ezartzeko zenbait irizpide txertatu ditu, "zona desagokiak edo baztertuak" barne hartzen dituztenak, balio handieneko elementuak islatzen dituztenak eta era horretako esku-hartzeetatik salbuesten dutenak. Gainera, kautelak ere jasotzen dira, esku-hartzetik kanpo utzi ez arren, berariazko analisiak egin behar diren beste zona batzuetarako.

5.2.8. Natura 2000ren gaineko eraginak⁴¹

Aurreko paragrafoan aipatutako naturagune babestuen artean daude Natura 2000 Europako Sarean sartzen diren lekuak. Euskadin lurraldearen % 23 inguru okupatzen dute eta honako figura hauetakoren batean sartzen dira:

- Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE)
- Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE)
- KBE/HBBE (izendapen bikoitza jasotzen duten gunek)

EAEn, Natura 2000 gune guztiek kudeaketa-planak dituzte onartuta.

Gune horien gaineko afekzioei dagokienez, Habitaten 92/43/EEE Zuzentarauak eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeak ezartzen dute

⁴¹ Aurrekoaren azpiatal independente gisa sartzen da, Habitaten 92/43/EEE Zuzentarauak eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeak ezarritakoa betetzeko, Natura 2000ren gaineko ondorioen ebaluazioari dagokionez, bai eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoa ere, Natura 2000ri buruzko paragrafo espezifiko bat sartzei buruzkoa.

haien gaineko ondorioen ebaluazioa egin behar dela –kontserbazio-helburuei erreparatuta–, eragin nabarmena izan dezakeen edozein plan edo proiektutan.

Natura 2000 guneen gaineko afekzioak saihesteko, adierazi den bezala, HPKP 2030 planak instalazio berriak ezartzeko zenbait irizpide txertatu ditu, "zona desgokiak edo baztertuak" barne hartzen dituztenak, eta horien artean daude Natura 2000 gunek.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da aipatutako araudiak eta arlo horretako jurisprudentziak, bai eta Europako Batzordeak prestatutako interpretazio-gidek ere, adierazten dutela Natura 2000 gunetatik kanpo garatuta egon arren horietan eragina izan dezaketen planak eta proiektuak ere ebaluatu behar direla (adibidez, isuri-arro berean kokatuta egoteagatik, Natura 2000 gune batean kontserbatzen diren espezieei eragin diezaieketen zaratak eta isuriak sortu direlako, etab.).

Horregatik, HPKP 2030en garapenean sustatzen diren planen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioek alde aurreko *screening* bat egin beharko dute, Natura 2000ri modu nabarian eragingo dioten zehazteko, eta, baiezkotan, ondorioen ebaluazio egokia egin beharko da kasuan kasuko espazio(et)an.

5.2.9. Lehengaiak erauztea

Ingurune globalizatu batean, normalean lehengaiak gutxitan egoten dira eskuragarri gertu, eta are gehiago Euskadi bezalako lurralde txiki batean. Edonola ere, lehengai horiek ateratzeak inpaktu handiak sor ditzake jatorrian (lurzoruaren degradazioa, natura-ondarean duen eragina, etab.).

Horregatik, eta HPKP 2030 planaren zirkulartasun-printzipioak adierazten duen bezala, funtsezkoa da baliabideen erabilera optimizatzea, fluxuak orekatuz eta izakin finituak kontrolatuz; horrek, aldi berean, kapital naturala zaintzen eta hobetzen lagunduko du. Ekonomia zirkularrerantz bideratutako HPKP 2030 planeko jarduketa guztiek aurrerapauso bat ematen dute ildo horretan, materialak sistema ekonomikoan berriro sartzeari ahalbidetuz; hondakin oro baliabide bihurtzea izan beharko luke helburua.

5.2.10. Arriskuak

Hondakinen kudeaketari lotutako ingurumen arriskuei dagokienez, garrantzi berezia du zabortegei lotutako **arrisku geoteknikoak**.

Zabortegetan gertatutako istripu geoteknikoak kausa askoren ondorioz gerta daitezke, edo, kasu gehienetan, horien arteko interakzioen ondorioz. Honako hauen ondorioak izan daitezke: lixibiatuak metatzea, ezpondan gehiegizko inklinazioa eta altuera izatea, biogas-poltsak eratzea, hondakinak gaizki trinkotzea, azpiko lurretan gehiegizko malda egotea, eta beste kausa asko. Istripu horien ondorioak istripuaren tamainaren arabera izaten dira, eta arazo sanitario larriak eragin ditzakete, ingurumen-inpaktu handiak eta baita kalte handiak ondasunetan eta pertsonentzat ere.

Kasu askotan, istripuak hondakinen kudeaketa txarraren ondoriozkoak dira. Hala ere, kasu askoren arrazoa izan da ez ezagutzea hondakinen propietate mekaniko, fisiko-kimiko eta biologikoak eta haiek denboran zehar izandako bilakaera (heterogeneotasuna, asentuak, hartzidurak, lixibiatuak eta biogasa sortzea, etab.).

Hondakinen kudeaketari lotutako beste arrisku bat **sute-arriskua** da; izan ere, badira zenbait gida eta eskuliburu hondakinak tratatzeko instalazioetan suteak prebenitzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko Baso Suteetarako Larrialdi Plan Bereziak, VI. eta VII. eranskinetan, zenbait baldintza ezartzen ditu; besteak beste, autobabeserako plan bat egin beharra baso-sutea izateko arrisku handia duten eremuetako edo hiri-baso interfazeko eremuetako erabileretarako. Arrisku-eremu horiek identifikatu eta eguneratu dira IAEren 4.1 atalean aipatutako Forrisk proiektuari esker.

Instalazio batean sute-arriskua baldintzatzen duten arrazoi ohikoenak hauek dira: hiri-hondakin solidoen zabortegiko bilgarrian metanoa askatzea eta materia organikoa deskonposatzea, eta produktu sukoiak (pintura, disolbatzaileak, etab.) egotea behar bezala kudeatu gabe.

Ildo horretan, jarduketa bat sartu da dokumentu honen xede den planean:

"49. dekretua aldatzea, hainbat korronteren isuria debekatzeko (ferrosita, erregogorrak, TMRren plastikoak...) eta mugatzeko materia organikoaren eta beheko berotze-ahalmen (BBA) nahiz hezetasun handiko hondakinen sarrera".

HPKP 2030 planaren "Instalazio berriak ezartzeko irizpideetan" (Instalazioak kokatzeko saihestu beharreko beste esparru batzuk" azpiatalean), informazio publikorako eta kontsultetarako idazkera berriaren arabera, "Instalazioak kokatzeko saihestu beharreko beste esparru batzuk" gisa sartu dira arrisku geotekniko handiko eta/edo sute-arrisku handiko eremuak, Babes Zibilaren mapekin bat. Gainera, aipatu da zona horietan planak eta proiektuak garatzeko arrisku-azterketa espezifikoko beharko direla. Adierazitako arriskuak minimizatzea lortu nahi da horrela HPKP 2030en garapenean, segurtasun-maila handia bermatuz.

Neurri hori, ikuskapena eta kontrola handitzearekin batera **(5. funtsezko jarduketa)** arrisku horiek minimizatzea bideratuta dago.

Uholde arriskua ere aipatu behar da. Ildo horretatik, HPKP 2030 planak honako hau jasotzen du, hitzez hitz, "Instalazio berriak ezartzeko irizpideen" artean: *"kontuan hartu beharko dira lurralde-plan sektorialetan eta lurralde-plan partzialetan sartutako beste izaera bateko irizpideak ere (...)"*. Ibaiak eta Errekak Antolatze LPSari buruz ari da, beste gai batzuen artean. Horrez gain, "Instalazio berriak ezartzeko irizpideen" artean, "Instalazioak kokatzeko saihestu beharreko beste esparru batzuk" izeneko azpiatalean, urpean gera daitezkeen eremuak sartu dira, ibaiaren eta ibilguren LPSko kartografiaren eta arroko plan hidrologikoekin bat, adieraziz tresna horietan jasotako distantziak eta erregulazioak errespetatu behar direla eta, nolanahi ere, dagokion agintaritzak hidraulikoaren baimena eskuratu behar dela.

IAE honen atalean aipatutako gainerako arriskuei dagokienez (sismikoa, kimikoa...), bete beharreko araudia HPKP 2030en garapenean sor daitezkeen planetan eta proiektuetan aplikatzekoa da, eta haien funtzionamendua baldintzatzen du, EAEko edozein industria-ekimenetan aplikatzekoa den bezalaxe. Araudia betetzen dela behar bezala justifikatu beharko da, dagokion instalazio-motaren arabera.

5.3. HPKP 2030 PLANAREN HELBURUEN INGURUMEN-ONDORIOAK

HPKP 2030en helburu estrategiko guztiak lehendik dauden ingurumen-arazoak konpontzera zuzenduta daude, kudeaketa-hierarkia aplikatuz eta aurrera eginez (hurrenkera honetan), gutxiago sortuz, jatorrian gaikako bilketa handiagoa eginez, balorizazioaren bidez baliabide bihurtuko diren hondakinen kopurua handituz eta, azkenik, murriztuz zabortegian utzi behar diren sortutako hondakinak. Turrustan antolatutako programazioa da:

- Hondakinen sorrera murriztuko du, prebentzio programari eta sortze- eta kudeaketa-sistema osoa kontrolatzea ahalbidetuko duen arau-esparru bati esker.
- Klima-aldaketari dagokionez, sektoreko gaur egun ondorioak mugatuko ditu, hain zuzen ere hondakin-kopurua murrizteagatik, kudeaketa-teknologia berriak aplikatzeagatik eta ekonomia zirkularrean aurrera egiteagatik.
- Hondakinen sorrera prebenitzean, horiek baliabide bihurtzea sustatzean, eta teknologia eraginkorrak erabiltzea sustatzean ("Instalazioak diseinatzeko irizpideak", [6.1.1 atala instalazioak diseinatzeko irizpideak, dimentsionamendua barne](#), eta kontrol-sistema hobeak –araudi berria, Kanona...–), murriztu egingo dira gainazaleko nahiz lurpeko urak eta lurzoruak kutsatzeko arriskuak.
- Halaber, lurzoru kutsatuak tratatzeko programak sustatzean, lurzoru horien arazoak konpontzeko bidean aurrera egingo da, eta konponbide hori indartu egin beharko da, hondeatutako lurzoruak berrerabiltzeko aukera emango duten lege-aldaketen bitartez.
- Hondakinen sorrera murrizteaz eta hondakinak ziklo ekonomikora baliabide gisa itzularazteaz gain, "Instalazio berrietarako ezarpen-irizpideak" kontuan hartu beharrak (6atala) aukera emango du hondakinen kudeaketak osasun publikoan dituen ondorioak murrizteko (teknologia berriak erabiltzeagatik edo airearen kalitatea dagoeneko kaskarra duten zonetan instalazio berriak ezartzea saihestuko duten irizpide berriak aplikatzeagatik).
- "Instalazio berrietarako ezarpen-irizpide" horiek aurrerapauso bat dira natura- eta kulturalio handieneko eremuak baztertzeko, baita natura-ondarearen eta paisaiaren gaineko afekzioa saihesteko degradazio-maila handiagoa duten kokalekuak aukeratzeko ere.
- Bereziki Natura 2000 sareari dagokionez, "zona desegoki edo baztertutzat" jotzen dira industria-eremuetatik kanpo hondakinak kudeatzeko azpiegiturak instalatzeko. Nolanahi ere, eta Habitaten 92/43/EEE Zuzentaraua eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari

buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea aplikatuz, HPKP 2030 aplikatuz idazten diren plan eta proiektuek berariaz baloratu beharko dituzte Natura 2000 guneen gaineko balizko afekzioak.

- Ekonomia zirkularra bultzatzeak, batez ere, HPKP 2030 plana Euskadi 2030 Estrategiarekin lerrokatzean, lehengaien erauzketatik eratorritako inpaktuak murriztuko ditu, ez soilik EAEn, baita lehengai horien jatorrian ere.
- Azkenik, teknologia aurreratuenen aplikazioak eta kontrol-sistemak indartzeak kudeaketatik eratorritako arriskuen murrizketan aurrerapausoa ekarriko dute.

4. taula. HPKP 2030en helburu estrategikoen ingurumen-inpaktuak

Helburu estrategikoak	Inpaktuak ⁴²									
	Hondakinak sortzea	Klima-aldaketan dituen ondorioak	Gainazaleko eta lurpeko uren kutsadura	Lurzorua kutsadura	Lurzorua gaineko beste eragin batzuk	Osasun publikoaren gaineko eraginak	Natura-ondarearen gaineko eraginak eta paisaiaren degradazioa	Natura 2000 Sarea	Lehengaiak erauztea	Arriskuak
HE1 (Prebentzioa): 2030erako hondakin-sorkuntzaren guztizko tasa % 30 murriztea BPGd unitate bakoitzeko 2016. urtearekiko										
HE2 Helburu Estrategikoa (Gaikako bilketa): 2030ean, jatorrian bereizitako hondakinen % 85 lortzea, masan.										
HE3 Helburu estrategikoa (Balorizazioa): 2030erako, bigarren mailako baliabide bihurtutako hondakinen % 85 lortzea, eta balorizazio energetikoa % 15 baino gutxiagora mugatzea.										
HE4 helburu estrategikoa (Ezabaketa murriztea): Hondakinen ezabatze-operazio bidezko kudeaketa murriztea, 2030erako sortutako hondakinen % 15 baino gutxiago ezabatuz.										

⁴² Inpaktuen balorazioa:  Inpaktu positiboa.

5.4. HPKP 2030eko JARDUKETEN INGURUMEN-EFEKTUAK

5.4.1. HPKP planaren lurralde-eragina: jarduketak baloratzeko gogoetak

Aurreko ataletan adierazi den bezala, HPKP 2030 planak, informazio publikoan jarri eta IAE honekin batera kontsulten mende utzitako zirriborroan, ezabatu egin ditu lehen bertsioetan lurralde-inpaktua zuten jarduketak. Horrela, planak jasotzen dituen jarduerak, bai zeharkakoak, bai hondakinen lehentasunezko korronteei lotutakoak, ez dute lurralde eragin zuzenik, eta, beraz, ezin da espero haren garapenak ingurumen-eragin kaltegarririk izango duenik.

Nolanahi ere, ezin da ahaztu HPKP 2030 tresna bat dela, eta haren esparruan sustatuko direla sorkuntzaren eta kudeaketaren arloko helburuak betetzeko beharrezkoak diren hainbat azpiegitura (eta helburu horiek ere, gogora dezagun, ingurumenari dagozkiola).

Bi instalazio-multzo bereiz ditzakegu, lurralde-eraginaren irismenaren eta HPKP 2030 planaren definizio-mailaren arabera:

- HPKP 2030 planaren babesean sor daitezkeen instalazioak, bai bertan berariaz definitzen delako haien beharra (adib., 6. funtsezko jarduketaren esparruko instalazioak), bai Planaren helburu estrategikoak eta espezifikak betetzeko beharrezkoak diren baina definitzen ez diren beste batzuk.
- Hondakinak kudeatzeko prozesuak HPKP 2030 planaren irizpideetara egokitzeko eta helburuak betetzea ahalbidetzeko aldatu/egokitu behar diren instalazioak. Kasu honetan, inpaktuak erlazioa izan dezake bai lurzoruen okupazio batekin (oro har, lehendik dauden instalazioekiko mugakide izanik), bai isurietan, isurketetan eta abarretan aldaketak eragiten dituzten prozesuen aldaketekin.

Bi kasuetan, **funtsezkoa da HPKP 2030 planaren garapen gisa defini daitezkeen plan eta proiektuek "Instalazio berriak ezartzeko irizpideak" kontuan hartzea** (IAE honetako 6. atala), alternatiben hautapenean nahiz kasu bakoitzean egokia den ingurumen ebaluazioan, planaren oinarri diren iraunkortasun printzipioak sartuko direla ziurtatzeko. Irizpideak HPKP 2030en Ekintza-planean sartzeak, beharrezko azpiegiturekin lotuta, bermatuko luke alderdi hori.

Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute 2030erako Hondakin Plan honen garapen gisa sortzen diren proiektuetako batzuk, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin eta Euskal Herriko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorrarekin bat. Indarrean dagoen legeriaren arabera, hauek dira, oro har,⁴³:

⁴³ Zerrenda ez-exhaustiboa da, indarrean dagoen araudiak identifikatutako ingurumen-kudeaketari buruzko proiektuak jasotzen dituenak. Horrek ez du baztertzen HPKPtik eratorritako beste proiektu batzuk II Eren mende jarri behar izatea, duten kokapenagatik, azaleragatik edo proposamenean II Eri lotutako elementuak sartu izanagatik (adibidez, duten funtzionamenduagatik energia elektrikoa sortzen bada tarte jakin batzuetan, edo, bestela,

a) Ohiko ingurumen-ebaluazioa behar duten proiektuak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen I. eranskina:

8. taldea. Hondakinak tratatzeko eta kudeatzeko proiektuak.

a) Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 3.e) artikuluan definitutako hondakin arriskutsuak errausteko instalazioak, bai eta hondakin horiek zabartegian biltegitratuta, segurtasun-biltegian edo tratamendu kimikoan deuseztatzekoak ere (22/2011 Legearen I. eranskinaren D9 epigrafean zehazten den bezala).

b) Hondakin ez-arriskutsuak errausteko instalazioak edo hondakin horiek tratamendu fisiko-kimikoaren bidez ezabatzeko instalazioak (22/2011 Legearen I. eranskinen D9 epigrafean definitu bezala), egunean 100 t-tik gorako edukiera baldin badute.

c) Egunean 10 t baino gehiago jasotzen dituzten edo 25.000 t baino gehiagoko edukiera osoa duten zabartegiak, hondakin geldoen zabartegiak izan ezik.

9. taldea. Beste proiektu batzuk.

a) Honako proiektu hauek, naturagune babestuetan, Natura 2000 Sarean eta nazioarteko tresnen bidez babestutako eremuetan garatzen badira, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeak araututakoaren arabera:

1. I. eranskin honetako 8. taldean sartzen ez diren hondakin ez-arriskutsuen zabartegien instalazioak, bai eta hondakin geldoak edo ibaietatik, lurretik edo itsasotik erauzitako materialen instalazioak ere, hektarea bat baino gehiagoko azalera hartzen badute.

I.B) eranskina. 3/98 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra:

4.- ingurumen-kudeaketarako azpiegitura-proiektuak.

4.2. – Industria-instalazio finkoak hondakin arriskutsuak errausteko eta hondakin horiek zabartegian biltegitratuta deuseztatzeko, segurtasun-biltegiaren bidez, tratamendu kimikoaren bidez edo kutsatzaileen balizko isuriari dagokion antzeko beste edozein tratamenduren bidez.

Industria-instalazio finkoak hondakin arriskutsuak balorizatzeko, olio erabilien kudeaketa barne, egunean 10 tonatik gorako edukiera dutenak.

Industria-instalazio finkoak hondakin ez-arriskutsuak errausteko edo hondakin horiek deuseztatzeko, tratamendu kimikoaren bidez edo kutsatzaileen balizko isuriari dagokion antzeko beste edozein tratamenduren bidez, egunean 50 tonako edukiera edo hortik gorakoa dutenak.

horretarako industria-teknologia jakin batzuk aplikatu behar badira, etab.). Kasu bakoitza banan-banan aztertu beharko da.

Hiri-hondakinen zabortegiak eta industria-jatorriko hondakin ez-arriskutsuen zabortegiak.

Egunean 10 tona edo gehiago jasotzen dituzten hondakin geldoen zabortegiak, edo guztira 25.000 tona edo gehiagoko edukiera dutenak, edo, atalase horiek gainditu ez arren, ingurumenarekiko sentiberak diren zonetan daudenak osorik edo zati batean, eta hektarea bateko edo gehiagoko azalera dutenak.

22.- Txatarra biltegitratzea, 3.000 m² baino gehiagoko azalera duena, eta ibilgailuak desegitea, ingurumenarekiko sentiberak diren eremuetan daudenean osorik edo zati batean.

Salbuespen gisa hartzen dira portuetako txatarra biltegitratzeko jarduerak, halakoak zamak sartzeko eta ateratzeko jarduerekin zerikusia dutenean.

b) Ingurumen-ebaluazio sinplifikatua behar duten proiektuak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7. artikulua, 2.b) apartatua:

I. eranskinean eta II. eranskinean sartu gabeko proiektuak, Natura 2000 Sareko gune babestuetan zuzenean edo zeharka eragin dezaketenak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen II. eranskina:

9. taldea. Beste proiektu batzuk.

b) Hondakinak ezabatzeko edo balorizatzeko instalazioak, I. eranskinean sartuta ez daudenak, industrialde bateko pabiloi baten barruan garatzen ez direnak, edo edozein edukiera dutenak, jarduera kanpoan edo industrialdeetatik kanpo egiten bada.

c) Ibaietatik, lurretik edo itsasotik erauzitako materialak isurtzeko edo biltegitratzeko lurreko instalazioak, I. eranskinean sartuta ez daudenak, hektarea 1 baino gehiagoko azalera hartzen badute.⁴⁴

d) Txatarra biltegitratzeko, baztertutako ibilgailuak biltegitratzeko eta ibilgailuak desegiteko eta deskontaminatzeko instalazioak, industrialde bateko pabiloi baten barruan garatzen ez direnak, edo edozein edukiera dutenak, jarduera kanpoan edo industrialdeetatik kanpo egiten bada.

e) Hondakinak balorizatzeko instalazioak (ekoizpen-lekutik kanpo biltegitratzea barne), industrialde bateko pabiloi baten barruan garatzen ez direnak, hondakin ez-arriskutsuen instalazioak alde batera utzita, baldin eta urtean 5.000 tonatik gorako tratamendu-gaitasuna ez badute eta biltegitratzeko gaitasuna 100 tonatik beherakoa badute.

⁴⁴Planaren irismenaren barruan sartuko lirateke Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoaren eskumenekoak direnak.

Bestalde, kontuan hartu behar da ere lurralde- edo hirigintza-plangintza azpiegitura berriak hartzeko egokitu beharrak ekimen horien ingurumen-ebaluazio estrategikoa ekarriko duela, 21/2013 Legearen eta plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren (IEE) prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren arabera.

Horrez gain, eta bigarren instalazio-multzoari dagokionez (helburuak betetzeko aldatzen direnak), jarduera baimentzeko baldintzak aldatu beharko dira, eta une horretan parametro bakoitza ingurumen-organoak eta sektore-administrazioek aztertu eta baimendu beharko dute. Prozesu honetan balizko inpaktuen ebaluazioa eta kontrola bermatzen da.

5.4.2. HPKP 2030eko jarduketak. Balorazioa

Ondoren, HPKP 2030 planak jasotzen dituen lehentasunezko korronteen gaineko jarduketen taula jasotzen da, haren garapenetik erator daitezkeen ingurumen-inpaktuak adieraziz eta azken inpaktua ezaugarrituz.

5. taula. HPKP 2030 planaren jarduketaren ingurumen-inpaktuak lehentasunezko korranteen arabera

Lan-ildoak	Lehentasunezko korranteekin lotutako jarduketak	Lurralde-eragina ⁴⁵	Ingurumen-inpaktu nagusiak	Balorazio orokorra ⁴⁶
EAEn merkatua sortzea	EAEko lehentasunezko hondakinetatik eratorritako bigarren mailako materialen EKPBa sustatzea EAEko Erosketa eta Kontratazio Berdea 2030 Programa berriaren bidez. (8. FUNTSEZKO JARDUKETA) . TGEZn bigarren mailako materialak sartzea.	EZ	Jarduera logistikoa/administratiboa, prozesuak hobetzen dituen eta instalazio berriak gaitu beharrik ez dakarrena.	
	Bigarren mailako materialen CE marka sustatzea	EZ	Jarduera logistikoa/administratiboa, prozesuak hobetzen dituen eta instalazio berriak gaitu beharrik ez dakarrena.	
	“Green Claims” egin nahi dituzten enpresei laguntzea, Basque Ecodesign Hub-en bidez bizi-zikloaren irizpideak aplikatzeko.	EZ	Finantza-inbertsioekin zerikusia duen jarduketa, prozesuak hobetzen dituen eta instalazio berriak gaitzerik eskatzen ez duena.	
	Borondatzeko akordioak produktu jakin batzuk erosten edo banatzen dituzten enpresekin, bigarren mailako material eta produktuen erosketa sustatzeko (zementuak, retailerrak, eraikuntza-enpresak, portuak...).	EZ	Finantza-inbertsioekin zerikusia duen jarduketa, prozesuak hobetzen dituen eta instalazio berriak gaitzerik eskatzen ez duena.	
	Kanpoko bigarren mailako hondakinen edo materialen lekualdaketa ukatzea, betiere EAEn eskaintzarik badago eta Plan honen helburuak betetzeko asmoz.	EZ	Jarduera logistikoa/administratiboa, prozesuak hobetzen dituen eta instalazio berriak gaitu beharrik ez dakarrena. Autosufizientziaren, hurbiltasunaren eta unibertsaltasunaren printzipioari zorrotz egokitzen zaio.	
Ikerketa eta proiektu pilotuak	Gaikako bilketa hobetzeko eta birziklatze-tasak handitzeko azterketak.	EZ	Helburuak betetzeari begira prozesuak hobetzeko aukera emango duten azterlanak egiteari egiten dio erreferentzia.	

⁴⁵ Jarduketaren garatzean eragin hori sortzeko potentzialari dagokio, eta ez da inola ere HPKP planaren zuzeneko lurralde-eraginari.

⁴⁶ Balorazio orokorra:  inpaktu positiboa;  inpaktu negatiboa lurraldean izan dezakeen eraginagatik; eragin horren garrantzia baloratu egin beharko da, sustatzen diren berariazko ekimenak (planak eta proiektuak) ikusita.

	Gaikako bilketa eta balorizazioa hobetzen duten tratamendurako teknologia berriak edo erabilera berriak identifikatzeko azterketa eta proiektu pilotuak.	BAI	Azterketak egiteak ez du eraginik izango; hala ere, proiektu pilotuak martxan jartzeak instalazio berriak gaitzea eska dezake, eta, batez ere, lehendik daudenak egokitzea, teknologia berrien aukera desberdinak probatzeko. Alde horretatik, espero daitezkeen inpaktu nagusiak, instalazioaren tipologiaren arabera, hauek dira: • Lurzoruaren okupazioa • Lurzoruaren kutsadura • Kokapenaren arabera, natura-ondarearen hainbat elementuren gaineko eragina (espazioak, landaredia eta habitatak, espezieak, interes geologikoko lekuak, etab.). • Hidrologiaren eta hidrogeologiaren gaineko eragina (kontrol-neurrien beharra) • Isuriak (klima-aldaketa eragindako ondorioak). • Herritarren gaineko eragina: zaratak, usainak, partikulak, haizeak lekualdatutako materialak... Eragin horiek saihesteko eta/edo minimizatzeko, HPKP planak "Instalazio berriak ezartzeko irizpideak" ezartzen ditu, diseinu-neurriak barne hartzen dituztenak, eremu baztertuak eta saihestekoak ezartzen dituztenak, eta abar. Horiek azterketa logistikoetan eta eraikuntza-proiektuetan aplikatuko dira, eta aplikagarriak diren IEE eta IIE prozeduretan baloratuko dira. Bestalde, inpaktu positiboen artean, nabarmentzekoak dira zabortegean bukatzen duten hondakinen bolumenaren murrizketa eta balorizazioa (lehengaien erauzketan izandako murrizketa).	 
	Toki-erakundeekin sustatzea, US2030en bidez, konpontzeko eta berrerabiltzeko mekanismoen sustapena	EZ	Jarduera logistikoa/administratiboa, prozesuak hobetzen dituen eta instalazio berriak gaitu beharrik ez dakarrena.	
Ikerketa eta proiektu pilotuak	BZAren azterketak eta negozio-eredu berriak ekonomia zirkularreko irizpideetan oinarrituta (Basque HUB)	EZ	Jarduera logistikoa/administratiboa, prozesuak hobetzen dituen eta instalazio berriak gaitu beharrik ez dakarrena.	

	Azterketak erosketan eta kontratazio berdean iraunkortasun-, konpongarritasun-, birziklagarritasun-irizpideak edo enpresentzako eskakizunak sartzeko eta MITERDein lankidetzaren arlo horietan.	EZ	Jarduera logistikoa/administratiboa, prozesuak hobetzen dituen eta instalazio berriak gaitu beharrik ez dakarrena.	
Gobernantza (legedia, arau-garapenak...) (FUNTSEZKO JARDUKETA, BERE OSOTASUNEAN)	Ingurumen Administrazioaren Legean, EJK erabakitzeak aukera izatea interes komuneko azpiegiturak ezartzeari buruz (adibidez, une honetan hondakinen azken kudeaketako zaborteak edo instalazioak).	EZ	Administrazio autonomikoak interes komuneko instalazioak kokatzeko aukeren gaineko kontrol handiagoa egitea ahalbidetuko du, hurbiltasunaren, autosufizientziaren eta unibertsaltasunaren printzipioa betetzen dela bermatzeko. Ez du esan nahi azpiegiturak ezartzea, Eusko Jaurlaritzaren erabakitzeak gaitasunari bakarrik egiten dio erreferentzia.	
	Hondakinen arloko legegintza-garapenak (esparru-legedia, erabilera berriak gaitzeko eta isurketak debekatzeko dekretuak, etab.) (3. FUNTSEZKO JARDUKETA)	EZ	Lege-esparru zehatzagoa eta zorrotzagoa ezinbestekoa da ezarritako helburuak betetzeko bidean aurrera egiteko. Ekoizleak eta kudeatzaileak arau komunen arabera jardutera behartzen ditu, eta modu horretan bermatuko dute HPKP 2030 planaren printzipioen araberrako funtzionamendua, bai eta Europako eskakizunei erantzutea ere.	
	Hondakin-plan honetan isurketa-instalazioen baimena mugatzea ez gaitziz 2030ean 7,5MM m ³ -ko edukiera HeAentzat eta 0,6 m ³ -koa HGentzat.	EZ	Lege-esparru zehatzagoa eta zorrotzagoa ezinbestekoa da ezarritako helburuak betetzeko bidean aurrera egiteko. 2030erako isurketa-bolumena nahitaez mugatuta, hondakinak kudeatzeko hierarkiaren aurreko urratsetan jardutera behartzen da, prebentzioan, berrerrabileran eta birziklatzean aurrera eginez, bai eta balorizazioan ere.	
Kontabilitatea	Hondakinei buruzko inbentarioak hobetzea, falta diren korranteak barne hartuz (lurrak, littering-a, itsasoko zaborra...), arlo horretako Europako arau berrietara egokituz, denak estatistika-eragiketa bihurtuz, informazioaren kalitatea hobetuz eta argitaratzeko epeak laburtuz.	EZ	Ezinbestekoa da hondakin-korrante guztiei eta, bereziki, lehentasunezko erantzuten zaiela bermatzeko, eta behar bezala kudeatzen direla ziurtatzeko neurri egokiak ezartzen direla bermatzeko. Jarduketa logistiko/administratiboa da.	

	Hondakin agronomikoen inbentarioa egitea (2022)	EZ	Inbentario hori izateak aukera emango du hondakin agronomikoen ondoriozko arazoei modu eraginkorrean aurre egiteko. Jarduketa logistiko/administratiboa da.	
	Kontabilitatea hobetzea jatorritik: bilketak digitalizatuz kontabilitatea hobetzeko, kudeatzaileen berri emateko betebeharra ezarriz hondakinen azken eragiketa arte (2021), eta hondakinen kodeketa hobetuz gida baten eta eskakizun espezifikoaren bidez	EZ	Ezinbestekoa da hondakin-korrante guztiei eta, bereziki, lehentasuneko erantzuten zaiela bermatzeko, eta behar bezala kudeatzen direla ziurtatzeko neurri egokiak ezartzen direla bermatzeko. Jarduketa logistiko/administratiboa da.	
Komunikazioa, sentsibilizazioa, informazioa eta gardentasuna	US2030arekin eta HHKOarekin koordinatzea, hiri-hondakinen arloko ezagutza zabaltzeko eta toki-erakundeetan helburuak betetzea sustatzeko.	EZ	Informazioaren hedapena handiagotzeko jarduketak funtsezkoak dira toki-administrazioak, ekoizleak/kudeatzaileak eta, oro har, herritarrak inplikatzeko hondakinen sorreratik eta kudeaketatik eratorritako arazoen konponbidean. Haien lankidetzarik gabe, ezingo dira bete Europak ezarritako helburuak, eta, beraz, komunikazio- eta sentsibilizazio-mekanismo horiek garrantzi berezia hartzen dute.	
	Informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina koordinatuak, foru-aldundiekin, SCRAPEkin eta hondakinen kudeaketan parte hartzen duten beste agente batzuekin lankidetzan, prebentzioari garrantzia emanez. (jardunaldiak, liburuxkak, argitalpenak, iragarkiak hedabideetan...)	EZ		
	Bi urtean behin argitaratzea Planaren eta Ekobarometro sozial eta industrialaren jarraipenaren emaitzak	EZ		
	Gida teknikoak, liburuxkak, jardunbide egokiak.	EZ		
	Dibulgazio-plataforma, datu-basea eta bigarren mailako materialen produktuen bilatzailea	EZ		

Agenteek erantzukizuna partekatzea	Banaketa-sektorearekin eta zenbait klusterekin borondatezko akordioak, bilgarriratu gabekoak sustatzeko, bilgarriak murrizteko eta konpongarritasunaren eta birziklagarritasunaren gutxieneko irizpideak betetzen ez dituzten produktuak merkaturatzea saihesteko	EZ	Jarduketa logistiko/administratiboa da, prozesuen hobekuntzarekin eta eragileen inplikazioarekin lotua dagoena. Printzipioz, ez du esan nahi instalazio berriak behar direnik, baina lehendik daudenak egokitzea ekar lezake. Oro har, egokitzeak lehendik dauden ekoizpen-instalazioen barruan izango lirateke, oso ingurumen-inpaktu txikia edo batere ez dutenak. Bestetik, hondakinen kudeaketaren hierarkiako lehen esku-hartze faseetan aurrera egiten da, eta horrela, europar estandarrak betetzen direla bermatuko da.	
	Herritarren esku dagoen desamiantatze-plana (egituretako zuntz-zementuaren bilketa eta kudeaketa), foru-aldundiekin eta Osalanekin lankidetzan (10. FUNTSEZKO JARDUKETA)	BAI	Bilketa-planak hobekuntza dakar egituretako zuntz-zementuaren kudeaketan aurrera egiteari dagokionez, gaur egun arazo handia baita. Hala ere, funtsezko jarduketaren alderdi kritikoetako bat da jasotako amiantoarentzat lurralde bakoitzean helmuga egokia aurkitzea. Horren ondorioz, lehendik dauden instalazioak handitu edo egokitu egin daitezke, frakzio hori bere gain hartzeko. Kasu honetan sortzen diren inpaktuek ondorio hauek eragiten dituzte: lurzoruaren okupazioa, lurzoruaren kutsadura, natura-ondareko hainbat elementuri eragitea kokapenaren arabera, hidrologiari eta hidrogeologiari eragitea, isuriak sortzea eta biztanleriari eragitea. Eragin horiek saihesteko eta/edo minimizatzeko, HPKP planak "Instalazio berriak ezartzeko irizpideak" ezartzen ditu, diseinu-neurriak barne hartzen dituztenak, eremu baztertuak eta saihestekoak ezartzen dituztenak, eta abar. Horiek azterketa logistikoetan eta eraikuntza-proiektuetan aplikatuko dira, eta aplikagarriak diren IEE eta IIE prozeduretan baloratuko dira.	 
	Beste eragile batzuekin koordinatuta bilketa-jarduketak ezartzea (itsasoko zaborra, zabor sakabanatua, etab.).	EZ	Printzipioz, jarduketa logistikoa/administratiboa da, prozesuak hobetzearekin eta eragileen inplikazioarekin lotua dagoena, eta ez luke instalazio berrien beharrik ekarriko, ezta daudenak egokitzerik ere.	

	SCRAPEkin hitzarmenak kudeatzea legezko helburuak gardentasun handiagoz betetzea lortzeko eta EAEko merkatuan jarritako produktuen helmugen berri emateko, ekomodularitate- eta ekodiseinu-irizpideak barne hartuta.	EZ	Prozesuen hobekuntzan eta eragileen inplikazioaren hazkundera eragiten du, baita jarduketaren gardentasunean ere.	
Azpiegiturak, gaitasun teknikoaren nahikotasuna eta kalitate handiko prebentzio- eta kudeaketa-prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoak 2030era arte isurketaren autosufizientzia bermatzea, isurketa minimizatzearekin eta daudenak behar bezala itxi edo ixtearekin batera (2. FUNTSEZKO JARDUKETA)	BAI	Ez da zabortege berriak instalatzea planteatzen; hala ere, lehendik daudenak handitzea ekar dezake, 2030era arte aurreikusitako isurketa-bolumena hartzeko, betiere HPKP planak isuria minimizatzea bermatzeko ezarritako murrizketekin. Lehendik dauden instalazioak handitzeak hainbat elementuren gaineko inpaktuak eragin ditzake: lurzorua okupazioa, lurzorua kutsadura, natura-ondareko hainbat elementuri eragitea kokapenaren arabera, hidrologiari eta hidrogeologiari eragitea, isuriak sortzea eta biztanleriari eragitea. Eragin horiek saihesteko eta/edo minimizatzeke, HPKP planak "Instalazio berriak ezartzeko irizpideak" ezartzen ditu, diseinu-neurriak barne hartzen dituztenak, eremu baztertuak eta saihestekoak ezartzen dituztenak, eta abar. Horiek azterketa logistikoetan eta eraikuntza-proiektuetan aplikatuko dira, eta, egoki izanez gero, aplikagarriak diren IEE eta IIE prozeduretan baloratuko dira. Bestalde, autosufizientziari dagokionez, autosufizientziaren, hurbiltasunaren eta unibertsaltasunaren printzipioari egokitzen zaio, eta aurrera egiten du hondakinen garraio-fluxuen murrizketan.	 

	Bigarren mailako materialak biltegiratzeko eta egiaztatzeko konponbide integrala (6. FUNTSEZKO JARDUKETA)	BAI	HPKP 2030 planaren aurreko bertsioetan instalazio berri bat planteatu zen ildo horretan; hala ere, egungo zirriborroan solairu hori baztertu egin da, eta arazo hori beste aukera batzuk bilatuz konpondu nahi izan da (nolanahi ere, administrazio publikoek kontrol zorrotza egingo lukete, prozesuaren gardentasuna eta materialen kalitatea bermatzeko). Halere, instalazioak ekimen pribatutik sortu ahal izango lirateke. Kasu honetan sortzen diren inpaktuek ondorio hauek eragiten dituzte: lurzorua okupazioa, lurzorua kutsadura, natura-ondareko hainbat elementuri eragitea kokapenaren arabera, hidrologiari eta hidroeologiari eragitea, isuriak sortzea eta biztanleriari eragitea. Eragin horiek saihesteko eta/edo minimizatzeko, HPKP planak "Instalazio berriak ezartzeko irizpideak" ezartzen ditu, diseinu-neurriak barne hartzen dituztenak, eremu baztertuak eta saihestekoak ezartzen dituztenak, eta abar. Horiek azterketa logistikoetan eta eraikuntza-proiektuetan aplikatuko dira, eta, egoki izanez gero, aplikagarriak diren IEE eta IIE prozeduretan baloratuko dira.	 
	Hondakin-izaeraren amaiera-baldintzen irizpide teknikoak ezartzea azpiegiturei baimenak emateko edo ukatzeko.	EZ	Jarduera logistikoa/administratiboa, prozesuak hobetzen dituen eta instalazio berriak gaitu beharrik ez dakarrena.	
	Kudeatzaileei kaudimen teknika eskatzea hobetzea	EZ	Jarduera logistikoa/administratiboa, prozesuak hobetzen dituen eta instalazio berriak gaitu beharrik ez dakarrena.	

	Hondakin plastikoetarako eta horiek zabortegitik desbideratzeko behin betiko soluzioei laguntzea. (7. FUNTSEZKO JARDUKETA)	BAI	Arazo hori konpontzeko hainbat irtenbide aurreikusten dira, eta horietako asko abian jartzen diren proiektu pilotuetan lortzen diren emaitzen arabera izango dira. Funtsezko jarduketaren deskribapenean adierazten den bezala, lehentasun-ordena honetan aurreikusten da: birziklatze mekanikoa plastikoen birziklagailuetan, plastiko berriak fabrikatzeko materialen sintesirako birziklatze kimikoa, energetikoki HEE gisa balorizatzea EAEko plantetan HEE inportatua ordeztuz, eta energia-balorazioa EAEko hiri-hondakinak errausteko plantetan. Konponbide horietako bakoitzaren bideragarritasunak gainerakoetan izango du eragina, eta hori funtsezko jarduketaren alderdi kritikoa da. Baliteke instalazio berriak gaitu behar izatea edo daudenak handitu eta/edo egokitu behar izatea, soluzioak abian jartzeko. Ildo horretan, hainbat inpaktu sor daitezke: lurzoruaren okupazioa, lurzoruaren kutsadura, natura-ondareko hainbat elementuri eragitea kokapenaren arabera, hidrologiari eta hidrogeologiari eragitea, isuriak sortzea eta biztanleriari eragitea. Eragin horiek saihesteko eta/edo minimizatzeko, HPKP planak "Instalazio berriak ezartzeko irizpideak" ezartzen ditu, diseinu-neurriak barne hartzen dituztenak, eremu baztertuak eta saihestekoak ezartzen dituztenak, eta abar. Horiek azterketa logistikoetan eta eraikuntza-proiektuetan aplikatuko dira, eta, egoki izanez gero, aplikagarriak diren IEE eta IIE prozeduretan baloratuko dira. Bestalde, plastikoak zabortegian uzteko aurreikusitako murrizketak eragin positiboa du ingurumenean, eta aurrera egiten du hondakinak kudeatzeko hierarkiaren aplikazioan.	
--	--	------------	---	---

Azpiegiturak, gaitasun teknikoaren nahikotasuna eta kalitate handiko prebentzio- eta kudeaketa-prozesuak	Hondakinak prebenitzeko eta bilgarrien kalitate handiko berrerabiltzea eta birziklatzea sustatzeko jarduketak, SDDR sistemak aztertu eta, hala badagokio, zabaltzea barne (9. FUNTSEZKO JARDUKETA).	EZ	Prozesuak hobetzearekin eta eragileen inplikazioarekin zerikusia du jarduketak. Printzipioz, ez du esan nahi instalazio berriak behar direnik, baina lehendik daudenak egokitzea ekar lezake. Oro har, egokitzeak izango lirateke lehendik dauden kudeaketa-instalazioen barruan, oso ingurumen-inpaktu txikia edo batere ez dutenak. Bestetik, hondakinen kudeaketaren hierarkiaren esku-hartzearen lehen faseetan aurrera egiten da, berrerabiltzea eta birziklatzea sustatuz, eta horrela europar estandarrak betetzen direla bermatuz.	
Kontrola eta fiskalizazioa indartzea	Ikuskapen- eta zehapen-baliabideak handitzea hondakinak kudeatzeko instalazioen egokitzapena bermatzeko, bai eta hondakin horien helmuga optimoa bermatzeko ere (5. FUNTSEZKO JARDUKETA).	EZ	Ikuskapen- eta zehapen-baliabide handiagoak jartzeak aukera emango du bermatzeko kudeaketa-instalazioak legezko eskakizunetara egokitzen direla eta, beraz, ezarritako helburuak betetzen aurrera egiten dela. Espero da ekoizleak eta kudeatzaileak motibatuko dituela zorrotzagoak izatera eta beti eskatutako estandarren arabera jardutera.	
	Lehenestea kudeatzaileetara iristen diren hondakinen helmugen ikuskapena eta ezaugarritzea (jatorrian egoki bereiztea) eta betetzea hondakin-izaeraren amaiera-baldintzen eta kudeatzailea baimentzearen zehaztapenak (bigarren mailako materialen eta produktuen zehaztapenak kudeatzailetik irtetean).	EZ	Europako eskakizunei erantzuten zaiela ziurtatzeko funtsezkoa da ikuskapen- eta zehapen-sistema horien eragina orain arte gabezia handienak izan dituzten eta/edo helburuak betetzeari begira garrantzitsuentzat jotzen diren eremuetan.	
Finantzaketa, dirulaguntza, zerga-sistema berdea	Inbertsio-plana eta ibilbide-orria, isurketa minimizatzen duten eta zirkulartasuna sustatzen duten lehentasunezko inbertsioak babesteko (1. FUNTSEZKO JARDUKETA)	EZ	Inbertsioei lehentasuna ematearekin lotzen den izaera logistiko/administratiboko jarduketa, HPKP planaren helburuak betetzearren modu eraginkorragoan erantzuteko prozesuak hobetzen dituen.	
	Hondakinen eta errausketaren kanona EAEn (4. FUNTSEZKO JARDUKETA)	EZ	Legez araututako finantza-tresnak ezartzea ezinbestekotzat jotzen da, HPKPko beste tresna batzuekin batera, helburuak	

	Sortzeagatik ordain dadila sustatzea (esparru-legeria)	EZ	betetzen aurrera egiten dela bermatzeko eta Europako eskakizunei erantzuna emateko. Isurketaren eta birziklatzearen arteko lehia ekonomikoa desorekatu nahi da birziklatzearen alde, horrela hondakinen kudeaketaren hierarkia betetzeko bidean aurrera eginez.	
Administrazioa sinplifikatzea eta arintzea	Tramitazio telematikoko tresnak ezartzea eta sinplifikatzea (Ingurunet, Tramitagune, etab.).	EZ	Prozesuak hobetzera bideratutako jarduketa logistiko/administratiboak, eta inola ere ez dakartenak instalazio berririk ezartzea edo lehendik daudenak egokitzea edo handitzea.	
	Ekoizle txikiak edo app-ak lekualdatzeko sistemak pilotatzea eta baliozkotzea, Ingurunet-era eta hondakinak kudeatzeko plataforma publikoetara konektatzea errazteko.	EZ		
	Hondakinak lekualdatzeko baimena arautzea Planaren printzipioei jarraituz.	EZ		
	Konponketa-erakundeen erregistro bat ezartzea, datuen berri emateko betebeharrarekin.	EZ		

6. PREBENTZIO-, ZUZENKETA- ETA/EDO KONPENTSAZIO-NEURRIAK

6.1. INSTALAZIO BERRIAK EZARTZEKO IRIZPIDEAK

Hondakin Plana 2030 hondakinak kudeatzeko instalazioak gerora garatzeko plangintza-esparrua da, indarreko araudiak eta Planak berak ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren heinean.

Horretarako, Hondakin Planak hainbat ingurumen-irizpide zehazten ditu, eta irizpide horiek kontuan hartu beharko dira hondakinak kudeatzeko instalazio berriak ezartzeko, hartara, ingurumen eraginak saihestu edo, hala badagokio, ahalik eta gehien minimiza daitezzen. Kontuan hartu beharko diren irizpideak hauek dira:

- Hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten instalazio berriak jartzeko kokalekuak zehaztea.
- Instalazio horiek ezartzea ahalbidetzen duten planak onartzeko prozeduretan garatzen den ingurumen-azterketa, baita helburu horrekin aurreikusten diren proiektuak baimentzeko prozeduretan garatzen dena ere.

Ondoren garatzen diren ingurumen-irizpideak alderdi hauen inguruan egituratzen dira, irismen-dokumentuan ezartzen den bezala, 2021eko martxoaren 30eko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren Ebazpenaren bidez:

- Dimentsionamendua
- Teknika eskuragarri onenak erabiltzea
- Ingurumen-balio garrantzitsuak zaintzea
- Ingurumen-arrisku berrien edo arrisku horiek larriagotzearen prebentzioa.
- Garrantzi gutxiko esparruak balioestea, naturaren, kulturaren edo ingurumen arriskuaren ikuspegitik, hondakinak kudeatzeko instalazio jakin batzuk jasotzeko sustatu behar direnak, plan bideragarriak garatzeko hautabideen aldeko apustua indartuz eta ingurumenarentzat ondorio kaltegarri gutxiagorekin.

Nolanahi ere, ondoren zehazten diren ingurumen-irizpideez gain, kontuan hartu beharko dira lurralde-plan sektorialetan eta lurralde-plan partzialetan sartutako beste izaera bateko irizpideak ere.

6.1.1. Instalazioak diseinatzeko irizpideak, dimentsionamendua barne

- a) Hondakinak kudeatzeko instalazioak, eskuragarri dauden teknika onenak kontuan hartuta proiektatu beharko dira, hau da, gutxien kutsatzen duten teknologiak, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren baldintzetan.
- b) Instalatzeko aurreikusi den prozesu teknologikoak, ahal den neurrian, hondakinen kudeaketaren hierarkia bete beharko du, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011

Legearen 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (eta HLKL berriaren aurreproiektuaren zirriborroan).

- c) Denboran zeharreko garapenari dagokionez, sustatzen diren instalazioek kontuan hartu beharko dituzte EAEn gaur egun dagoen eta aurreikusten diren eskakizunak eta tratatu nahi duten hondar-korronteak lotutako egungo eta etorkizuneko lege-betebeharrak, zeren eta hondakin jakin batzuk helburu espezifiko jakin batzuen eraginpean baitaude.
- d) Ez da baimenduko hondakinak zabortearen biltegiak ezabatzeko ahalmen gehigarriak, 2030eko plan honen helburuak betetzeko ezarritako beharretatik harago, hain zuzen, HPKP 2030 planaren beharrezko azpiegituri buruzko kapituluaren islatutakoa.
- e) Ahal den neurrian, energia berriztagarrien iturriak ustiatzeko beharrezkoak diren azpiegituren jardura berriak egingo dira. Azpiegiturak eta instalazioak paisaia txertatzen laguntzeko beharrezkoak diren eraikuntza-teknikak eta materialak hartuko dira.
- f) Alternatibak konparatzeko ingurumen-azterketetan, lehentasuna emango zaie honako instalazio hauei:
 - Balorizatzeko modu berriak, edo lehendik ezarritako balorizazio-prozesuen dibertsifikazioa areagotzea.
 - Lehendik ezarritako balorizazio-prozesuen hobekuntza teknologikoa.
 - Hondakinak kudeatzeko korronteetan balorizaziorako ezarritako ahalmena handitzea, baldin eta lehendik finkatuta dauden instalazioek ez badute behar den gaitasuna estaltzen.
 - Mugikortasun txikiagoa, eta, ondorioz, osasunean eta ingurumenean eragindako inpaktuak minimizatzea, analisi logistiko batetik abiatuta.

6.1.2. Instalazioak kokatzeko irizpideak

Nahiz eta HPKP 2030 garatzeko ekimen gehienak, eta bereziki garrantzi edo tamaina handienekoak (inpaktu-potentzial handienekoak), ingurumen-ebaluaziorako prozedura baten xede izango diren, eta zenbait kasutan, baita bi prozeduraren xede ere, IEE eta IIE ere, aurreko Hondakinen Planetik (2020rako programazioa) instalazio berriak garatzeko irizpide batzuk ezartzeko beharra ikusi zen, lehendik daudenak handitzean aplikatzekoak ere, diseinu- zein kokapen-gaiak barne. Irizpide horiek 2030erako programazio-aldirako berrikusi dira, gaur egun indarrean dagoen araudira eta plangintzara egokituz eta ingurumen-organismoak igorritako irismen-dokumentuaren eskakizunei erantzunez.

6.1.2.1. [Industria-eremuetatik kanpo hondakinak kudeatzeko azpiegiturak instalatzeko zona desegokiak edo baztertuak definitzea](#)

HPKP 2030etik proposatzen da **zona desegokiak edo eskusiokoak** ezartzea hondakinak kudeatzeko azpiegiturak instalatzeko. Hauek dira zona horiek:

- Parke naturalak.
- Biotopo babestuak.
- Zuhaitz apartekoak.

- Natura 2000 Europako Sarean sartutako gunek: Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE).
- Izapidetzen ari diren naturagune babestuak (onartutako NBAParen hasiera-aginduekin).
- Ramsar hezeguneak, EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialaren II. Multzuan sartutako hezeguneak eta plan hidrologikoek babestutako eremuetako beste hezegune batzuk.
- Urdaibai Biosfera Erreserba, EKZPn definitutako hirigintza-plangintzan ordenatzeko zonak izan ezik (HPO).
- Txingudiko Plan Bereziak antolatutako eremua.
- EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatutako Lurralde Plan Sektorialaren babes berezi zorrotzaren eta babes berezi bateragarriaren kategoriak.
- Lurralde-plan partzialek (LPP) eta udal plangintzak, beren interes natural handian oinarrituta, Babes Bereziko Eremu gisa kategorizatutako eremuak.
- Kudeaketa-planak onartuta dituzten flora- edo fauna-espezieak banatzeko interes bereziko eremuak⁴⁷.
- Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartutako flora-espezieak berreskuratzeko planen eraginpeko zonak.
- Kantauri Mendebaldeko, Kantauri Ekialdeko eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoetako Plan Hidrologikoetako Eremu Babestuen Erregistroko hiri-hornidurarako ura biltzeko gunek babesteko perimetroan sartutako eremuak.
- Babes bereziko eta ertaineko kultura-ondasunak (6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena).
- LAGetan definitzen diren funtzio anitzeko interes naturaleko gunek

Ondoko gogoetak oso garrantzitsuak dira desegokiak diren edo baztertuak dauden zona hauek interpretatzeko:

- 1) Horien mugaketa IAE honen I. ERANSKINEAN dago jasota, eta HPKP 2030i erantsi zaizkio. Dena den, erakunde eskudunek babestutako eremuei buruzko eguneratze berriak egin ditzakete⁴⁸, eta horiek Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituran (www.geo.euskadi.eus) eta/edo foru-aldundien web-orrietan kontsultatu ahal izango dira.
- 2) Esparru horietatik kanpo proiektuak sustatzeak ez du saihesten IEE/IIERI men egitea, aplikatu beharreko araudiak hala ezartzen badu, eta ez du baztertzen ingurumen-ebaluazio horrek emaitza txarrak ematea, espero diren ingurumen-inpaktuen garrantziaren arabera.
- 3) Interes natural handia izateagatik LPPEk eta udal-plangintzak Babes Bereziko gisa kategorizatutako eremuei dagokienez, ez dago informazio kartografiko eguneraturik eta shp. edo dwg. formatuan kasu guztietarako. Gainera, kontuan hartu behar da plangintza biziak direla, askotan berrikusten ari direla

⁴⁷Bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) kasu zehatzean, Bizkaian, "Interes bereziko eremuak" kategoria hartu da Kudeaketa Planak Bizkaiko ibai-sare osoa banatzen dituen 3 kategorien artean (beste biak "zabaltze-eremu potentzialak" eta "hobekuntza-tarteak" izango lirateke).

⁴⁸ Adibidez, espezie mehatxatuak kudeatzeko planak onartzea, eremu berriak eta antzeko gaiak babesteko.

(Bilbo Metropolitanoko Lurralde Plan Partziala edo Araba Zentraleko Lurralde Plan Partziala, adibidez), eta, beraz, ez zaio egoki iritzi haien mugaketa adierazteari.

